



2013-02-25
ASTELEHENA
399. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Agirre bertsoan onena

Finalerako sailkatu da aramaioarra | 30



Hiru aramaioarrak. | IMANOL SORIANO

Ikurrina lau haizetara Bergaran, herritar ugariren txalo artean | 4



Aloña Mendik 27 txirrindulari eta lau talde denboraldi berriarako | 26



Elurra, gozamenerako

Errepideetan eta bestela ere, ez du aparteko endredorik sortu urteko bigarren elurteak, baina gaur ere elur giroak segituko du | 2



Oñatiar neska-mutikoak eta gurasoak, primeran, Arantzazun atzo, elurrarekin gozaten.

ENEKO AZKARATE

Malen Ruiz de Azua onenen parean beste behin, markak onduz | 26



Arrasate musikalek Amaia antzokia bete du, doinuaz eta marrazkiz

Musika, ipuina eta marrazketa batera, 'Pedo eta Otsoa'-n | 32



'Pedo eta Otsoa' musika ikuskizuneko une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Dani Mateok irribarrea ekarri du Elgetako monologoetan



Elurrak elur, Espaloia bete egin da zapatu eta domekan | 32

Errepidean arazorik apenas eta elurra ondo pasatzeko

- ▶ Iragarpenak beteta, domekan bota du gehien
- ▶ Urkulu, Arantzazu, Gorla..., disfrutatzeneko gune

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA
Iragarpenak bete egin dira. Bete betean asmatu dute. Eta, hala, zapatuan, hotza bai, haize hotz fina, izan genuen ia egun guztian zehar eta elurra goizean goizetik. Elur gizia, txikia, halere, haizeak hara-hona zerabilena. Arratsalderako bustitzera egingo zuela iragarri zuten eta orduantxe hasi zen mara-mara: orain bota, orain artetu.

Domekan, zuri-zuri

Eta, domekan ere ildo beretik. Eguna argitzearekin batera, zuri-zuri zeuden kale zapaldu bakoak, lehen orduetako hanka eta errubera markekin. Goiko auzoak eta herri garaienak, batik bat. Goizaldeko 3:30ak aldera bota zuen sendo, Arrasateko Tiburon egunkari saltzaileak azaldu zigunez.

Udaletako langileak, halere, oraingoan ez ditu ezustean harrapatu elurteak eta egia da, gainera, duela aste bi baino gutxiago egin duela. Hala, zapatu eta domekan, kaleetan, espaloietan, gatza botatzen aritu ziren Arrasaten, Ber-

garan, Oñatin... Elurra kentzeko makina ere bai, Oñatin-eta. Baita Elgetan ere, Bergararantz batik bat, gora eta behera etengabe. Errepideak garbi izan dituzte asteburuan Elgetan.

Oñatin, gainera, 60 bat herritar, boluntario, aritu ziren zapatuan gatza herrian barrena botatzen.

Errepideak garbi

Hartara, errepideetan ez du aparteko arazorik sortu elurrak. Bergara eta Osintxu artean, arbola-arama batzuk errepidera erori ziren domeka goizean baina berehala kendu zituten kaminitik. Gainera, asteburua izaki, eta bereziki domekan egin duenez, arazoak saihesten lagundu du bidean ohikoa baino auto gutxiago ibili izanak. Ibili direnak,

DATUA

60

BOLUNTARIO

Oñatin, elurrari aurre egiteko eta espaloiak, kaleak, kaminoak... garbi edukitzeko, boluntario bila deia egin zien herritarrei Udalak eta 60 bat erlarkatu ziren zapatuan, gatza botatzeko



Aisialdi gune garaienak familiekin bete ziren domekan. Hauek, Dorletan harrapatu genituen.

Arantzazura, Gorlara, Urkulura, Udalara... Baina, ohiko aisialdi gune horietan ere, halakoetan baino jende gutxiago ikusi dugu. Eguraldia ez zegoen elurretarako...

Urbian, 40 bat zentimetroko elur geruza zegoen domeka goizean; Arantzazun, gutxiago, 25 bat-edo; beste horrenbeste Gorlan; Elgetan, 10 bat...

Gaur, eguraldiak ildo beretik joko du, baina epeltxoagotik, gutxi bata ere. Elur maila apurtxo bat igoko da, baina elur arriskua

izango da Debagoienean, herri guztietan eta egun osoan barrena. Ekaitzak martitzenera arte iraungo du. Euskalmeten arabera, gaur, goizean, 100-200 metroan egongo da elur kota eta 300-400 metroan, arratsaldean. Egunak aurrera egin ahala, termometroak 4-5 °C-ra igoko dira.

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ABARRATEGI, GARAI FAMILIA
ARRASATE

"Arrasatetik etorri gara goizean goizetik, 10etan irtenda, Arantzazutik gorantz, baina ez oso urrin, asko ibili barik. Jada, busti-busti eginda, bagoaz behera etxerantz. Elur panpinak egin ditugu eta lerarekin maldan behera ibili gara. Horretaz gain, elur bolak elkarri botatzen ere ibili gara, batik bat denok aitaren aurka. Elur dezente dago, ia-ia belauneraino heltzen zait niri (Julen)".



MARKEL, MIKEL ETA MANU
OÑATI

"Oñatitik etorri gara goiz pasa. Arazo barik igo gara, gainera, kaminoa zabalik zegoen-eta. Hemen gabiltza elur bolak elkarri botatzen, elurretan palarekin irristatzen..., primeran!. Urbiaraino igotzen ez gara ausartu, baina beharrik ere ez, hemen elur dezente dago-eta. Eguerdian, behera bazkaltzera, amamanera..."



JOSE ANTONIO MORALEJA
ARETXABALETA

"Mondragoetarra naiz izatez, baina Aretxabaletan bizi naiz eta sarri etortzen gara Urkulura, jai egunetan bereziki, paseatzera-eta. Gaur, egun berezia da: elurtuta, zuri-zuri, oso polita dago urtegi ingurua. Argazkiak aterako ditut".



CESAR MORA
OÑATI

"Hemen nabil nire lankidearekin batera, elurra Sindika paretik kentzen, kaminoa zabaltzen, gatza botatzen..., jendea samur etor dadin. Elur asko egin du, baina duela aste bi, gehiago bota zuen. 20 bat zentimetro egongo dira".

Euskararen espektakulue

"Monologo musikatua"

Martxoaren 1ean,
22:30ean.

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA



en, Leintz Gatzagan.



Elgetan, Bergararantz, gora eta behera ibili zen elurra kentzeko makina.



Arantzazun ere, Sindikan, pilatutako elurra kentzen.



Urkulun, bizikletan.



Elurretako panpina Angiozarren.



Urkulun lerekin jolasean, elurretan, maldan behera.



Bergaran Udal langileak gatzarekin.



Ohiko aisialdi eta paseatzeko gunea da Urkulu; elurrarekin ere bai.



Begarako Agorrosin futbol zelaia zuri-zuri domekan.



VANESA CASTRO ETA EDUARDO FRAGUEIRO
ARRASATE

"Ni galiziarra naiz (Vanesa), baina duela urte ete erdi etorri nintzen Arrasatera lanera, Cic Microgunera, Ikerlanera. Toki ederra da hau, Urkuluko urtegia eta inguruak, eta merezi du hona etortzea, domeka izaki, paseatzera. Goizean goiz esnatu eta hona etorri gara. Noiakoa naiz eta han ez da oso ohikoa elurra egitea, 1985ekoaz oroitzen naiz ni, baina ez du askorik egiten. Hemen bai, hemen gehiago eta oso ondo dago".



IZARO ETA OIER
ARETXABALETA

"Urkulura etorri gara aita-amarekin batera eta lerarekin gabiltza disfrutatzen, maldan beherantz. Elur bolak ere elkarri botatzen ibili gara. Orain, atsedentxo bat hartu behar dugu tabernara joan eta salda eta txorizoa hartzeko, eta, ondoren, berriro etorriko gara beste ekinalditxo bat egitera. Oso ondo dago-eta. Bazkaltzera, autoa hartu eta etxera jaitsiko gara".



AGIRRE, ALDALUR, OLAZABAL FAMILIAKOAK
ARETXABALETA ETA MUTRIKU

"Elkarri elur botak botatzen gabiltza, elur panpina ere egingo dugu..., eta Dinosaurioa ere bai. Lerekin ere bagabiltza, gora igo eta jaitsi, elurretan irristatzen. Amatxo eta amama ere gurekin dabiltza, laguntzen. Elurraren onena da panpinak egitea eta batez ere elur bolak egitea eta elkarri botatzen ibiltzea. Amama ez da komeni asko ibiltzea, ze bestela hezurren bat hautsiko du, baina...".

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Esan baitez **betiko**

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua gaitzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA
Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

Jesus Elortza: "Inposaketa guztien gainera, geurea, ikurrina"

Zapatuan ikurrina aldarrikatu eta hari gorazarre egin zioten Bergarako San Martin plazan, Espainiako bandera ipintzeko "inposaketa" salatuz

UBANE MADERA | BERGARA

San Martin plaza lepo zela; nagusi, heldu, gazte zein umeen presentziarekin, eta bertso, txalaparta eta txistuaren doinuen babesarekin igo zuten zapatuan 12 metroko ikurrina Bergarako Udaletxearen ondoan. Jesus Elortza alkatea eta Ramon Mendibil, 1976an (Francoren ostean Euskal Herriko lehen ikurrina igo zuten) alkate-orde zenak tiratu zuten bandera zuri-gorri-berdearen sokatik, goraino igo arte. Txalo artean eman zioten, berriz, ongi-etorria San Martin plazako ornamentu berriari bertaratutako guztiek.

"Abertzale guztiak elkartu"

Hori bai, inori ez zitzaion ahaztu ikurrinaren gorazarre ekitaldia Espainiako gobernuaren agindu baten ondoren etorri dela. Eta hala azpimarratu zuten Bergarako Udala Gobernuko agintariek: "Inposaketa bat izan da. Gutuna jaso genuenetik ahal den eta gehien luzatu dugu, errekurritu egin dugu... Ez genuen ipini nahi, baina behartuta sentitu gara. Horren aurrean erabaki genuena da gurea argi dugula zein den, eta gurea ikurrina da. Gure sentitzen dugu, ikurra izateaz aparte, gure nortasunaren ikur bezala ikusten dugu", esan zuen Leire Iruin zinegotziak. Halaber, ekitaldian abertzale guztiak ez egotearen aurrean, zera gehitu zuen: "Gure saiakera izan behar da abertzale guztiak elkartu eta elkarrekin lan egin, alde batera lagata bestelako interes politiko guztiak".

Elortza alkateak, berriz, adierazi zuen "mingarria" dela gertatutakoa; eta besteak beste, aldarrikatu zuen: "Inposaketa guztien gainera, geurea, ikurrina".



Ikurrina igotzen, Bergarako Udaletxe ondoan, zapatuan. | UBANE MADERA

M. KARMEN AIASU ETI KRISTINA ELKORO | JOSE LUIS ELKOROREN EMAZTEA ETA ALABA

"Maite dugu, euskaldun denondako da berezia ikurrina"

Ikurrinari zapatuko gorazarre ekitaldian, besteak beste, Francoren diktadura ostean Euskal Herrian lehen ikurrinaren igoeran parte hartu zuen Jose Luis Elkoro alkatearen familia izan zen. Mari Karmen Aiasu eta Kristina Elkoro alabak ikurrinaren garrantzia azpimarratu zuten.

Askorendako ikurrina berezia bada, zuen familiarendako oraindik ere bereziagoa izango da, ezta? Gurea da eta hala sentitzen dugu, maite dugu... nik uste dut euskaldun denondako dela berezia.

Baina akaso zuen familiak gertuagotik bizi izan du ikurrinaren aldeko borroka...

Borroka hura denona izan zen, ez gurea bakarrik. Denon bultzada inportantea izan zen, plaza bete-bete-beteta izan zen, herriak eman zuen indarra, ez guk bakarrik.

Gaur Jose Luis etxean amorratuta egongo da...

Ba bai; baina beste inposaketa bat da, pultserarekin egotea eta 13:00etan etxean egotea moduan.

Sasoi hartako ikurrina gordeta duzue, ezta?



U.M.

Moja zaharrek egindako oso ikurrin polita izan genuen, Gordeta dugu. Baina orain ere oso dotorea ipini dute. Euskal Herriko lehen ikurrina jarri zen leku berean gaur ikurrinari omenaldia egitea polita da; eta berriro ikurrina leku berean eta udaletxe ondoan egotea garrantzitsua da Euskal Herri guztiarendako.



M. JESUS UNZURRUNZAGA

"Ikurrina hemengo sinbolo bat da. Oso garrantzitsua. Bandera espainola ipintzearekin atzera egiten dugula uste dut. Oso ederra izan zen Bergaran ikurrinaren alde egin zen ekimena. Oso hunkigarria. Gogoan dut: Monzon eta..."



MARIA JESUS ZEZIAGA

"Nik azpimarratu nahiko nuke ikurrina geurea dela, geure ikurra. Eta jende gazteari argi eta garbi esango nioke horixe: ikurrina geurea dela, geurea, hemengoxea dela! Akordatzen naiz Bergaran igo zutenekoaz, bai".



ARTAZ ETA ARKAITZ LOPEZ

"Gaur San Martin plazara etorri naiz ikurrina Euskal Herriaren omenez ipintzen dutela pentsatzen dudalako. Nire etxean erakutsi didate hori, bai. Gaur, gainera, nire anaia Arkaitz ere etorri da plazara".

Bi debagoiendar Sorturen zuzendaritzan

Josu Lizarralde eta Unai Berrostegeta Kontseilu Nazionaleko kide dira

ESPOLON

School of English

Ibargarai 31. Barruko Plaza
BERGARA

Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

espolon@euskalnet.net

INGELES KLASEAK

Maila guztiak

- CAMBRIDGE-eko UNIBERTSITATEKO AZTERKETARAKO PRESTAKETA (KET, PET, FIRST CERTIFICATE, ADVANCED, PROFICIENCY)
- H.E.O.
- Talde txikiak
- Goizez eta arratsaldez

ENEKO AZKARATE | IRUÑEA

Sorturen Kontseilu Nazionalean bi debagoiendar izango dira: Josu Lizarralde oñatiarra eta Unai Berrostegeta bergararra. Azken hau gasteiztarra sortzez, Bergaran bizi da. Borroka Ideologikoaren ardura izango du Josu Lizarralde Bilduko zinegotziak (Hirigintza zinegotzia da Oñatiko Udalean) eta Unai Berrostegeta, ostera, Nazio mailako irizpideekin aukeratutako bost kideetako bat da.

Unai Berrostegeta, gainera, Gipuzkoako Herrialdeko Kontseiluko kide ere izango da, Gipuzkoako Idazkari Orokorren ondoko moduan. Organo horre-

tako kide, beste bi debagoiendar ere izango dira. Batetik, Agurte Berruso Bergarako alkate ohia. Gipuzkoako arduradun instituzional moduan izango da Herrialdeko Kontseiluko kidea. Eta Ibai Redondo bergararra ere bertako kide izango da, Debagoieneko eta Debabarreneko ordezkari moduan.

Hasier Arraiz eta Arnaldo Otegi Osterantzean, zapatuan Iruñean egin zen Sortu alderdi berriaren eratze kongresuan, Kontseilu Nazionaleko kide guztiak aukeratu zituzten sortzaileek. Hala, Hasier Arraiz gasteiztarra izango da alderdiko presidentea eta Arnaldo Otegi Idazkari Nagusi izateko aukeratu dute alderdikideek, baina, oraingoz, bere tokia hutsik gertatu da, kartzelatik irten arte.

Ezker Abertzaleko beste izen ezagun batzuk ere ageri dira Kontseilu Nazionalean. Hala nola: Juan Joxe Petrikorena, Komunikazioaren arduradun; Pernando barrena edo Xabi Lizarralde bozeramaile moduan; Maribi Ugarte-buru Bizkaiko Koordinatzaile; edota Marije Fullaondo (Masa Borroka), Joseba Permach (Borroka Instituzionala) edo Rufi Etxeberria (Gatazkaren Konponbide arduraduna).

10 urteotako legez kanporatze prozesuari amaiera emanez, Iruñeko Kongresu eratzailea alde aurretik zehaztutako bidetik joan da, azken hilabeteotan herririk herri egin den prozesu "parte hartzaile" eta "horizontalaren" ondorio. Burujabetzaren eta ezkerreko politiken alde egingo duen alderdi abertzalea da Sortu.

AHT-aren lanak aurrera doaz Lamiategiko zubi-bidean

Bergara eta Angiozar arteko bidearen eraikuntza amaitzen hasi dira.

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundearen bitartez, Abiadura Handiko Trenaren Lamiategiko zubi-bidea, Bergara eta Angiozar artekoa, eraikitze lanak amaitzeari ekin dio. Bide-zubiak 425 metroko

luzera du eta 31 metroko altuerara heltzen diren hamar zubi-pilare ditu. Horrez gain, 40 metroko bederatzia bao eta 30-35 metroko konpensazioko beste bi bao ditu. Obra hau aurrera eramateko, hormigoizko 12.000 metro kubiko eta altzairuzko bi milioi

kilo erabili dira. Bergara-Bergara tartea 3,1 kilometroko luzera du. Horietatik ia erdia, zubi-bideek osatzen dute. Tarte honetako lanak 2011. urteko udaberrian hasi zituzten. Aurrekontua, 95,1 milioi eurokoa da eta lanak bukatzeko epea 34 hilabetekoa da.

Bizilagunak deseroso

Dena den, zubi-bide berri honen lanek, inguruko bizilagunei eragozpenak sortzen ari dira. "Egoera jasangaitza da, kamioiak egun osoan zehar dabilta gora eta behera, dena lokatze gainezka dago eta mendia ere jausten hasia da. Bidea kendu digute, txakurtegiak ere kendu dizkigute. Dirudienez nahiko ondo ordaindu dute, baina niri ez zait gustatzen. Txikizioa larregizkoa da, kontutan izanda tren baten ibilbidea egiteko dela" dio Victor Iglesias bizilagunak.

Une honetan, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Y-aren Gipuzkoako adarrean eraiki behar dituen

zati guztiak, martxan edo amaiturik daudela adierazi du. Adarraren ibilbidearen %77,6 - hau da, 59,1 kilometro - eraikuntza prozesuan dago jada.

Arrasate-Elorrio plafatorma

Bestalde, Arrasate eta Elorrio herrien arteko plafatorma eraikitze lanak amaitu ditu Adif enpresak. Tarteak 4,4 kilometroko luzera du eta bidearen %81,6 lur azpitik egingo du. Hain zuzen, Karraskain tuneletik, 3,1 kilometrokoa, eta Udalaiz tuneletik, 437 metro dituen. Gainontzeko tarteak, Kobate eta Gabaundi zubi-bideek osatzen dute, 94 eta 223 metrokoak, hurrenez hurren.



UBANE MADERA

ZUBIA EGITEN Belastegiena berria eta Belastegiena zaharra baserrietatik gertu askoan dabilta egiten Abiadura Handiko Trenarendako zubi berria. Hortik behera hasten dira, une honetan, gure ibarra zeharkatuko duen azpiegitura horren lanak.



U.M.

ZUBIAREN JARRAIPENA San Kristobal ermita eta Elkoroberezibar baserri inguruetatik ikus daiteke zubi horrek duen jarraipena. Eudi baserria geratzen da zubiaren gaineko aldean. Babestutako baserri hori hutsik dago orain, lanek bidea moztu dielako bizilagunei.



U.M.

AZKEN ZATIA Amuskibar baserriaren goiko aldetik ikusten den trenbide edo zubibidea bukatuta dago. Bai, behintzat, lanik handienak. Azkeneko erremateak egiten dabilta beharginak: eskudelak jarri eta beste. Dena dela, zela geratuko den erakusten du berorrek.

Nekazaritza-enpresak kudeatzeko ikastaroa martxan Brasilen

MST-k, Mundukide Fundazioak eta ikerketa kooperatiboen Lanki erakundeak antolatuta

M.G. | ARRASATE

Azaroaren 12an hasita, MST (Lur-jabetzarik gabeko nekazarien mugimendua), Mundukide Fundazioa eta ikerketa kooperatiboen Lanki erakundearen eskutik, nekazaritza-industriak kudeatzeko ikastaroa egiten dabilta Brasilgo 53 gazte, denak MST-ren kokalekuetatik etorriak.

29 emakumezko eta 24 gizonetzko daude guztira, eta lehenengo modulua egin dute hiru astean zehar. Sergipe estatuan ari dira ikastaroa aurrera eramaten. Zehazki, Canudoseko formazio zentroan, Moacir Wanderley-n.

Kooperazioa eta elkarlana

Mundukidek, Lankik eta MSTk dela hamarkada bat baino lehenago hasi zuten ekimena, interkooperazio sistema baten barruan dago. Arrasateko esperientzia kooperatiboaren eta

herri-ekonomien kooperatiben (CEP) artean jakintza, esperientzia eta trebatze-fluxua sortzea dira helburuen artean nagusiak. Hortik abiatuta, autogestio prozesuei lagun egitea da ikastaroaren asmoa.

Teoria eta teknika uztartuz

Lehenengo modulua garatu dute hiru astetan zehar eta ikastaroa forma hartzen hasi da. Formazio-zikloa batera ematen ari dira MSTren Ekoizpen Sektorea, Mundukide Fundazioa eta Lanki, MSTren printzipio pedagogikoetan oinarrituta. Hain zuzen, "eskolako denbora" eta "jendar-teko denbora" elkarren osagarri direla oinarri hartuta.

Horrela, teoria eta teknika erakusten da eta, era berean, benetako jarduera sozio-ekonomiko baten aplikatzea da helburua. Arduradunek diotenez, "horrek, ikasitakoa eta ikasleen inplikazioa indartzen du".

Virginia Ormaetxea | Euskadiko Geologoen Elkargoko Idazkaria

"Ikerketa geoteknikoa egin behar da lurjausia gertatu ostean, neurriak hartzeko"

Azken asteotan gure bailaran gertatu diren lurjausiek ezbehar bat baino gehiago eragin dute

M.G. | ARRASATE

Euskadiko Geologoen Elkargoko Idazkaria da Virginia Ormaetxea. Geologoa, geoteknikari buruzko kontsultaria eta Debagoienako lurretako gai geoteknikoen inguruan aditua da. Izan ere, lur ikerlanak eta proiektu geotekniko asko egin ditu azken 15 urteotan.

Azken asteotan eguraldia izan dugu hizpide han eta hemen. Metro karrikak bota duen euri kopuru handiak, lurjausiak eragin ditu gure bailaran. Zein faktore izan daitezke lurjausien eragile edo sortzaile?

Bi faktore mota izan daitezke sorreraren arrazoiak: barrukoak edo kanpokoak. Barrukoak, geologia, ur egoera, lurrare edo harrien propietate fisikoak eta hauskaitzak dira. Hauek, apurketa nolakoa izango den adierazten dute. Kanpokoak, bestalde, ezpondaren geometria, kargak, uraren aldaketak eta klimatologia dira. Azken hauek, apurketaren tamaina adierazten dute.



Virginia Ormaetxea. | v.o.

Gure lurretan azken urteetan egiten ari diren obrek eragin zuzena izan dezakete lurjausien sorreran?

Duda barik, egia da leku batzuetan obren eraginagatik sortu direla. Hala ere, bailaran lur-irristatze batzuk daude eta mugimendua daukate. Lur-irristatze batzuen mugimendua areagotu egin da euriaren ondorioz. Izan ere, faktore eragile garrantzitsuen euria izan da.

Nola osatzen da gure bailara geoteknikoki begiratuta?

Debagoienako geologia dinosauruen arokoa da, hau da, mesozoikoa. Harri motak, hauek dira: buztin nabar gorrixkak (Bergaran), lutita beltzak (Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan), lohi-harri hareatsuak, margak eta kareharriak (Arrasaten), arbel beltzak (Aramaion, Aretxabaletan eta Eskoriatzan) eta kareharri Flyschantzekoa (Bergaran). Gehienek arazo geoteknikoak ematen dituzte obra bat egiterakoan. Lurrek, ur gehiago onartzen ez dutenean, ibaietara bidaltzen dute. Horregatik, azken bolada honetan Deba, Aramaio eta Artixa ibaiek ur asko ekarri dute.

Zer egin daiteke lurjausi arriskua ekiditeko?

Lurjausi edo lur-irristatzeak ez gertatzeko, udal plangintza on bat edukitzea eta obrak hasi aurretik ikerketa geoteknikoa egitea gomendatzen da. Plangintza eta ikerketekin lurjausi eta lur-irristatzeak ekidin eta kontrola daitezke. Lur bakoitzaren egoera ezagututa, lurjausia aurreikusita eta neurriak har daitezke.

Zein neurri har daitezke hurrengo lurjausi-arriskuari begira?

Lurjausia gertatu ostean, ikerketa geoteknikoa egin behar da zuzentzeko neurriak hartzeko. horrek, hala ere, ez du esan nahi berriro ez dela lurjausirik gertatuko. Izan ere, egoera aproposa ematen baldin bada, beste lurjausi bat gertatuko da.

Aurreikusi baino gutxiago itzuliko dute udalek fondora

Debagoieneko udalek 1,1 milioi bueltatuko dute finantziario fondora

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Udalek iaz baino gutxiago itzuli beharko diote Foru Aldundiari, UFFF (udalak finantzatzeko foru fondo) kontzeptuarengatik, 2012ko funtsak 2011koak baino %7,1 diru gehiago duelako (25,2 milioi euro gehiago). Denetara, udalek 15,7 milioi itzuli beharko dituzte 2013an; baina, opor fiskalak berreskuratzeari, azkenean 13,4 milioi bueltatuko dituzte. Urrian aurreikusi baino txikiagoa izan da desbideratze negatiboa (%3,4).

Debagoieneko udalek, denetara, 1.144.564,34 euro itzuliko dizkiote Foru Ogasunari, aurreikusi baino 200.641,71 gutxiago.

%7,1 diru gehiago fondotik

Gipuzkoako alkateak Foru Aldundiaren egoitzan izan ziren astelehen goizean, Ogasuneko arduradunekin bilduta, 2012ko Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren likidazioaren berri izateko. Aurreko astean 2012ko ekitaldian Jaur-laritzari egin beharreko ekarpenen likidazioa finkatu ondoren, udalendako 2012ko funtsaren likidazioa kalkulatu du Aldundiak, Ekarpenean Legean oinarrituta.



Alkateekin batzartu zen Aldundia astelehenean; goian, argazki bat. | GFA

Gipuzkoako Foru Ogasunak 2012ko ekitaldian 3.616 milioi euro bildu ditu zerga itunduenatik, hau da, %94,21ko betetze maila lortu du bere aurrekontuan. EAEn %94,15ko betetze maila lortu da; eta Bizkaian eta Araban %94,38 eta %93,28, hurrenez hurren. Beraz, ez da aurreikuspena bete lurralde bakar batean ere. Dena dela, Gipuzkoako zerga bilketa aurreko urtearekiko positiboa izan da, Bizkaian eta

Arabian ez bezala: Araban %2,72 gutxiago batu da; Bizkaian, %0,69 gutxiago; eta Gipuzkoan, %0,53 gehiago. Foru Aldundiak udalendako %0,5 diru gehiago ipini du, eta azkenean, udalak finantzatzeko funtsa %7,1 hazi da.

Horregatik, aurten udalek itzuli beharko duten kopurua iaz baino txikiagoa izango da. 2011ko likidazioa 355.951.450 eurokoa izan zen; 2012ko likidazioa, berriz, 381.223.760 eurokoa.

Gainera, 4,1 milioi udalendako

Udalek 13,4 milioi euro itzuli beharko dituzte iazko UFFFetik (funtsaren %3,4). Berez, 15,7 milioi zegokien itzultzea, 2012ko urrian aurreikusitakoa baino 7 milioi gutxiago, baina azkenean Estatu laguntzak edo opor fiskalak berreskuratzeari, udalei 4,1 milioi euro dagozkien (hasieran esleitutakoa baino 2,3 milioi gehiago), behin betiko itzulketa 13,4 milioi eurotan gelditu da.

"Ez da karga handia izango"

Helena Franco Ogasun eta Finantza diputatuak, Itziar Miner Zerga eta Finantza Politikako zuzendariak eta Xabier Olanu Ogasuneko zuzendariak 2012ko UFFFari eta itzulpenari buruzko xehetasunak eskaini zizkieten joan den astelehen goizean Gipuzkoako udaletako ordezkariei, Donostian.

Zerga eta Finantza Politikako zuzendariak hedabideei egindako adierazpenetan nabarmendu zuen itzulketa ez dela karga handia izango udalendako, desbideratzea %3,4koa izan baita. Alkateek itzulketa 2013an zehar egitea proposatu dute, iaz bezala, lau zati berdinetan. Diru gehiago itzultzea espero zutelako ekarri dute proposamen hori. Era guztietara Ogasunarentzat arrazoizko planteamendua da, batez ere Udalek 2009tik datozen gerorapenak ordaindu behar dituztela kontuan hartu behar baita.

Garapenerako 3 milioi euro banatuko dira laguntzatan

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak 3.094.479 euro banatuko ditu aurten lankidetzaren garapenerako proiektuetarako. Deialdia joan den martitzenean argitaratu zen, eta 30 egun naturaleko epea dago eskaera egiteko. Gainera, aurten lehenengo aldiz, eskaera bakarrik Internetez egin ahal izango da.

Dirulaguntza deialdi horren bidez, "Gizarte Politikako Departamentuak Gobernu Kanpoko Erakundeekin zein agente sozialen esku jarzen du euren ekimenak aurrera ateratzeko beharrezkoa den finantzazioa", esan zuen Foru Aldundiko Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren zuzendariak, Arantzazu Santosek.

Ordezkariek horrek esan zuenez, aurkeztutako proiektuak laguntzatik baino harago joan behar dira, eta pobrezia eragiten duten "egiturak eraldatzea" izan behar da euren helburu nagusia. Horretarako "konpromisoa hartuta duten subjektu politikoekin batera joatea estrategikotzat" jo du Santosek, "eraldaketa sozialaren alde egin eta kapitalismoaren aurrean alternatibak" proposatuz.

Dirulaguntzak honela banatuko dira: 2.194.479 euro hegoaldeko nazio eta herri pobretuetan garapenerako proiektuentzat; 590.000, gizarte-eraldaketako eta garapenerako hezkuntzako proiektuentzat; 160.000, ekimen edo ekintza puntualentzat; eta 150.000, laguntza eta ekintza humanitarioentzat.

Berdintasunerako, gehiago

Bestalde, emakumeen elkarte eta mugimendu feministak indartzeko eta udaletan berdintasun politikak laguntzeko 400.000 euro erabiliko ditu Foru Aldundiak. Azken bi urteotan, 100.000 eurotan handitu da deialdi horren aurrekontua. Berdintasun Zuzendaritzaren aurrekontuaren % 38 da aurtengo kopurua.

Aitor Arantzabal | Debagoieneko eta Debabarreneko administrazio publikoko LABeko ordezkarria

"Zerbitzu publikoa kendu nahi du PPK, eta hori da eraso handiena"

- Sektore publikoko langileak murrizketen aurka mobilizatzen dabilta
- Erasoak 2008an hasi zirela eta Rajoyrekin indartu direla dio LABek

L.K. | ARRASATE

Debagoieneko eta Debabarreneko udaletako eta mankomunitateetako langileen LABeko ordezkarria da Aitor Arantzabal.

Sektore publikoko langileak izan zirenen murrizketak jasaten lehenak.

Zoritxarrez, asko daroagu horiek salatzen; 2008tik, krisiarekin batera, etengabeko murrizketei aurre egin diegu. Nabarmenenak Rajoyrekin etorri dira, egin dituen bi dekretu oso bortitzekin; baina Zapateroren gobernuan ere izugarriko erasoak izan genituen. 2010eko uztailean, %5 jaitsi ziguten soldata, eta handik dator soldaten gaineko atzerapauso nabarmena. Gure eros-ahalmena %20 galdu da 2010etik hona.

Negoiazio kolektiboa praktikan ezabatu eginduzutela esaten duzue. Zergatik?

Bai. Madrildik datozen erasoek mahai gainean genituen hitzarmenak hankaz gora ipini ditu; babes gabe utzi gaitu. Horregatik aldarrikatzen dugu negoziazio



Aitor Arantzabal. | LEIRE KORTABARRIA

"Europa iparraldean zerbitzu publiko ona dute, zergatzen asko ipintzen dutelako"

kolektiboa tresna gisa, lan hitzarmenak lortzeko; eta hitzarmenetan adosten dena blindatzea.

Zeintzuk dira murrizketa larrienak? Kalte handiena herri bezala egiten digu Madrilekiko mendekotasun horrek. Erasoak guri bi aldiz era-

giten digu, eta beste herritar guztiei ere bai, zerbitzu sozialak, publikoak, hankaz gora jartzen dizkigulako. PPren gobernuak erabakita dauka zerbitzu publikoa desmantelatzea, eta eraso handiena hori da.

Sektore publikoko langileek gainerako langileen nahikoa elkartasun duzuela esango zenuke?

PP eremu ideologikotik ere izugarri jantzen saiatu da bere erabakia, eta sekulako ofentsiba dago langile publikoen aurka. Guk urratsak egin behar ditugu. Gure lanari prestigioa eman behar diogu, eta herritarrari erakutsi behar diogu bere zerbitzua gure lanari esker lortzen duela.

LABen argi duzue soluzioa: bertako erakundeek izatea erabakia. Horra ailegatzeko ze proposatzen duzue?

Independentzia lortzea, gure sistema propioa eraikitzea. Sinisten dugu herri baten zutoin inportantea dela sistema publikoa. Ahoa betetzen zaigu Europa iparraldeko herrialdeekin, baina ez gara konturatzen hain sistema aurrerakoa badute, denok zerga bidez izugarri aportatzen dutelako dela. Hemen kritikatu egiten ditugu zerbitzu publikoak, eta, gainera, gizarte iruzurgile baten bizi gara. Bada, zergei begira, oso ibilbide ezkeriarra da honakoa: zerbitzua jasotzeko, zergak ordaindu behar ditugu. Zerbitzuak hartzerakoan Europako iparraldera begiratzen dugun moduan, ordaintzerakoan ere begiratu egin behar dugu hara.

Okindegiek badute lan-hitzarmena, zortzi urte eta gero

Adegik, batetik, eta CCOO eta UGT sindikatuek, bestetik, Gipuzkoako Okindegien Lan hitzarmena sinatu dute. 2012 eta 2013ko soldata izoztea eta 2014 eta 2015an KPIaren erdia igotzea dakar horrek. Zortzi urte ziren sektore horren azken hitzarmenetik. CCOO eta UGTk dute gehiengoa, eta ELAk eta LABek ez dute sinatu.

Ana Goitia | 'Personal shopper' eta estilismo aholkularia

"Neska handia izateak aukera eman dit moda ikusi eta bizitzeko ikuspegi ezberdina izateko"

- Kazetari lanetan jardun ondoren, egun, aspaldiko moda zaletasuna ogibide bilakatu du
- Sarean moda kontuen gainean idazten du, besteak beste, 'Rincon de Anatxu' blogean

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Arrasatearra da jaiotzez, baina Lekeitio eta Arrasate bitartean bizi izan da txikitatik. Egun, Lekeitio du bizitoki. Kazetaria da eta horretan jardun du orain arte; azkenaldian, baina, pasiotzat duen moda zaletasun izatetik lanbide bilakatu du.

Eskarmentua duzu kazetaritzan, egun langabezia zauden arren.

Bai, zoritxarrez lan bila nabil. Ikasketetako praktikak egin nituen ETBn eta albistegietan gustura jardun nuen gero. Eta Hamaika Tebistan modari buruzko saio bat egin nuen. Irratian ere ibilitakoa naiz, Durango Irratian, esaterako. Prentsa arloa ere probatua dut, besteak beste, Lekeitio *Hitza*-n.

Benetako pasioa, baina: moda.

Bai, betidanik barruan izan dut amarengandik jasotako moda zaletasuna eta urteak aurrera, handitzen joan da. Txikitatik erakutsi dut janzteko orduan, izaera oso propioa.

Zaletasuna ogibide bilakatu duzu: personal shopper moduan jarduten duzu lagun batekin.

Lanik gabe geratu nintzenez, eta aurretik dudaren arrakastak bultzatuta, arlo honetan sakonago murgiltzera animatu ninduen. Madrilgo Campus-Modan, *personal shopper* eta estilista ikasketak egin nituen orduan, *on line* bidez, eta lagun batek eta biok *La belle vie* estilismo aholkularitza sortu genuen 2011n.

Hasieran zaletasun moduan abiatutakoa, gutxika bagoaz eskaintza gero eta gehiago jasotzen. Estilismo asistentzia lanak egiten ditugu, bereziki, eta baita ezkontza festak antolatu ere. Sarritan esaten dut armairua osatzen diru asko botatzen dugula, jakin barik zer behar dugun. Hori da *personal shopper* baten lana; hau da, bakoitzaren gorputza eta atalen ezaugarriak aztertuta, benetan zer behar dugun erakustea.

Nola egiten duzue lan hori?

Bezeroaren beharretara moldatzen gara. Bulego ibiltari bat dugula esan genezake: batzuetan bezeroaren etxera joaten gara edo hotel baten edo lehenengo hitzordu horietarako dugun bulegoan elkartzeko gara hasteko. Bezeroaren eskaera aztertuta antolatzen ditugu hurrengo urratsak. Estilismo azterketa oso baten eskariaren kasuan, gorputzaren ezaugarriak aztertu ondoren, bezeroaren armairura jotzen dugu gero. Han aurkitutakoaren arabera, bizitza osorako balio dion txosten bat egiten diogu.



Ana Goitiak Personal Shopper moduan egiten du lan. | ANA GOITIA

Personal shopper-a, beraz, gastua baino gehiago inbertsioa da?

Duda barik; behin txosten hori eginda, normalean, bizitza osorako balio du; beraz, ondo datorrigun eta erabiliko dugun arropa erosteko oinarri moduan erabiliko dute gero. Izaten dira,

baina, urtaro edo denboraldi hasieretan guregana jotzen dutenak, sasoi horretarako erosketak egiten laguntzeko. Era berean badaude arropa erosketak egiteko denborarik ez dutenak; aurrez adostutako erosketak egin eta etxera eramaten dizkiogu hari.

"Armairua osatzen diru asko botatzen dugu, zer behar dugun jakiteke"

"Ohiko neurrietan sartzen ez garenok ez dugu modarako aukera berak"

"Txikitatik erakutsi dut janzteko orduan izakera oso propioa izan dudala"

"Pertsona bakoitzarendako dago ondo datorkion estila"

Ze profiletako bezeroak dituzue?

Denetik, pertsona bakoitzak duen behar eta ahalmenetara moldatzen gara eta. Gureak, gehienbat, ekonomikoki erdi mailakoak dira, modu baten esatearren, arropa kontuekin burukominak izaten dituztenak. Burukomin horiek kentzeko gaude gu. Lan horretan jarduten dugunok gero eta gehiago garen arren, Ameriketara, adibidez, aspaldiko ogibidea da.

Gaur egun bogan dago, bestalde, estilismo azterketa horiek oparitzea. Askotariko bonuak ditugu. Kontrakoa dirudien arren, horrelako txosten batek dirua aurrezten lagun dezake. Ez dakigu egoki erosten. Horretan ere burua erabili behar da!

Ezkontza prestaketak ere egiten dituzue. Zelakoak?

Bereziki dira, originalak, nahiz eta ohiko formatukoak ere prestatzen ditugun. Ospakizun hori modu berezian bizi gura dutezentzako; hau da, estereotipetatik irten gura duen jendearentzako dira gureak. Horrez gainera, beste era bateko festak ere antolatzen ditugu; gertu ditugun jaunartzeak, esateko.

Harritu egiten gaitu krisian horrelako eskaerak jasotzeko.

Krisia igartzen da, noski, baina jendeak *bizi-poza* behar duela ikusten dugu eta horregatik prest dago, apur bat gehiago ordaindu behar badu ere, ospakizun pertsonalizatu baten alde egiteko.

Zuk, baina, moda ikusteko, ulertzeko eta ulerrarazteko ikuspegi ezberdina duzu.

Beti izan naiz neska handia eta ahalegin berezia egin behar izan dut gustuko arropak aurkitzeko. Dotore joateko eskubide bera dugun arren, ohiko neurrietan sartzen ez garenok ez ditugu aukerak berak. Ausartuko nintzateke esaten potolo gaudenok moda kontuetan sartzea ez dagoela oraindik ondo ikusita.

Horrela sortu zenuen 2009an *El Rincon de Anatxu* bloga.

Bai, horrela hasi zen guztia. Hasiera baten ez nuen kanpora begirako helburuekin sortu. Zaletasuna kanporatzeko sortu nuen bloga. Gero eta bisita gehiago izaten hasi nintzen eta asko ziren aholku eske etortzen zitzaizkidanak. Garbi hitz egiten nien eta zera erakutsi nien: potolo edo argal egon eta diru askorik barik modu politean jantzi ahal zarela. Nire argazkirik sekula jarriko ez nuela uste nuen arren, azkenean, jendeak eskatuta animatu nintzen, konturatu nintzelako hori zela gustukoa.

Ze garrantzi ematen diezu marken kalitatearen erakusle?

Bereziki aholkatuko nuke norberari ondo zerk ematen dion aztertze eta besteek zer esango dutenari garrantzirik ez emateko. Marka bat modan dagoelako, marka horretako prakak erosi eta gaizki geratuz gero, sarritan egiten dugun arren, nire ustez, ez du zentzurik.

Konplexuak barra-barra ditugu. Aholku asko eman dituzu. Eman guri ere.

Albo batera utzi behar ditugu konplexuak. Esatea egitea baino errazagoa dela dakidan arren, gure gorputzarekin pozik egiteko saiakera egin behar dugu. Gustatzen ez zaizkigun gure gorputzeko atalak ezkututzen saiatu behar dugu; horiei horrenbeste garrantzia eman beharrean, gustatzen zaizkigunak indartzen saiatu behar dugu.

Eta ez badugu ikusten gustatzen zaigun ezer?

Beti dago zerbait, belarria bada ere. Atal guztiak *esplota* daitezke, duda barik. Kontuan izan pertsona bakoitzarendako dagoela ondo joango zaion estilo propioa.

Moda, Anaren begietatik

Moda ez da jantziak eta zapatak bakarrik. Moda bizi garen unean erakusle da; gertatzen diren modan zerikusia dute, ez da kasualitatea, krisi garaian, kolore beltza edota linea zuzenak nagusitzea.

Sarritan, zerbait hotz eta fribolo moduan ikusten da, baina, nire ustez, ez da horrela. Azken finean, modu batera edo bestera, baina denok dugu zerikusia modarekin. Denok ditugu gure faboritoak, zer jantzi erabakitzeko orduan, bakoitzak du, beraz, bere moda propioa. Eta horixe da garrantzitsuena, norbera gustura egotea.

Egunero jasotzen ditut blogeko jarraitzaileen maila asko, eta behar duten mezu positiboa emanez erantzuten diet. Pozten naiz nire barrenak askatzeko sortutako sareko txokoak jendeari laguntzeko balio duelako.

ZABALIK

ANDONI URZELAI
http://goiena.net/iritzia/



Peter-en printzipioa

Honela dio Peter-en inkompetenziaren printzipioak: hierarkikoki antolatutako erakunde batean langileak gorantz egiten du bere inkompetentzia maila lortu arte. Bestela esanda: langileak lanpostuen eskalafoian etengabe gora egiteko joera du, eta, behin maila altuenera heltzen denean, inkompetente huts bihurtzen da.

Laurence J. Peter irakasleak eraiki zuen printzipio hori. Oinarri nagusi horretatik bi ideia ondorioztatu zituen: bata, denborarekin, lanpostu gehienak gaitasunik ez duten pertsonen esku erortzen direla; bestea, inkompetente horiek langile mordoa behar dutela inguruan beraiei zegozkien lanak taxuz egin ditzaten.

Enpresa pribatuan gertatzen denean... alla cuidaos! Enpresariak ikusiko du zein kudeatzailearen eskuetan uzten dituen bere sosa.

Baina diru publikoaren kudeaketaz ari garenean... kuida! Botaiezue begiratu bat zuen inguruko erakunde eta enpresei: apustu egingo nuke Peterren printzipioa ia ehuneko ehunetan betetzen dela. Hala da, ganorabako eta alferrek gidatzen dituzte erakunde eta enpresa asko eta asko. Enpresa pribatuen kasuan, esandakoa, akziodunei dagokie beraien interesen zaintza. Ondare publikoari dagokionez, 4 urtetik behineko hauteskondeez haratago bestelako kontrol-moduak ezarri beharko genituzke "Gauza-publikoa" kudeatzen dutenak kontrolatzeko. Urte urteko plebiszitu edo akziodunen batzar antzeko bat, beharbada. Gizartearen norabidea eta guztion diruak (zenbaitzuentzat, bistan da, inorenak ez) gestionatzen dituztenak gertutik zaintzeko aukera eduki beharko genuke, sikiera. Izan ere, zenbaitzuetan zera uste dugu: tontorrean dauden buruzagiak gure aldean azkar, inteligente eta trebeak direla. Baina, maiz, Peterrek erakutsi bezala, ganorabako hutsak baino ez dira. Eta honek, noski, erakunde guztietarako balio du: hasi udal txikienetik, eta EITB edo azpiegiturretatik pasata, Jaurlearitza.

"Ganorabako eta alferrek gidatzen dituzte erakunde eta enpresa asko"

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

Hurrengo datorrenarendako

Eguenean, 20:00etan, Benedikto XVI.ak uko egingo dio Aita Santu karguari. Orduan hasiko da goian, behean, barruan, kanpoan eta alde guztietan omen dagoenaren hurrengo ordezkari ofiziala aukeratzeko lasterketa. Elizaren kide sentitzen ez naizenez, ez lidake axola beharko zein den irabazlea. Baina ez da guztiz horrela. Izan ere, aurrekoak bezala, fededunen eta ez fededunen artean eragiten saiatuko da Aita Santu berria; zuzena, egokia eta morala zer den erabaki eta ezartzen. Horixe eskatuko nioke Vatikanoko agintari berriari: muga dadila berea eta bere ingurukoetara. Eta inori lezioak eman aurretik, garbi ditzala etxeko trapu, edo sotana, zikinak.

KALE INKESTA

Aurten ez da Mundumirarik egingo. Zer iruditzen zaizu?



MARIBI OROBENGOA
ARRASATE

"Pena izugarria hartu dut. Asko gustatzen zitzaidan eta ia azoka denetara joan gara. Aurten ez, baina ea ba hurrengo urtean dagoen".



PAUL ISASA
ARRASATE

"Ez nekien, ez dut ezer entzun. Gogoan dut urte baten Aretxabaletan egin zutela. Ni, baina, ez nintzen joan, ez dut azoka hori ezagutzen".



ANA ISABEL DE LA CONCEPCION
ARRASATE

"Hori ere moztu dute krisiagatik? Ez zait ondo iruditzen hori ere kentzea. Uste dut agintariak diru gorde beharko luketela horrelako ekintzetarako".



RAMON APERRIBAI
ARRASATE

"Arrasatekoan eta Aretxabaletakoan egon nintzen. Guk hemen duguna aberasteko balio izaten dute horrelako azokek; pena da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Michael "Air"
Jordan

Asier Sarasua Aranberri
http://eibar.org/blogak/sarasua/

50 urte bete dituela sekula izan den jokalaririk onenak.

Ez naiz sekula mitomanoa izan. Ez dut jarraitu, ez kirolaririk, ez musika-talderik, ez poeta ere, pentsa! Baina beharbada bada salbuespen bat: Michael Jordan. Nire gelako ate ostean neukan, saskia birrintzen, poster handi batean.

Jordanek aste honetan bete ditu 50 urte, eta bere jokalaririk onenak errepikatu dizkigute han eta hemen. Telebistan eta Youtuben berriro entzun dugu *Unbelievable, o my god, he did it again!* Horrelakoa zen Jordan. Ez behin eta ez birritan, egunero txunditzen gintuena.

80ko hamarkadan gazte ginenok (eta saskibaloizale) zorte izugarria izan genuen: NBAk bizi izan duen garairik onentsuena bizi ahal izan genuen. Ordu txikietan, gaupasa eginda; Lakers eta Bulls, Celtics eta Pistons ikusten. Zenbat aldiz jarriko nuen alarma goizeko 3etan edo 4etan ez-dakit-zer partiduko ikusteko.

Ez dut esango inoiz izan den belaunaldirik onena ezagutu genuenik (ez da urrun ibiliko), baina bai glamuroso eta magikoena, behintzat. Larry Bird, Hakeem Olajuwon, Julius Erving, Kareem Abdul-Jabbar, Isiah Thomas, Magic Johnson, Karl Malone, Pat Ewing, Moe Malone, David Robinson, Charles Barkley...Belaunaldi horrek Bartzelonako joko olinpikoetan jo zuen gailurra, *Dream Team* zoragarriarekin.

Eta izar konstelazio handi horren gainetik, izen bat eta bakarra: Michael *Air* Jordan.

[...] Arina eta dotorea, plastizitate hutsa; lehiakorra eta irabazlea, baina gehiegikeriarik gabe (ez gaur egungo gazte harroputsen estilora); bizkorra, atletikoa, teknikoa; jaurtitzaila paregabea eta ezinezko sarreraren artista. Handiena.

Magic Johnsonen hitzak dira: "Jordanek egiten dituen gauzak guk ezin ditugu egin; are gehiago, lo gaudela ametsetan ere ezin ditugu irudikatu".

Beste planeta batekoa izan da. 50 urte bete ditu. Eta garai batean, gaueko ordu txikietan etxeko sofan erdi-lo geundela, Bullsekin jokatzeko ikusi genuenok, jarraitzen dugu esaten: *O my godness! Unbelievable, he did it again!*

Harrapakina

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Irun eta Donostia faxisten atzaparretan erori eta gero, ehunetik gora preso eraman zituzten Ondarretako kartzelatik Berara, hango harrobian fusilatu eta lurperatzeko. Carmen Barojak bere memoria-liburu guztiz gomendagarrian, Gerra Zibilari buruz ari delarik, Berako hainbaten ahotik entzundako kalaka batzuk dakartzela. Txutxu-mutxu lazgarriena, emakume batena, naturaltasun osoz komentatzerakoan bere senarrak -edo semeak?- zer nolako harrapakina lortu duen fusilamenduetako batean parte hartu ondoren: "Bai, gaur goizean goiz gurea bota eder batzuekin eta jertse batekin etxeratu da". Orain hilabete batzuk Arantzadikoek bi hobi komun aztertu zituzten Berako kanposantuan. Zazpi hildakoren arrasto segurua atera dute adituek. Kontuan hartzen bada fusilatuak ehunetik oso gora izan zirela, hego-haize gauetako airearen zoroak barreiatzen segituko du fusilamenduek Berako harrobiko horma tzarren kontra ateratako tiro-hotsak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduradunak
Ubane Madera eta Eneko Azkarate
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlearitza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GORBEIAN 3 ASTE

1.500€!

IRABAZTEKO EROSKETA TXARTELETAN

500 EURO ASTERO
OTSAILAREN 22TIK
MARTXOAREN 14RA BITARTEAN

Martxoaren 1ean
 2 zozketa
250€-ko
 sari bakoitza

Martxoaren 8an
 2 zozketa
250€-ko
 sari bakoitza

Martxoaren 15ean
 2 zozketa
250€-ko
 sari bakoitza



Parte hartzeko, egizu gutxienez 10€-ko erosketa bat eta sartu webgune honetan:

centrocomercialgorbeia.com

Sustapen honek 2013ko otsailaren 22tik martxoaren 14ra balio du. Oinarri osoak ikusteko sartu webgunean.



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Pako Legorburu | Demokrasiako lehen alkatea Antzuolan (1979-1983)

- ▶ Euzko Alderdi Jeltzaleko alkatea izan zen
- ▶ Legealdi bakarra egin zuen politikan
- ▶ Herriko estolderia eta asfaltatze lanak egin zituzten

"Ilusio eta lan egiteko gogo handiz sartu ginen Udalean, herritarrek aldaketarako desioa zuten-eta"

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Pako Legorburu antzuolarra dugu demokrazia garaiko lehen alkatea Antzuolan. 80 urte ditu egun eta politikara 46 urterekin heldu zen. 1979tik 1983ra egon zen Udala zuzentzen Legorburu. Anekdotak eta pasarte kuriosoak kontatu nahi izan dizkigu.

Nola gogoratzen duzu garai hura?

Aldaketa handia izan zen. Herriak espero eta desio zuena. Gu ilusio handiz heldu ginen Udalera, eta lan egiteko gogoz.

Nolakoa zen zinegotzien arteko harremana?

Guztira, 11 zinegotzi ginen: sei EAJkoak, hiru ezker abertzalekoak, zinegotzi bat alderdi sozialistakoa eta beste bat LKIkkoa (Liga Komunista Iraultzailea). Ezberdinak ginen, baina oso ondo moldatzen ginen. Eztabaidak izaten genituen, adibidez, aurrekontuak egiterakoan, baina gero, denok kafea hartzera joaten ginen elkarrekin. Denekin tratu ona izan nahi nuen, ez zegoen orain dagoen partidismo hori. Gainera, ikusten banuen EAJkoa ez zen beste norbait batzorde baterako aproposa, onartu egiten genuen. Ez geneukan arazorik.

Antzuolaren garapenerako lanean aritzera zen zuen lehentasuna.

Bai. Diputatu sozialista bati futbol zelaia egiteko dirua eta baita eskatu behar bagenion, nik zinegotzi sozialistarengana jotzen nuen, bidea egiten laguntzeko eskatuz. Berdin ezker abertzalearekin ere: Euskadiko Ezkerra alderdiko diputatu batengana jo aurretik, eurei eskatzen nien laguntza.

Bahituta ere egon zineten. Nola gogoratzen duzu une hura?

Aurreko legealdiak abian jarrita zeukan obra bukatu genuen: herriko estolderia lanak bukatu genituen. Orduan, norbaitek esan zuen ez zuela ordainduko, eta, hori komentatu genuenean, jendea ez zitzaion batera gustatu.


"Eztabaidak izan arren, zinegotzi guztiekin harreman oso ona geneukan"

"Telefono linea berri bat lortzeak poztasun handia ekarri zion herriari"

Eta udaletxeko bulegoan geundela –orduan, egungo Oerlikon enpresa dagoen tokian geneukan bulegoa–, batzuek bulegoko ateari itxi eta barruan geunden guztio-kin itxialdia egin zuten protesta gisara. Orduan zinegotzi zen Eliseo Gartzia esan zuen: "Así que esto es un secuestro". Hitz horiekin larritu ere egin ziren, nonbait, eta joan egin ziren. Hurrengo egunean, Galziako egunkari batean ere irten ginen Antzuolako Udala bahituta egon zela zioen titularrarekin.

Telefono gutxi zeuden herrian orduan.

70 telefono zeuden herrian. Neuk ez neukan, eta tailer guztietan ere ez zegoen. Carcia Cordero Gizpukoako Telefonikako zuzendariarengana jo nuen linea berri baten eske. Eta hark Espainiako ordezkariarengana bideratu ninduen: Tomas Allende Garcia Baxter, Nekazaritza ministroa zena. Baina gogoratu nuen nola, Goizperreko langile nintzela, Zaragozako ferian topo egin nuela ministroarekin. Goizper saritu zuten eta saria hark eman zigun. Nik gutuna idatzi nion telefonoarekin genuen arazoa azaltzeko, eta Zaragozan atera genuen argazkia ere bidali nion. Erantzuna etorri zen eta Zuma-



Pako Legorburu Antzuolako udaletxe aurrean. | MAIDER ARREGI

ragako linea probisional bat adjudikatu ziguten; beste 100 telefono baino gehiago! Oso pozik hartu genuen berria.

Egindako lanen artean, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Antzuolak zuen arazo handiena uholde arazoa zen. Pentsa, Herri-

ko Plazan hiru metrorainoko uholdeak gertatu ziren. Horregatik, Errotaberriko presa bota egin genuen eta Herriko Plaza pasa arte erreka dragatu. Eli Galdos Oñatiko alkatea Jaurritan ere bazebilen lanean, eta haren laguntzarekin lortu genuen obra hura aurrera eramatea.

Bestelako lanen artean, Kalegoienetik Beheko Auzoraino kale guztia asfaltatu genuen. Esan bezala, herriko estolderia lanak ere bukatu genituen, eta udaletxea berri. Eraberritze lanok irauten zuten bitartean, udaletxetik kanpo egin genuen lan; oraingo Oerlikon enpresa dagoen eraikinean genituen bulegoak. Garai hartan egin genuen Eztala futbol zelaia; ea aurten mailaz igotzen diren! Azpimarratu behar da ambulato-ria egin genuela eta herriko bi sarrerak eta irteerak egokitu genituela.

"Uholde arriskuagatik Errotaberriko presa; bota genuen"

"Herrira sartzeko eta irteteko egokitu genituen bi sarrerak"



aisia

HOTELES
DEBA

Markiegi 6
943 60 80 52

deba@aisiahoteles.com

*Zure ezkontza Aisia Hoteletan,
arrakasta ziurtatua*

943 60 80 52

www.aisiahoteles.com



HERRIAK

ARRASATE

Giro onean, ortuak dotore

- ▶ Hiru urte eta erdi inguru igaro dira ortu ekologikoen ekimena martxan jarri zenetik
- ▶ Eremuak 87 ortu ditu: zazpi Udalarenak dira eta gainerako 80ak, partikularrenak

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Laster beteko dira hiru urte eta erdi Garagartzako ortu ekologikoen eremua zabaldu zenetik. 2009ko azaroan, hain zuzen ere, Arrasateko Udalaren ekimenez jarri zen martxan.

Eremuak 87 ortu ditu, 50 metro karratukoak. Horietatik zazpi Udalak gordetzen ditu; besteak beste, formaziorako eta hezkuntzarako erabiltzen ditu. Gainerako laurogeiak banatuta daude eta hasieratik daude okupatuta. Udaletik adierazi dutenez, ekimena arrakastatsua izan da. Are gehiago, Gipuzkoako eta Bizkaiako hainbat herririk interesa erakutsi dute proiektuaren inguruan. Instalazioak ikustera ere etorri dira, eta askori gustatu zaie eredu.

Elkartearen sorrera

Ortuen erabilera arautzeko, Udalak arautegi bat onartu zuen. Horren arabera, erabiltzaileek elkarte bat osatu behar zuten ortuetako eremua kudeatzeko. Horrela, erabiltzaile guztiek Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkarte osatu zuten.

Ondoren, elkarteak eta Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinetan 2011ko uztailaren 1etik aurrera ortuetako kudeaketa elkarteak berak antolatuko zuela ezartzen baitzen. Harrezkero, ortuetako kudeaketa aruntaren ardura elkartearena da eta Udala, berriz, ortuetako esleipen eta ukoen gestioaz arduratzen da. Hau da, eremuaren kontrola, fiskalizazioa, eta abar Udalaren eginbeharrak dira.

Prezioei eta kuotei dagokienez, GOEE elkarteak sortu zenetik, haiek kontrolatzen dituzte gastuak eta kuotak. Urtero Udalarik memoria bat aurkezten zaio hainbat alor adierazita; besteak beste, deskargu ekonomikoa, hurrengo urteko kuoten proposamena, batzordearen aldaketak eta aktak.

Ortu guztiak beteta

Udalaren datuen arabera, erabiltzaileen batez besteko adina 40 eta 45 urte artekoa da. Gizonezko eta emakumezko erabiltzaileen artean, bestalde, bada alderik: 53 dira gizonezkoak eta 27, aldiz, emakumezkoak. Ortuko instalazioetara sartzeko txartel magnetiko bat erabiltzen da, eta partzela bakoitzeko bi pertsonak



Hainbat herritar ortuan lanean. | MAIALEN GONZALEZ

DATUA

80

PARTZELA

Ekimena martxan jarri zenetik, erabiltzaile partikularrentzat bideratu diren partzela guztiek jabea dute lehen egunetik.

soilik erabil dezakete: partzelaren titularrak eta ordezeko batek. "Batzuetan, ordezekoak titularrak baino gehiago erabiltzen du ortua. Beraz, zaila da erabiltzailearen profil zehatza zein den esatea", dio Rafa Ugartek, Ingurumen teknikariak. Adierazi duenez, erretiroa hartutako herritar asko goiz zein arratsalde ibiltzen dira ortuetan lanean. Norbaitek ortuari uko egingo balio, ortua beste pertsona bati esleituko litzaioke.

"Horretarako, itxaron-zerrendari eusten diogu. Momentu honetan, 15 pertsona daude zerrendan. Bertan sartzeko, BAZen eskaera egin behar da", dio Ugartek.

Balorazio positiboa

Aurtengo azaroan lau urte beteko dira ortu ekologikoak zabaldu zirenetik, eta, orokorrean, balorazioa positiboa da. Are gehiago, beste herri batzuetatik ekimenaren inguruko interesa erakutsi

dute. "Elkartearen eredu gustatu izan zaie. Instalazioak ikustera ere etorri dira. Ortuetako proiektua zabalitzen ari dela uste dut", dio Ugartek.

Etorkizunari begira, proiektuak aurrera jarraituko du. "Bilakaera nolakoa den ikusi beharko da, momentuan momentuko beharrak eta nahiak izango baitira. Orain arte, bederen, erabilera ona izan da eta erabiltzaileak gustura daude".



ANTON ZUMALDE
ERABILTZAILEA

"Giro ona daukagu, denborari probetxua ateratzen zaio. Norberaren lanaren fruituak jasotzea polita izaten da, batez ere uda partean, uzta ederra jasotzen denean. Erabat gomentatuko nukeen ekimena da. Lana ematen du, baina, denbora izanez gero, aukera aparta da".



EDURNE BALTZATEGI
ERABILTZAILEA

"Gustatuz gero, nork bere produktuak ekoiztu ahal izateko lur zati bat edukitzea zorte handia da gaur egun. Gainera, ekologikoa izateko egiten den ahalegina estimatzekoa da. Instalazio aldetik ere primeran dago. Horrelako ekimen gehiago bultzatu beharko lirateke".



FABIAN MARTIN
ERABILTZAILEA

"Oso gustura gaude hemen, giroa aparta da. Egun osoa etxean sartuta egon barik, eguzkiak eta aire freskoak gozatu behar da. Denerako dago denbora. Lehen, lantegitik irten eta hemen neukan ortuan orduak ematen nituen. Eta, erretiroa hartuta, ohiturarekin jarraitzen dut".



MARIA ISABEL MERINO
ERABILTZAILEA

"Urtebete pasatxo daramagu ortuarekin eta oso pozik gaude. Ortu asko daude eta giro polita sortzen da. Elkarrilaguntzen diogu, behar denean. Gazteak ere ibiltzen dira hemen. Pozgarria da gazterik lurra landatzearen eta ortua zaintzearen inguruko interesa erakustea".



'Jimmy Bananas' bere marrazki bildumarekin. | UBANE MADERA



Hardflip eta HHD taldeek argitaratutako diskoa. | HARDFLIP



Hori Hala Dek taldea egubakoitzeko kontzertuan. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Hardcore kultura eta doinuak Gaztetxean Tapoi fest jaialdian

'Jimmy Bananas' ilustratzaileak 'Al mal tiempo buena arcada' marrazki liburua aurkeztu zuen

ANDER MONEDERO | BERGARA

Astebukaeran Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak* irratsaiokoek hardcore kulturaren jaia egin zuten Bergarako Gaztetxean. Horretarako, Portugaleteko *Jimmy Bana-*

nas ilustratzailea gonbidatu zuten, 2012. urte bukaeran kaleratutako *Al mal tiempo buena arcada* izeneko marrazki bilduma aurkezteko. Eta nola ez, hardcore jaialdi baten, musika izan zen prota-

gonista nagusia: guztira, egubakoitz eta zapatu bitartean, bederlatzi talde aritu ziren Gaztetxeko oholtza gainean.

Egubakoitzean, Managaitz, Hori Hala Dek, Hardflip eta Kao-

sarena taldeek emanaldia eskaini zuten.

Hardflip eta HHDren split-a

Egubakoitzeko kontzertuan sartu ziren lehenengo 86 pertsonen

Bergarako Hardflip eta HHD taldeen diskoa eskuratu zuten —talde bakoitzaren hiru abestiz osatutako lana—.

Zapatu arratsaldean, Eskoriatzako Lukas Prest eta Layo Laser taldeek egin zuten emanaldia eta gauean, berriz, Hernia, Humilitate eta Perras Salvajes taldeen txanda izan zen.

Bergara, hardcore eszenan

Euskal Herrian, Hardcore mugimenduak, batez ere, Zarautzen eta Donostian du indar gehien, baina Bergaran ere indatsu dagoela argi geratu da.

OÑATI

Errepublika Dominikarraren independentzia eguna ospatu dute

ANDER MONEDERO. | OÑATI

Zapatuan, Oñatin eta inguruan bizi diren Dominikarrek beraien aberriaren independentziaren 169. urteurrena ospatu zuten Oñatiko plazan. Jaiari hasiera emateko, Oñatiko Oñatz dantza taldeko kideek aureskua egin zuten eta, ondoren, Dominikarrek Karibeko irlaren dantza tradizionala erakutsi zuten. Horren ostean, salsa, bachata

eta bestelako erritmoak dantzatu zituzten, umeentzako marrazki lehiaketa egin zuten eta herri osoari irekitako bazkaria ere egin zuten.

Dominikar kultura hurbildu

Ekitaldi honekin, "aberiaren independentzia" ospatzeaz gain, Sierra Maestra elkarteko kideek euren kultura herrian ezagutzarazteko helburua zuten.



Errepublika Dominikarreko dantza tradizionalen erakustaldia egin zuten. | ANDER MONEDERO



Oñatiko Dominikarrek euren herriko banderarekin. | ANDER MONEDERO



EtxeAundiko langile direnak eta izan direnak elkartu ziren atzo. | JOSETXO ARANTZABAL



Ardo dastaketako une bat. | T.M.

ONATI

Etxe-Aundik zilarrezko ezteiak ospatu ditu

Zapatuan ardo dastaketa jendetsua egin zuten eta atzo, langile direnak eta izan direnak bildu ziren

RAMON MURILLO | ETXE AUNDIKO JABEA

"25 urtera heltzea garaipen bat da"

Nola gogoratzen dituzu hasierak?

Hasiera guztiak zailak dira eta 25. urteurrenera heltzea guretzat garaipen bat da. Baina borrokatzen jarraitu behar dugu, uste dut bizitza inoiz baino gogorragoa dela orain. Ea beste 25 lortzen ditugun!

Hasieran jarri zenituzten helburuak bete dira?

Ireki genuenean perspektiba han-



diak genituen eta apurka betetzen gabiltza. 25 urte eta gero ez dira guztiz bete, baina gailurrera heltzen gabiltza.

25 urte hauetako zein unerekin geratzen zara?

Momentu onak eta txarrak izan ditugu. Onenen artean bakarra gogoratzea zaila da, baina nire inguruan dauden eta ederki portatu direnekin geratzen naiz.

TXOMIN MADINA | OÑATI

Gaur bertan beteko dira 25 urte Oñatiko Etxe-Aundi jatetxeak ateak zabaldu zituenetik, eta data horren bueltan ospakizun bereziak izan dituzte asteburuan. Zapatuan ardo dastaketa jendetsua egin zuten. Bertan, Remirez de Ganuza upategiko lau salda ezberdin ezagutu zituzten Eduardo Andres upategiko ordezkariaren azalpenak entzun bitartean. 50 pertsona inguru batu ziren dastaketarako, eta goraino bete zen horretarako prestatuko lekua.

Langileekin ere bai

Atzo, aldiz, jabeen gertukoak eta urte hauetan Etxe-Aundin lanean ibili izan diren hainbat pertsona elkartu ziren iluntzean egin zuten *cocktail* berezian. Bertan, Ramon Murillo eta Margarita Romariz jabeek eta euren senar eta emazteek lore sortak, zapiak eta txapelak jaso zituzten eta ohorezko aureskua ere egin zieten. Muri-llori gainera, aurten 65 urte betetzen dituzte, opari berezia egin zioten, erloju bat.

ONATI

Anje Duhalde Korrikaren alde, arrakastatsu

Barikuko derbiak ez zituen Duhalde-zaleak koki, eta gaztelekua dantza-leku bihurtu zen

UBANE MADERA | OÑATI

"100 bat lagun etorri zen kontzertua ikustera. Athletic eta Realaren arteko derbia kontuan hartuta, eta zegoen eguraldi desatsegina kontuan hartuta, pozik gaude emaitzarekin. Horrez gainera, pozik gaude baita ere, adineko jendea etorri zelako batez ere. Gure helburuetako bat beti izan da gaztelekuan adin-muga apurtzea, eta hori lortu egin zen egubakoitzean", azpimarratu du Jon Lopezek, Oñatiko gaztelekuko arduradunak.

Ikusleak dantzan

Kontzertuaren gainean, berriz, esan beharra dago arrakastatsua izan zela. Adibide moduan, ikusleak dantzan jartzea lortu zuen Iparraldeko musikariak: "Batzuk gora joan ziren, eserita egon ahal izateko. Eta pentsa, kontzertuaren bukaera aldera goiko denak dantzan zebiltzan", kontatu du Lopezek. Dantzan eta kantuan; ze kantu klasikoak ere oparitu zizkien Duhaldek bertaraturakoei. Esaterako, *Eperrak* eta *Amnistaren Lemarekin* bukatu zuen saioa.



Anje Duhalde Oñatiko gaztelekuko taula gainean. | IMANOL SORIANO

ONATI

Gaztelekua etorkizuna aztergai izan zuten, gazteen parte-hartze zuzenarekin

U.M. | OÑATI

Oñatiko gaztelekua izenetik hasi, bertako tabernaren kudeaketatik segi eta gaztelekua beraren funtzionamenduari buruz borobildu. Hori guztia mahai gainean jarri eta Oñatiko gazteen parte-hartze zuzenarekin erabakitzeke ahalegina egin zuten zapatu goizean Oñatiko Udaleko zein gaztelekuko ordezkariak.

Iritzia emateko aukera

Hala ere, deialdi publikoaren erantzun txiki samarra lortuta, erabaki handiak hurrengo baterako utzi zituzten Oñatiko gaztelekuan izan zirenek. Hori bai, Kuboaren erabilera, gaztelekua izena eta izana, tabernaren ardura... guztien gainean eztabaidatzeko eta iritzia emateko aukera izan zuten ekimean parte hartu zutenek.



Zapatuan gaztelekuan izan ziren gazte eta ordezkariak. | UBANE MADERA

ONATI

Madrildik gure txokoetara

Eguraldiari adi-adi begira, baina inguruan ikusten zutenarekin gusturago harrapatu genuen zapatuan turista talde ederra Oñatin. Madrildik etorrira, Euskadiko hiriburuez gainera, Debagoiena bisitatzeko geldialditxoak ere egin zuten. Agendan zuten Oñatiko gune monumentala ikustea, "eta baita Arantzazu ere, "baina ez dakigu eramango gaituzten. Bisita-gidariak esan digu akaso ez garela igoko, elurarrangatik. 50 lagun etorri gara Madrildik, eta Gasteizera, Loiolara...joateko asmoa dugu. Hemen ikusi duguna, baina, asko gustatu zaigu, momentuz".

UBANE MADERA

Daniel Jimenez | Peditra eta haurren obesitatean aditua

"Obesitatea duen haur batek psikologikoki ere asko sufritzen du"

- ▶ Azken hamarkadatan gora egin dute haurren obesitate kasuek
- ▶ Bizimodu sedentarioa eta elikadura ohitura txarrak dira arrazoi nagusiak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Debagoieneko ESIko Obesitate eta Pediatria-Endokrinologia Klinikako arduraduna da Daniel Jimenez peditra mexikarrak. Otsailaren 20an, haurren obesitateari buruzko hitzaldia eskaini zuen Kulturaten.

Haurren obesitate kasuetan, zeintzuk dira ikusten diren aurrekari nagusiak?

Asko direla esango nuke. Ariketa fisikorik ez egitea batetik, eta elikadura txarra, bestetik. Haurren obesitateari aurre egiteko zutabeak horietan oinarritzen dira. Neska-mutulen jateko ohiturak hobetu behar dira derrigor, eta bizimodu sedentarioa utzita, gehiago mugitu daitezten saiatu.

Gure artean arazo larria al da?

Bi kontzeptu daude, loditasuna eta obesitatea. Lodi dagoen haur bat obesitatea pairatzeko hautagai on bat izan daiteke. Alarma pizteko modukoa da, azken 10-20 urteetan bi kasuek nabarmen egin baitute gora mundu osoan, eta baita hemen ere. Pentsa, 1984ko ikerketa batek estatuan %6an kokatzen zituen haurren obesitate kasuak; 2000an %15ean, eta eginiko azken ikerketak, 2011koak, %26,1koa dela adierazten du. Eta gorantz jarraitzen du joerak.

Jendartearen bilakaerak zerikusia izango du, ezta?

Noski, bizitzeko modua aldatu dugu, eta hori nabari da. Lehen haurrak kalean ibiltzen ziren jolasean, eta egun telebistari edota bideo-jokoei denbora asko eskaintzen diete, gehiegi. Horrek



Daniel Jimenez peditra, Kulturate kanpoan. | Z.V.D.M.

"Lehen hurrek kalean jolasten zuten egun bideo-jokoetan"

neska-mutula ez mugitzea dakar. Eta mugitu ezean, jaten den guztia barruan geratzen da. Hala, jaten denaren eta kaloriak murriztearen arteko erlazioa apurtzen da; hau da, kirolrik egin ezean, jaten duen guztia geratzen zaio haurrari gorputzean.

"Klinikan, dieta mediterranearra aholkatzen diegu pazienteei"

Eta jaten dutena ere, maiz, ez da osasungarriena izaten.

Hala da. Guk, obesitatearen klinikan dieta mediterranearra aholkatzen dugu, izan ere, badi-rudi ahaztu egin garela jateko modu horretaz. Daukagun bizimodu azkarrak bultzatuta utzi

dugu alde batera ohitura hori, eta gehiago kontsumitzen dugu janari azkarra, zabor-jana. Horiek kaloria energetiko asko daukate, eta lehen baino gutxiago eramaten dugu elikadura orekatua.

Beraz, gomendioetariko bat horixe izango litzateke, lehengo ohiturak berreskuratzea?

Zalantza barik, gure aitona-amonon ohituretara itzuli beharko ginateke, lehengo elikadura usadioak zeintzuk ziren ikusi eta imitatzea. Txikitatik eraman behar baita elikadura orekatu bat osasuntsu egon gura bada.

Jendea arazoaren jakitun al da?

Uste dut maiz ez dugula arazoa ikusi gura, izan ere, sarritan aspektu psikologikoa ere sartzen da, eta ez diogu behar besteko garrantzia ematen. Hau da, obesitatea duen haur batek asko sufritzen du fisikoki ez dagoelako ondo, baina berarengandik espero dena, hau da, malgua izatea edota kirolaria izatea, bete ez eta baztertuta sentitzen delako. Umeak sufritu egiten du eta gurasoak ohartu beharko lirateke horretaz, esaterako, haurrak denbora gehiegi egiten duela gelan itxita, edo ikasketetan ondo ez badoa.

Arazoaren alderdi psikologikoa konpontzea zailena da, errazena, berriz, dieta bidez elikadura hobetzea. Gainera, hiru oinarri daude obesitate kasuak ekiditeko: familiar, peditrek eta ikastetxeek, dela alderdi psikologikoa bultzatuz zein bestelako motibazioak bilatuz. Bat berak ere ezin du hutsik egin.

Bigarren eskuko azokarako material-bilketa

Z.V.D.M. | ARRASATE

Zortzigarren aldiz egingo dute aurten euskal presoan aldeko bigarren eskuko azoka. Datoren martxoaren 23 eta 24an izango da hitzordua.

Eguena, azken eguna

Oraindik hilabete eskas geratu arren, dagoeneko antolatzailerak hasiak dira urteroko hitzordurako materiala bil-tzen.

Eguen honetan, otsailak 28, izango dute herritarrek azken aukera arropa, osagarri eta bestelakoak eramateko, antolaketa lanetan diharduen Alaitz Arantzabalek adierazi digunez.

"Egoera onean dauden gauzak eskertuko genituzke, eta gura duten guztiek Iluntz zein Irati tabernetan utzi dezakete materiala".

Ferixalekutik paseora eramaten duen igogailua itxita

Gaur hasi eta eguaztenera bitartean Ferixalekutik paseora eramaten duen igogailua itxita egongo da konponketa lan batzuk medio. Hain zuzen ere, egituretako junturek herdoila daukate eta irtenbidea emango diote horri. Martxoaren 4tik 6ra bitartean, berriz, paseotik Altamirarako igogailua itxiko dute, arrazoi berdinengatik.

Takarraran lasterketa prestatzeko saioak antolatu dituzte

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira egingo da beste behin Takarraran, martxoaren 9an eta lasterketaren bosgarren edizioa prestatzeko saioak antolatu ditu AUKEAK. Otsailaren 25, 27, 28an eta martxoaren 2, 4, 5 eta 7an izango dira, Musakolako kiroldegian, eta gura duten parte-hartzaile guztiei irekita dago deialdia.

Material berrerabiliak baliatuz txotxongiloak egiten ikasteko aukera

Ekinek material berrerabiliekin txotxongiloak egiteko ikastaroa antolatu du. Bihar hasiko da, eta martxoaren 26ra bitartean martitzenero elkartuko dira, 15:30etik 17:30era. Bea Arregik emango ditu eskolak, Bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte ize-na ematerako orduan, eta ez bazkideek aldiz, 15 euro.

Arrasatearrek konposta egiteko erronka hartu dute

Auzo-konposta egiteko 140 lagun animatu dira



Otsailaren 20an egin zuten bilera erdiguneko bizilagunekin. | Z.V.D.M.

Z.V.D.M. | ARRASATE

Herritarrek auzo-konposta egiteko animatu gura izan dute Arrasateko Udalak. Horretarako bilera ezberdinak egin ditu azken hilabeteotan Urribarriko, ospitale inguruko eta erdiguneko bizilagunekin, eta auzo-konpostaren nondik norakoak azaldu dizkiete interesa erakutsi duten herritar guztiei.

Aurreikuspena beteta

Nerea Lazpiur Garapen Iraunkorreko teknikariak deialdiak edukitako erantzunaren gaineko balorazio positiboa egin du: "Uste genuena baino hobeto joan da, herritar askok eman dute izena, eta oso pozik gaude".

Izan ere, auzo-konposta egiteko 140 eskaera jaso dituzte, eta autokonposta egiteko, berriz, 40; 180 guztira. "Baina Arrasaten

aurretik ere badabilta herritar batzuk konposta egiten, 2005ean eginiko deialdi baten ondorioz".

Berriki izena eman duten 180 lagunetatik 30 dira Uribe auzo inguruko bizilagunak, 25 ospitale ingurukoak eta 20 erdigunekoak. "Hasiara batean horiek ekingo diote auzo-konposta egiten. Gainerakoek itxaron beharko dute".

Hurrengo urratsa, ikastaroa

Udalak epe laburrerako asmoa, hiru zonaldeetako bizilagun horiei konpostaren inguruko ikastaroa eskaintzea izango da. "Ordubete iraungo du, eta bertan ikasiko dute zer bota daitekeen eta zer ez, esaterako". Oraindik ez dakite noiz izango den, "ordutegiak -eta begiratu behar dira", guztiek bat egin dezaten. "Aste Santuen aurretik izango dela uste dugu".

Los Separatistas musika taldeak itxiko du Kooltur Ostegunetako otsaileko egitaraua

- ▶ Otsailaren 28an eskainiko dute kontzertua, gaztetxean; ondoren, Bilbon ere joko dute
- ▶ Euskal Herriko hainbat musikari ezagun eta The Cubical-eko Dani Willson izango dira bertan

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Ostegun honetan izango da otsaileko egitarauko azken emanaldia. Hilaren 28an izango da. Musika doinu ezberdinez gozatzeko aukera izan da otsailean Gaztetxean: Gerrikako Tooth taldea, post-hardcore estiloko eskainita; Willis Drummond lapurtarrak; eta Safety Pins, 90eko hamarkadako punk-rock amorratua joaz.

Hilabetea indarrez hastearekin batera, modu berean itxiko dute

Kooltur Ostegunek, garage-rock, country eta psikodelia doinuak eskainita.

Los Separatistas, ostegunean

Los Separatistas taldearen kontzertuak itxiko du otsaileko Kooltur. Euskal Herriko zein kanpoko musikari ezagunek sortutako taldea da. Besteak beste, Atom Rhumba taldeko abeslaria, Rober; Joseba Iratzoki, Atom Rhumban koka daitekeena, baita beste talde askotan

ere; Iñigo Cabezafuego, Mermaid-en, Atom Rhumban eta beste hainbat taldetan dabilena; Felix Buff frantziarra, Willis Drummond taldeko bateria-jolea; eta Mikel Abrego, aspaldiko ezaguna, Bap, Negu Gorriak eta Anari taldeetan ibilitakoa.

Dani Willson ere, bertan

Aipatzekoa da Dan Willson musikaria. Liverpoolgoa da, eta The Cubical taldeko abeslaria. Azken

urteotan izen ona hartzen ari den taldea da The Cubical. Garage-rock nahiko berezia egiten dute. Besteak beste, Azkena Rock jaialdian jo dute, eta, bitxikeria moduan, Arrasateko Amaia antzokiko hall-ean ere eskaini dute euren musika.

Iaz maiatzean egindako biran, Atom Rhumbako Roberrek Willson konbentzitu zuen Bonberenea gaztetxeko estudioa gerturatzeko. Bertan, arestian aipatutako musikari guztiak elkartu ziren, eta, goiz

batean, hainbat abesti inprobisatu zituzten. Willsonek, gainera, letra ugari eskaini zituen. Bertan jotako guztia grabatu egin zuten. Orduetik, baina, ez dira berriro ere elkartu. Doinu eta estilo ezberdinen arteko nahasketa, ia esklusiboki Arrasateko Gaztetxean.

Datorren kontzertuari begira, bi bat eguneko entseguia egingo dute. Bi kontzertu bakarrik eskainiko dituzte: Arrasatekoa bata eta hurrengo egunean, Bilbon, bestea. Ondoren, nork bere proiektuetan murgilduta jarraituko du. Ez dute baztertzeko berritza, hilabete batzuk barru, esaterako; oraingoz, baina, bi kontzertu horiek aurreikusitakoak dira. Ostegun honetan, beraz, garage, country edota doinu psikodelikoak entzuteko aukera egongo da Arrasateko Gaztetxean.

Martxoan ere, indartsu

Datorren hilabetean, musika estilo ezberdinak uztartuko dira Kooltur Ostegunetan. Mugak gaindituz baina bertako musikarien aldeko apustua ahaztu barik, 6 urte, Moby Dick bakarlarria eta Esne Beltza taldea –Kooltur Ostiralean– izango dira Gaztetxean. Baita Waxi Kaliforniako (AEB) desertuko taldea ere. Besteak beste, Queens of the Stone Age taldearekin eta Desert Sessions (desertuko emanaldiak) deiturikoekin lotura duen taldea da. Stoner rockaren eta doinu psikodelikoen ildotik, ukitu berezia emango dio talde estatubatuarrek Kooltur Osteguneko martxoko egitarauari.



Los Separatistas taldeko kideak. | GOIENA

Garaia Berrikuntza Gunea, finantziario berri baterako zain

Apirilean errektore kontseiluak aztertuko du 2013-2016rako kapital handitzea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Garaia Berrikuntza Gunea finantziario berri baterako zain dago. Hau da, kapitalaren handitze berri baten atarian dagoela gogoratu du Andoni Gartzia gerenteak:

"Azken hiru urteetarako kapital ekarpena egin zen, eta datozen hiru urteetarako beste ekarpen bat planteatuta dago. Eskara berri horri ondo erantzuten bazaio orain arte moduan jarraituko

dugu. Ez bada onartzen, berriz, pasiboa nola birnegoziatzen dugun ikusi beharko da eta ekonomiko-ki aurrera nola egin dezakegun aztertu beharko dugu. Oraindik Jaurlaritzaren aurrekontuaren

eta bileren zain gaude". Apirilean Garaia Berrikuntza Gunea erakunde ezberdinek –Mondragon, SPRI, Arrasateko Udala, Gipuzkoako Diputazioa eta Jaurlaritza– osatzen duten errektore kontseiluak bilera egingo du 2013-2016rako aurreikusitako den kapitalaren handitzea aztertzeko.

Horrez gain, SPRI agentzia zuzendari barik dagoela gogora ekarri du Gartzia, eta departamentu berriarekin lanean hasteko "denboratxo bat" beharko dute. Bestalde, Garaia epe luzerako proiektu moduan planteatu zela gogora ekarri du: "Garaia 20-25 urterako planteatu zen eta egia da orain ibilbidearen *desertuan* gaudela, beste asko moduan. Egoera orokorrak zuzenean eragiten gaitu". Era berean, datu esanguratsua da iaz 9.700 pertsona pasa zirela Garaiatik, urte osoan antolatutako ziren ekintzetan.

PSE-EE: "Egoera kritikoa da"

Paco Gartzia Arrasateko sozialisten idazkari nagusiaren arabera, Garaia gunearen egoera "kritikoa" da eta kapitala handitzea behar du. Jaurlaritzaren SPRI agentziak ez badu kapitala handitzen Euskadiko berrikuntza gunerik "puntakoenetako bat" hiltorian utziko duela diote sozialistek. Garaia erakundearen ardura aldarrikatzeaz gain, PSE-EEk salatu du Udalak ez duela milioi bat euroko zorra kitatu. Udala Gobernuak oraingoz ez du erantzunik eman nahi izan, informazio gehiago izan arte.

Sukaldaritza eta kajoi flamenkoa lantzeko ikastaroak martxoan

Sukaldaritza ikastaroa Igor Otaduiden emango du martxoaren 6tik 29ra. Platera errazak, osasuntsuak, orekatuak eta merkeak egiten ikasteko aukera egongo da; prezioa da 30 euro –20 euro ikasle edo langabea izanez gero–. Kajoi flamenko ikastaroa, berriz, Periko Raezek eskainiko du martxoaren 7tik 23ra eta prezioa da 25 euro –15 euro ikasle edo langabeek–. Izena emateko Gazte Bulegora jo (943 25 20 65) edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net era idatzi.

Gimnasia hipopresiboa ezagutzeko aukera Aukearen eskutik

Gimnasia abdominal hipopresiboa ezagutzeko ikastaroa antolatu du berriro ere Aukeak, Egoiteki kirol zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaren bitartez. Martxoan zehar egingo dituzte hastapen saio horiek, astelehen eta eguaztenetan –09:15ean, 17:30ean eta 20:30ean–.

Ikastaro berri horretan izena emateko Musakolako kiroldegira jo edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu behar da. Prezioa da 37,60 eurokoa.



Garaia Berrikuntza Gunerako sarreran dagoen biribilgunea. | JOKIN BEREZIARTUA

Foro berria sortuko dute herriko industria berpiztu eta indartzeko

Udala, Mankomunitatea, MAI, Uned eta hainbat enpresari eta alderdi politiko elkarlanean ari dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gaur egun bizi dugun transformazio ekonomikoaren egoera ezohikoa da eta sortutako krisi sakonak aparteko esfortzua eskatzen du, lanpostu maila ziurtatu eta herriaren ongizate sozialaren egoera gaintzeko. Horren jakitun, foro berri batek Bergara aldeko industria berpizteko eta indartzeko lan egingo du. "Enpresen foroa estamentu enpresarialaren lan bateratua artikulatzeko balio duen planteamendua da, eta, helburu sozial garrantzitsu hori betetzeko, instituzio akademiko eta publikoen parte-hartzea behar da", diote bultzatzaileek. Eta gehitzen dute: "Proiektuaren ideia sektore industrialak suspertu, indartu eta berrizatzeko helburuarekin lan egingo duen ondo egituratutako foro edo erakunde bat sortzean datza".

Era berean, enpresendako elkartasun, berrikuntza, lehiakortasun eta ezagutzarako gune ere izan nahi du.

Hainbat bilera egin ostean, lanean hasteko eremu hauek zehaztu dituzte: eremu estrategikoa; enpresak mantendu eta indartzea; zerbitzu aurreratuak eskaintzeko erakundearen sustapena; eta lankidetzak publiko-pribaturako gunea/elkartokia.



Azkoitia, Rodriguez, Elortza, Larrañaga, Lazpiur eta Retegi, aurreko astean egindako aurkezpenean. | MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Partekatutako lidergoa

Eguneko egoera larriak "lan hori aurrera eramateko inork erantzukizuna, kompetentzia eta baliabiderik ez izatera garamatza. Beharrezkoa da partekaturiko lidergo bat, esfortzu eta baliabideak batu eta helburu eta estrategia berdinak konpartitzeko", azaldu dute. "Instituzio ezberdinen arteko kooperazioak bakoitza indartu eta efektu multiplikatzaileria sortzen du".

Orain arte buruturiko hasierako fasea kontzientziarazioa eta

oinarrizko irizpideak zehazteko izan da. Orain, urtebeteko iraupena izango duen fase iragankor baten hasiera planteatzen da, eta fase horretan egin nahi diren jarduerak ondorengoak dira: batetik, "bi funtzio izango dituen erakunde juridikoa sortzea, enpresari foro gisa lan egingo duena eta enpresendako zerbitzuak sustatuko dituena; bestetik, denborak aurrera egin ahala funtzioak bi erakundetan banatzea aurreikusten da; horrez gain, erakunde juridikoaren ordezkari-

ritza-organua sortu eta exekuzio zuzendaritza kudeatzeko pertsonak hautatu nahi dira; gainera, ildo estrategikoak landu, zerbitzuak zehaztu eta harreman sarea finkatu nahi dituzte eta laguntza ekonomikoak bilatu eta babes instituzionala eta erakunde berriaren ibilbidea hasi; eta horrekin guztiarekin batera, Miguel Altunaren eraikin berria bultzatu nahi dute eta ekimen berria martxan jartzeko bost urteko ikuspegi izango duen Plan Estrategikoa burutu.

Elkarlanaren fruitu

Ekimen hau Bergarako Udalak 2010-2020 Plan Estrategikoa egin zuenean, sektore industrialaren egoerak bultzada bat behar zuela argi ikusi zenean sortu zen. Gaia lantzeko, Udala, UNED, Miguel Altuna Institutua, Debagoieneko Mankomunitatea, alderdi politiko ezberdinetako zinegotziak eta enpresa munduko pertsona batzuk elkarrekin bilerak egiten aritu dira aurreko urte guztian zehar enpresen egungo egoera aztertu, hausnartu eta aurrera begirako lan ildo batzuk finkatzeko.

Dagoeneko hiru ekimen bideratu dituzte: herriko enpresen egoera aztertzeke 67 enpresatan datu bilketa garrantzitsua egin dute; datu bilketaren emaitzeekin herriko enpresen egoeraren diagnostikoa ere egin dute; eta egungo egoera ekonomiko zail honetan irtenbide posibleak lantzeko enpresari foroa sortu.

Egindakoa aurkeztu berri dute

Bergara eta inguruko enpresei ekimenaren berri emateko, aurreko astean aurkezpen bilera egin zen Miguel Altuna institutuko areto nagusian. Bertan inguruko 32 enpresak parte hartu zuten. Aurkeztutako proiektua onartu eta lan egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu zuten.



MONIKA BELASTEGI

Gerriko Berdearen panela

Dagoeneko jarri dute Agorrosin Ekintza Gunearen parean -abiapuntuan- Gerriko Berdearen ibilbidea jasotzen duen argibide-panela. Herria inguratzen du aisialdiguneak, natura eta ondare artistikoa lotuta. Bederatzi kilometro inguru ditu eta oinez zein bizikletaz egin daiteke. Udaleko Turismo, Ingurumen eta Kirol departamentuen elkarlanaren fruitua da.

Egibar bizikidetzaz arituko da eguaztenean batzokian

E.A. | BERGARA

Joseba Egibar GBBko presidentea eta EAJren bozeramailea Eusko Legebiltzarrean, batzokian izango da etzi, hilak 27. *Bakea, bizikidetzak eta normalizazioa, gure Herriaren etorkizunaren erronkak* delako berbaldia egingo du. Irekia izango da edozeinendako eta, ostean, luntxa izango da bertaraten diren guztiendako.

Azken asteotan euskal alderdi politikoen egunerokoan dago ETAK jardun armatua utzi osteko bakegintza eta normalizazio politikoa. ETAKo ustezko buruek Parisen epailearen aurrean egindako adierazpenak, Espainiako Kongresuko eztabaida parlamentaria... Testuinguru horretan, EAJren ikuspuntua azalduko du, 19:30ean hasita.



Joseba Egibar. | GOIENA

Berbaldia, LOMCE legeaz eta hezkuntza sistema propioaz

Bihar, otsailak 26, *LOMCE legea eta hezkuntza sistema propioa* delako hitzaldia egingo dute Arianna Arizabaletak eta Aitziber Martinez de Lagosek Irizar jauregiko areto nagusian. 19:00etan izango da berbaldia eta Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Departamentuak antolatuta du. Interesa duten herritar guztiei zabalik dago.

Xaxau konpartsa martitzenetan batzen da Pazkoak antolatzeko

Xaxau konpartsa dagoeneko hasi da Mendekoste jaietako txosnaguneko egitaraua prestatzen. Martitzenetan batzen dira, 18:00etan, kultura etxe-ko ganbaran. Herri mugimendu horretatik aditzera eman dutenez, batzarrok irekiak dira eta interesa duten guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.

Antonio Herzog | Bergarako Odol Emaileen Elkarteko delegatua

"Jendeak faltan igartzen du Seminarioan zegoen giro ona"

2011ko abuztutik Bergarako Emaileen Elkarteak ambulatorioan egiten ditu odol-ateratzeak; uste dute leku aldaketak ez duela emaile kopuruan eragin

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak 2011ko abuztutik hona Seminarioko lokalean beharrean, ambulatorioan egiten ditu odol-ateratzeak. Elkarteko delegatu Antonio Herzogekin leku alda-

ketaren inguruan eta ateratzeak izan duten eboluzioaren inguruan hitz egin dugu.

Zer moduz doaz odol-ateratzeak? Ondo doaz, baina ez guk nahi besteko ondo. Jende gehiagok etorri beharko luke.

Seminarioan zeneukaten lokaletik ambulatorioa etortzean emaile kopuruak behera egin du?

Ez. Jendea galdu dugu, baina 2007tik dator beherakada. 163 emaile inguru galdu genituen orduan. Hori zergatik gertatu zen aztertzen ari gara. Pentsatzen dut denetik egongo dela. Batzuek 70 urte beteko zituzten eta ezin dute odolik eman. Beste askok, seguruenik, 65 urterekin utziko zioten odola emateari -lehen horrela zen legez-. Orain, 70 urtera arte eman daiteke.

Beraz, ez duzue uste leku aldaketak eraginik izan duenik.

Ez. Seminarioko lokalera joaten zen jende gehiena ambulatorioa ere etortzen dela uste dut.

Hortaz, pozik zaudete ambulatorioan...

"2007tik 163 emaile inguru galdu ditugu, zergatia aztertzen ari gara"

Tira, pozik ez. Nahiago genuen Seminarioan geneukan lokala. Han lagun artean egoten ginen, oso bestelako giroa zen. Pintxo batzuk hartu, ardo bat edan... Dena dela, esan behar dena da ambulatorioan osasun baldintzak hobek direla.

Ardoa aipatu duzu. Jakin dugu zenbait herritar kezatu egin direla ambulatorioan ardorik ez delako ematen.

Bai. Egia da. Hori da odol-ateratze gehienetan entzuten dugun komentarioa. Ambulatorioan ezin da alkoholik eman. Emaileak Seminarioan ohituta zeuden odola eman, pintxo bat jan eta ardo txo bat edatera. Hori ezinezkoa da orain.

Zergatik da garrantzitsua odola ematea?

Odola ezinbestekoa da bizi izateko. Zientziak eta teknologiak aurrera egin dute, baina ez dute lortu odola sortzea. Gaur egun, operazio batean bi edo hiru odol poltsa behar izaten dira.

Odol emaileen elkarteek behin eta berri esaten dute emaile gazteak behar direla. Horrela da?

Bai. Gazteak gerturatzea ezinbestekoa da. Ari dira apurka-apurka etortzen, baina oso poliki

"Odol-ateratzeak hamabostean behin dira, ambulatorioan, 18:00etan"

ODOL-ATERATZEEN EGUTEGIA

Martxo: 13 eta 27.

Apirila: 10 eta 24.

Maiatza: 15 eta 29.

Ekaina: 12 eta 26.

Uztaila: 10 eta 24.

Abuztua: 8.

Iraila: 11 eta 25.

Urria: 9 eta 23.

Azaroa: 6 eta 20.

Abendua: 4 eta 18.

doa gauza. Azkeneko ateratzean, esaterako, lau emaile berri etorri ziren. Batzuk gazteak ziren eta beste batzuk, etorkinak.

Etorkinak ere gerturatzen dira orduan?

Bai. Pakistandarrak, esaterako, etortzen dira. Dena dela, etorkinekin arazo txiki bat daukagu. Boliviarrakin, hain justu ere. Boliviarr asko ditugu hemen bizi izaten, baina ezin dute odolik eman. Chagas deitutako gaixotasun batengatik debekatuta daukate odola ematea.

Nola animatuko zenuke jendea emaile egitera?

Gogoraziko nieke sekula ez daki-gula geuk edo geure inguruko norbaitek noiz beharko duen odola.

Odol-ateratzeak noiz izaten dira?

Hamabost egunean behin egiten ditugu, Bergarako ambulatorioan. 18:00etan hasten gara; beraz, interesa duen edonor gertura dadila, inolako beldur barik.



Antonio Herzog ambulatorioaren sarreran. | ARRITXU BARRUSO

Gizakia du oinarri Aroztegin dagoen eskultura erakusketak

Jabier Herrero laudiotarraren lanak martxoaren 10era arte ikus daitezke



OIHANANA ELORTZA | BERGARA

Jabier Herrero (Laudio, 1965) artistaren lanak daude ikusgai Aroztegi aretoan. *Bernardo Soaresen mitoa* du izena erakusketak. Eskultura eta pintura lanak dira, eta gizakia ageri da guztietan,

Herrerok grabatuan, eskulturan eta pinturan garatu du bere lan artistikoa eta Aroztegi aretoan erakusketan, pinturan eta eskulturan egindako batzuk daude ikusgai. Ez dira figura edo lan handiak, 40 zentimetro inguru dituzten bakoitzak alturan. Tamaina antzerakoa izan arren, erabilitako teknikak eta materialak ezberdinak dira. Adibidez, erretxina, pigmentua, sokak, esmaltea eta pintura erabili ditu Bergarara ekarri dituen lanetan. Martxoaren 10era arte dago zabalik erakusketak Aroztegin.

Mundu osoan erakusketak

Jabier Herrero 200 erakusketak baino gehiago egin ditu munduan zehar. Egun, instituzio ezberdinetan ere badaude bere lanak, hala nola, Araba eta Bizkaiako aldundietan, Madrileko Kanpo Arazoetako ministerioan edo Marbellan dagoen Espainiako Grabatuen museoan.

Aroztegin dagoen eskulturetako bat. | JABIER HERRERO

Arizabaletak herritarren babesa jaso zuen deklaratzera joatean

O.E. | BERGARA

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta, Bergarako ikastetxeetan geldialdiak egin zituzten joan den eguaztenean, goizean, eta gazte asko batu dira epaitegi atarian Iraitz Arizabaletari babesa eman eta auziperatzeatik protesta egiteko. Protestarako baimenik ez zuten eskatuta, Ertzaintzak identifikatu egin zituzten gazteetako batzuk, eta *Gaztetxeak aurrera, presoak etxera* zioen pankarta eustea eragotzi. Arizabaletak eskerrak eman dizkie babesa erakutsi dioten gazte herrikidee.

Gasteizko kontzertuan

Gasteizen dihardu ikasten Arizabaletak, eta azaroan bertako

gaztetxera kontzertu batera joan eta han gertatutakoengatik dago auziperatuta. Ertzainak sartu omen ziren, "prepotentziarekin", eta gaztetxean presoaren argazkiak zeudela-eta, han zeuden hamabost lagunak identifikatu. Haietako bi auziperatuta dituzte, "arduradun" izateagatik: "Ez dakit zergatik nagoen ni auziperatuta", dio Arizabaletak, azalduz bera kontzertu batera joan zela gaztetxera. Ertzainek "bortizki eta gogortasunez" jokatu zutela ere salatu du gazte bergararrak.

Joan den eguazteneko deklarazio hartzearen ondoren erabakiko du epaileak auziarekin aurrera jarraitu edo kasua artxibatu.



Epaitegi aurrean goizean egindako bilkura. | JULIEN IRIORDO

Gaur hasiko dira auzo-konposta egiteko bilera informatiboak

Guztira, 221 familiak jasoko dute ikastaroa martxoaren 8ra arte

MAIDER ARREGI | OÑATI

Martxoaren 12an jarriko dituzte martxan auzo-konposta egiteko sei gunek: Ugarkalden, San Lorentzon, Zubibarrin, Bidebarrietan, Errekalden eta Olakuan. 661 familiak eman dute izena, baina, oraingoz, 221 familiak

ekingo diote auzo-konpostari, eskariaren %32k. Lehenengo sei gunek hauek erritmoa hartzen duten heinean zabalduko dituzte gehiago. Gune horiek erabiliko dituzten familiek gaurtik, otsailaren 25etik, martxoaren 8ra arte jasoko dute ikastaroa.

Formakuntza prozesua

Ikastaroak bi zati izango ditu: familiei formakuntza teorikoa ematea eta bigarren zati batean, familia taldeak osatzea. 8 familiak osatuko dute taldea eta 5 konpostagailu izango dira gune bakoitzean, 40 familiarendako.

"Familiek elkar ezagutzeko aukera izango dute; ordubetik inguruko saioa izango da eta funtzionamendu arauak eta arduradunak adostuko dira", azaldu digu Oihana Agirre atez ateko informazio bulegotik. Konpostagailu bakoitzean parte hartuko

duten familia kopurua guztiz zehazteko dagoela ere gaineratu digu. "Familiako kide kopuruaren arabera eta hauen elikatzeko ohituren arabera erabakiko dira bai taldeak eta baita konpostagailuan parte hartuko dutenen kopuru zehatza ere", gaineratu digu Agirrek.

Gainera, Udala oraindik zehazten dabil konpostagailuaren tamaina eta edukiko dituen litroen kopurua. Horren arabera familia kopurua igo egin daiteke.

Atez ateko informazio bulegotik gaineratu digute, zalantzak eta konpost marroia, lehorra agortzean –material egituratzailerak– hau eskatzeko telefono zenbakia zein izango den erabakitzen dabiltzala.



Ugarkalde 8. Auzo-konposta 30 familiak egingo dute. | M. BIKUÑA



Olakua 17. Auzo-konposta 36 familiak egingo dute. | OIHANA ELORZA



San Lorentzo 54. Auzo-konposta 49 familiak egingo dute. | M.A.



Bidebarrieta 32. Auzo-konposta 32 familiak egingo dute. | M.A.



Errekalde 22-12. Auzo-konposta 31 familiak egingo dute. | M.B.



Zubibari 2. Auzo-konposta 36 familiak egingo dute. | MARRREGI

From the Jam taldeak geldialdi bakarria egingo du gurean

Plan B punk-rock taldearen doinuak entzuteko aukera ere izango da

M.A. | OÑATI

Pasa den urtarrilean From The Jam taldearen zuzeneko bertan behera geratu ostean, data berri batekin datoz Oñatira: martxoak 8. Sarrerak salgai dituzue dagoeneko *Barrabarran*. Ingalaterrako The Jam talde mitikoa Euskal Herrian ikusteko aukera izango dugu. Oraingoz, Bruce Foxton baxu-jotzailearen gidaritzapean egingo dute Espainian barrena bira, From The Jam gisa. Euskal Herrira etorriko dira eta Oñatiko gaztelekuan egingo dute geldialdia. Gainera, Oñatiko Plan B punk-rock taldea ere, geldirik egon ostean, berriro taula gainean ikusteko aukera izango da.



From The Jam taldeko Bruce Foxton baxu-jotzailea. | SCOTT FORD

Ingurumen jardunaldiak: hitzaldiak eta 3D filma

Atapuercako aztarnategira martxoan egingo den irteerarako aurrez eman behar da izena

M.A. | OÑATI

XVII. Ingurumen Jaurdunaldien barruan, asteon hitzaldiak izango dira kultura etxeko aretoan, 19:00etan. Lehena bihar izango da: *Ehiztari-biltzaile taldeak Gipuzkoako historiaurrean*, Alvaro Arrizabalaga izango da bertan. Eta eguaztenean, *Arte rupestre en el contexto franco-cantábrico*, Marcos Garcia Diezen eskutik.

3D filma

Eguenean eta barikuan, *Las cuevas de los sueños olvidados* filma ikusteko aukera izango da, lehen aldiz 3D formatuan.

Eguenekoa zineklubaren barruan eskainiko da, 20:00etan, kultura etxean. Egubakoitzeko, aldiz, 19:30ean izango da. Sarrerak sei euroko prezioa du.

Irteera Atapuercara

Martxoko bigarren astebururako, Burgosko Atapuercako aztarnategira eta Giza Eboluzioaren Museora irteera antolatu dute.

Hara joateko izena eman behar da martxoaren 1a aurretik, plazak mugatuak dira-eta. Telefono honetara deituta egin daiteke joateko erreserba: 943 71 64 04.

ARETXABALETAKO

Sei herritarren 'Ideia Zaparrada' ikusgai Arkupen

Hiri hondakinen bueltan aurkeztutako proposamenak eta Mankomunitatearen balorazioak daude erakusgai

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Erakusketa berria dago egunenetik Aretxabaletako Arkupen: *Ideia Zaparrada* proiektura aurkeztutako sei proposamenak. Horien gaineko azalpenak emateaz gain, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen sailak eginiko bakoitzaren balorazioa ere ageri da. Egitasmoaren harira, Udalak jarritako baldintzak izan ditu kontuan horrek: hondakinen bilketa gaika egitea, biztanleriaren %100ak derri gorrez parte hartzea, bilketa pertsonalizatua egitea eta gutxienez, %80ko birziklatze-tasak lortzea.

Hil amaierara arte egongo da zabalik erakusketa, honako ordutegian: astelehenetik egu-bakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, goizean.



Zehetasun guztiak azaltzen dira erakusketan. | IRATXE BENGUA

Proposamenak labur-labur; Arkupera joatea onena

MARIA AGIRRE: HONDAKIN ORGANIKOEN ZER EGIN?

- ▶ Proposamena: Noainen bada Loraenea parke publikoa, oilategia eta baratza dituen. 30 herritarrek oilategian dauden ontzietan uzten dute zabor organikoaren zati bat. Egunero herritar batek zaborrak oilategian uzteko ardura du. Oiloek zaborra jaten dute, eta geratzen dena pilotzen joaten da, eta metro bat duenean, harrak bota eta tapatu egiten dute. Horrela, baratzerako ongaria den konposta lortzen dute. Herritarrek ordainetan arrautzak jaso ditzakete, eta baita barazkiak ere; azken horiek ordainduz.
- ▶ Balorazioa: sistema horrek ez du organikoaren %100 herrian tratatzea ahalbideratzen.

ALAIN GOMEZ: HONDAKINEN BILKETA SELEKTIBOA

- ▶ Proposamena: ideia bi zatitan banatzen du. Papera, ontzi eta beira hondakinak, batetik; eta zabor organikoa, bestetik. Zabor ez organikoaren harira, zerga berdea aplikatzea eta *Pfand* metodoa erabiltzea proposatzen du. Birziklatzen duena saritzean datza azken hori. Zabor organikoa ortu ekologikoak dituztenendako ikusten du.
- ▶ Balorazioa: hondakinen bilketa gaika egitearen baldintza ez da betetzen, eta *Pfand* metodoa derrigorrezkoa ez denez, ez da biztanleriaren %100aren parte-hartzea bermatuta.

OIER ETXEBARRIA: ZABORREN BILTZE SISTEMA

- ▶ Proposamena: kalean dauden zabor ontzietatik errefusarena eta zaborrena kendu, beste guztiak mantenduz: beira, papera, ontziak, organikoa giltza barik, jantziak eta olioak. Errefusa atez ate jaso asteen hainbat bider, herritarrekin ordutegi berezia adostuz. Jasotzean, poltsa barruan dagoena egokia den zaindu beharko da, ez bada, erabiltzaileari abisua emateko.
- ▶ Balorazioa: ez da bideragarria ikusten, ez dituelako zehaztutako baldintzak betetzen. Egun Aretxabaletan dagoen sistemarekin alderatuta ez da aldaketa nabarmenik aurreikusten emaitzari dagokionez.

XABIER BASABE: ETXKO HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA

- ▶ Proposamena: oraingo sistemaren oso antzekoa, baina bete beharrekoa. Lehenik, familia bakoitzari hondakin organikoa batzeko ontzia eta giltza banatu, eta poltsa gris berezia errefusa batzeko. Bigarrenik, zaborrontzi berdeak kendu, eta marroia jartzea; etxeko ontzietako organikoa hara eroango da. Eta errefusa biltzeko ontzi grisak jarri, giltzaz zabalduko direnak.
- ▶ Balorazioa: emaitzak ezin direnez bermatu bideragarria ez dela uste bada ere, sistema koherentetzat jo du Mankomunitateak.

IKER CARRASCO: HERRIKO ZABORREN KUDEAKETARAKO IDEIEN ZIRIBORROA

- ▶ Proposamena: bi ideia independente egiten ditu. Derrigorrezko gaikako bilketa pertsonalizaturantz abiatzeko modua dago, batetik, sistema bi alditan ezarritik: borondatez eta derrigorrezkoa. Bestetik, auzokonposta komunitarioari buruzkoarena dago. Kiroldegi aurreko zelaia bere onera ekartzea eta lorategi, baso edo baratza eratzea du helburu.
- ▶ Balorazioa: *Ideien zaparradako* baldintzak ez lirateke beteko, ez delako derrigorrezko sistema bat. Auzo-konpostari dagokionez, kiroldegi aurreko zelaia Udalari dagokiola aipatu da.

ARALAR: HONDAKINAK BEREIZTUTA BILTZEKO EDUKIONTZI SISTEMA

- ▶ Proposamena: edukiontzien sistema dagoeneko Aretxabaletan txertatutako eta onartutako biltze sistema da; ondorioz, sistema honen barruan egiten diren aldaketek kohesio sozial zabalagoa lortzen dute. Proposatutako biltze sistema hondakinen trazabilitatean edo jarraipenean eta errefusaren eta materia organikoaren bilketa kontrolatuan oinarritzen da.
- ▶ Balorazioa: sistema biztanleria osoarentzat planteatuta dago, baina, atal guztiak pertsonalizatuak ez daudenez, ezin da %100eko erabilerarik bermatu. Sistema derrigorrezkoa eta pertsonalizatua izan behar duela gogorarazten du Mankomunitateak.

ESKORIATZA

Saharako ikurra jarriko dute bihar udaletxean

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, martitzena, 37 urte bete-ko dira Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa izendatu zenetik, eta, hori dela eta, Saharako bandera Eskoriatzako udaletxeko balkoian egongo da zintzilik egun osoan.

Ezker Anitza-Izquierda Unida taldeak Udalarik egindako eskaeraren ondotik dator esandako ikurra balkoian jartzea. Alderdiak, aldi berean, Euskadiko Ikasle eta Gazte Sahararren ligaren eskaerari erantzun dio.

Ezker Anitzako zinegotzi Juan Luis Merinok ohar batean jakinarazi du proposamenak

Bilduren oniritzia jaso duela, eta gaineratu du Eskoriatzako Udalean ordezkatura dauden gainerako alderdiei ere horren berri eman zaiela. Azken horiei eskatu die Saharako herriaren alde elkartasuna helaraz dezatela.

Konpromisoa berretsi

Horren harira, Ezker Anitza-Izquierda Unidak Saharako auziarekiko duen konpromisoa berretsi egin du, eta sahararrek erabakitzeke duten eskubidea nabarmendu gura izan du. Horrekin batera, gogorarazi du Nazio Batuek sahararren alde erabakiak hartu dituztela.

Udal Pilotalekuko atek egun osoan daude zabalik, eskoriatzarrendako aisialdigune moduan

Eskoriatzako Udalak gogorazi du Udal Pilotalekua erabilera librekoa dela, eta atek zabalik daudela astegunetan, 09:00etatik 22:00etara, eta aste bukaeretan, 09:00etatik 18:00etara. Herritarrendako aisialdi eremua dela nabarmendu dute, eta jarduera askotarako erabil daitekeela: pilotan egiteko, bestelako kirol jarduerak egiteko edo, besterik gabe, eguraldi txarra dagoenean aterpe-leku moduan. Gogorarazi dute, dena dela, kantxa alokatuta dutenek dutela lehentasuna erabiltzeko orduan.

Zabalik dago Aldaypen martxoaren 10ean Zanbranan izango den Ehiza Txikiko Txapelketarako izen-ematea

Martxoaren 10ean Ehiza Txikiko Txapelketa txakurrarekin egingo da Zanbranan El Castillo ehiza-barrutian, eta dagoeneko zabalik dago horretarako izen-ematea. Interesatuek Eskoriatzako Aldaype ehiza taldearen egoitzara joan behar dute martxoaren 7a baino lehen, 17:30etik 19:00etara. Txapelketan parte hartzeagatik 18 euro ordainduko dituzte eta bazkaltzea ere geratzen direnek, 25 euro. Aldaypetik gogorarazi dute parte hartu gura duenak Gipuzkoako Ehiza Federazioaren baldintzak bete behar dituela.



AITZORROTZ

Jon Idigoras, irabazle

Jon Idigoras irabazi du Eskoriatzako Aitzorrotz elkartearen aurtengo Gabonetako presoen aldeko zozketa. Sari ederra eron du etxera, hala nola Ternua markako materiala, Zubia etxeko produktuak, Oteiza Goikoa gazta eta Arabako Errioxako ardoa. Goiko irudian, Jon Idigoras saria jasotzen agertzen da, Garikoitz Kortazar eta Bittor Karballares ondoan dituela.



Bolotoki tabernan bolo jaurtitzearekin ospatu zuten seigarren urteurrena, maiatzean. | JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Kiroldegiaren instalazioak eta bolatoki taberna-jatetxearen ustiaketa lehiaketara

Udalak bost urterako berrituko du esleipena; interesatuek martxoaren 13ra arteko epea dute eskatutako dokumentazioa udal idazkaritzan aurkezteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Jose Monterrosok izan du azken urteotan Bolatoki taberna ustiaketeko eskubidea, baina esleipena berritzea tokatzen da, eta Udalak lehiaketa deitu du. Monterrosok ustiaketarekin jarraitzea du helburu, baina beste inor interesatuta egonez gero Udalak hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu du. Interesatuek martxoaren 13ra arteko epea dute eskatutako informazioa eta dokumentazioa Elgetako udaletxeko idazkaritzan aurkezteko.

Bost urterako

Lehiaketako deialdia zein baldintzak eta gainerako argibideak udaletxeko iragarkien taulan zein www.elgeta.org webgunean daude ikusgai.

Udalak bost urterako ustiaketa eskaintzen du —hiru urte

eta banaka beste bi gehiago luzatzeko aukera—, eta hilean 200 euroko alokairua eskatzen du.

Kiroldegiaren ustiaketa hartzen duenak, besteak beste, urte osoan zehar eman beharko du zerbitzua —abuztua kenduta—, garbiketa behar den moduan egin beharko du, eta kirol zerbitzuak zaindu beharko ditu...

Alde biek adostuko dute zerbitzuaren ordutegi eta egutegia, baina printzipioz kiroldegiak zabalik beharko du asteleheneetik barikura bitartean 10:00etatik 21:30era, eta zapatu, domeka eta jai egunetan 10:00etatik 21:00etara. Taberna-jatetxe zerbitzuak, bestalde, zabalik beharko du egunero 10:00etatik 21:00etara, gutxienez.

Kiroldegiko instalazioen erabileraren ondoriozko ur, gas eta argindar gastuak Udalaren kar-

gu izango dira, ez horrela Bolatoki taberna-jatetxeari dagozkionak. Garbiketari dagokionean ustiatailearen ardurua izango da taberna-jatetxea garbi mantentzea baita ere kiroldegiko korridore, squash pista, sauna, aldagelak eta gimnasioa. Frontoiaren garbiketa zerbitzu horretatik kanpo gelditzen da.

Bolotan egiteko pista

Aurrerantzean, bolo jokoan egiteko kiroldegiko tabernan dagoen bolatokiak erabilgarri egon beharko du hileroko lehen aste bukarran, barikutik domekara bitartean. Bestalde, aste bukaera horretatik kanpo inork kiroldegiko bolotokia erabili nahiko balu astebeteko epearekin egin beharko luke eskaera. Hori horrela, ustiataileak instalazio hori erabilgarri ipini beharko luke.

Boto-emaelek ere, saridun

Sariei dagokienez, irabazleak 300 euro eskuratuko ditu eta 150 euro, bigarrenak. Bestalde, kartelen bozketan parte hartzen dutenen artean 50 euro zozkatuko dituzte tokian tokiko denda edo jatetxetan gastatzeko.

Boto-emaelek ere, saridun

Gogoan izan, baita ere, gaur astelehena, bukatzen dela aisialdirako ortuetarako izena emateko epea. Udaletxeko Erregistroan egin behar da hori, 14:00ak baino lehen. Datozen egunotan jakinaraziko du Udalak izena eman dutenen zerrenda eta ortuen zozketaren data.

ARAMAIO

Gipuzkoako hainbat landa garapenerako elkarteren interesa piztu du ABBk

Egubakoitzean ekonomatua eta Mendiolako ikerketa eta berrikuntza zentroa bisitatu zuten

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Basarri Barri fundazioak interesa pizten jarraitzen du Aramaiotik kanpo. Oraingoan, Gipuzkoako hainbat landa garapenerako elkarte interesatu dira proiektuagatik, Gipuzkoako Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako zuzendari Koldo Lizarralde barne.

Lizarralde bera eta beste hainbat elkartetako ordezkari Aramaioren izan ziren joan den egubakoitz goizean, Ramon Ajuria alkatearekin, Martin Etxabe Mendiola zinegotziarekin eta Aitor Larrañaga ABBko dinamizatzailearekin batera. Bisita hasteko, udaletxean bertan azaldu zitzaizkien labur-labur zertan datzan proiektuak.

tua. Gero, hiltegi zaharreko beheko solairuan dagoen ekonomatua bisitatu zuten, eta handik Mendiolako ikerkuntzarako eta berrikuntzarako zentrorara joan ziren. Eta, azkenik, Iturrieta sagardotegian bertako produktu ekologikoz osatutako luntxa egin zuten.

Baserritarrak oinarri

Gipuzkoako ordezkariak harrituta geratu ziren Aramaioko herri dinamikarekin: "Ez zuten sinesten ABBren oinarria baserritarrak direla, eurak direla lan zailena antolatzen dutenak", zioen Aitor Larrañagak. Debatetik interesgarriak egiteko eta esperientziak trukatzeko aitzakia ederra izan zen bisita.



Bisita etorri zirenekin talde argazkia atera zuten Mendiolan. | ARAMAIOKO UDALA

ANTZUOLA

Obra eta zerbitzuen deialdiko lehen emaitzak

Euskarazko proba martxoaren 5ean, martitzenean, izango da, 09:30ean, Donostian

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Obra eta askotariko zerbitzuen zerbitzu balioanizta eta argiteria zerbitzua proben oposizio-lehiaketako azterketa teorikoko behin-behineko emaitzak ikusgai dituzte udal webgunean. Eta teorikoa gaingaitu dutenek otsailaren 28an ariketa praktikoa egin beharko dute, 08:30ean, udaletxean. Egun osoko iraupena izango du, goizez eta arratsaldez. Hautagaiek ariketa praktikoa egiteko lan-arropa egokia eraman beharko dute.

Lehenengo azterketaren erreklamazioa jartzeko epea hiru eguneko izango da eta gaur, otsailaren 25a, bukatuko da epea.

Euskarazko proba idatzia, aldiz, martxoaren 5ean Donostiako Seminarioan—Heriz pasealekua 82— egingo da.

'Tximeleta' dokumentala

Otsailaren 28an, egunean, *Tximeletak* gazte mugimenduaren gainean jarduten duen dokumentala ikusteko aukera izango da gaztetxean, 19:00etan.

"*Tximeletak: etengabeko metamorfosian* hamarkada bakoitzaren berri emateko sasoi hartako bideoak tartekatu ditugu", diote egileek. Tartean, Iratitz Salegi bergararra dugu. Euskal Herriko gazte mugimenduek hiru hamarkadatan utzitako arrastoa jaso eta aztertu nahi izan dute, hain zuzen, *Tximeletak* dokumentalean. 80ko hamarkadaren berri ematekoan, dokumentaleko protagonistetako bat Mikel Zubimendi bergararra dugu; bere esperientziaren berri ematen du. Esperientzia guztiak egunean, 19:00etan, gaztetxean.

LEINTZ GATZAGA

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako kartel lehiaketara aurkezteko epea bukatzean

UBANE MADERA | GATZAGA

Oraingo asteko egubakoitzean, martxoaren 1ean, bukatuko da emakumearen nazioarteko egunaren harira antolatutako kartel lehiaketan parte hartzeko epea.

Lehiaketa zabalik dago Gatzagako bizilagunen artean ez ezik, Elgeta eta Antzuolakoendako ere bai. Hori horrela, hiru herrietako udaletxetan onartuko dituzte lehiaketarako kartelak.

Herritarren botoekin

Era berean, hiru herrietako bizilagunek eman ahalko dute botoa kartel irabazlea aukeratzeko.

Eta horrez gainera, lehiaketara aurkeztutako kartel guztietan erakusketa jarriko dute, kasu horretan ere, hiru udalerrietan egingo dute hori. Erakusketa bera, berriz, martxoaren 8an bertan ipiniko dutela iragarri dute antolatzaileek.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Hauek dira irabazleak!

Hauek dira OTSAILEKO SARI hauen guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK GUZTIOI!

ARRIKRUTZ KOBETARAKO 10 SARRERA*

(bina sarrera pertsonako)

- Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
- Maite Arana Osinaga (Arrasate)
- Alberto Trojaola Larrea (Aretxabaleta)
- Floren Arana Barandiaran (Arrasate)
- Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

AISIA DEBA HOTELEAN**

2 pertsonarentzako gaua ostatuan,
buffet-gosaria eta zirkuitu termala

- Yolanda Cebrian Arregi (Antzuola)
- Iñaki Zabaleta Etxeberria (Arrasate)
- Ramon Latorre Etxaniz (Bergara)

2 pertsonarentzako relax gastronomikoa
(bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua)

- Amaia Bengoa Beloki (Eskoriatza)
- Amagoia Barrutiabengoa (Arrasate)

PETER PAN MUSIKALAREN 15 DVD**

- Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)
- Mikel Unamuno Aiausti (Arrasate)
- Iñigo Eguren Konde (Bergara)
- Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
- Jose Luis Carnicero (Bergara)
- M. Angeles Arriolabengoa (Aramaio)
- Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
- Atxen Mungia (Arrasate)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Purita Garzia (Bergara)
- Oskar Vitoria Gallastegi (Arrasate)
- Jose M. Iñarra Kortabarria (Arrasate)
- Resu Lasagabaster Beitia (Aretxabaleta)
- Edurne Iñarra Bastardo (Arrasate)
- Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)

NAFARROAKO (LIZARRA) AROA UPATEGIAN**

Bisita gidatua eta bazkaria
4 pertsonarentzat

- Nere Unamuno Lekuona (Gasteiz)
- Jose Luis Aizpurua (Bergara)

12 kaxa ardo ekologiko.

- Iñaki Bellido Garcia (Oñati)
- Fernando Karasatorre (Bergara)
- Maria Eugenia Aranburu Arregi (Oñati)
- Jesus Egin Zabaleta (Bergara)
- Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)
- Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)
- Pilar Uranga (Arrasate)
- Julian Errasti Azurmendi (Arrasate)
- Mikel Alberdi Larrañaga (Oñati)
- Uxue Zabaleta Arin (Bergara)
- Aitziber Astola Elorza (Arrasate)
- Ihintz Bengoa (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Orduategia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzete mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN txartela erakutsi edota bazkide zenbakia jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduategia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA



Bergarak 0 eta 1 galdu zuen Oiartzunen kontra, zapatuan. | IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

Giroa bero-bero Agorrosinen eta garaipena, Oiartzunentzat

Bergarrek etxean jokaturako azken hiru norgehiagokak galdu dituzte

EMAITZA

BERGARA
0-1
OIARTZUN

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Partidu gogorra eta intentsitate handikoa jokatu zuten, zapatuan, Bergarak eta Oiartzunek, Agorrosinen. Oiartzuarrak bigarren postuan dira eta garaipena erdietsita, liderrarengandik puntu bakarrera kokatuko lirarteke. Galdu ezinezko aukera zen. Eta baita lortu ere. Bergararen aurkako garaipenarekin, Garikoitz

Argoterren mutilek puntu bakarrera daukate Hernani liderra.

Norgehiagoka hasi eta berehala heldu zen bisitarien gola. Partiduko gol bakarra izango zena. Hortik aurrera, bi taldeek aukerak barra-barra izan zituzten.

Biak garaipenaren bila

Lehen zatian oiartzuarrek izan zituzten gol aukera garbienak. Bergararrak, amoreri eman gabe, baloia handik eta hemendik jokatzen saiatzen ziren.

Atsedaldiaren ostean, Neca Galanen mutilek aukera gehiago izan zituzten. Indartsu hasi ziren, golaren bila. Hala ere, bigarren zatiko lehen ordu laurdena bete

aurretik, Valeriori txartel gorria erakutsi zion epaileak eta, Bergara, jokalaria bat gutxiagorekin gelditu zen. Hortik aurrera, giroa are gehiago berotzen hasi zen, elur eguraldia egin arren...

Txartelak barra-barra

Etxekoek gola nahi zuten baina Oiartzungo atzealdeak sendo eutsi zion partidu osoan zehar. Aldi berean, oiartzuarrek aukerak izaten jarraitzen zuten, baina Soto atezainak ondo babestu zuen Bergarako atea.

Elurrak ez zuen apenas atsedenic eman baina harmailetan zaleak gero eta beroago eta haserreago zeuden epailearen eraba-

kiekin. Bigarren zatia erdialdera etxekoek beste txartel gorri bat ikusi zuten, oraingoan Nafarrate atzelariak. Oiartzungo Txabarri ere kanporatua izan zen partiduaren amaiera aldera. Horiez gain, txartel hori ugari erakutsi zituen epaileak. Azkenean: Bergarak 0 eta Oiartzunek 1.

Lesakara begira

Sailkapeneko seigarren postuan daude bergararrak, 38 punturekin. Datorren jardunaldian, martxoko lehen asteburuan, Beti Gazteren aurka jokaturako dute Galanen mutilek. Joaneko partiduan, 4 eta 1 menderatu zuten bergarrek Lesakako taldea.

ERIK ARANBURU
BERGARAKO ERDILARIA

"Jokalaria bat gutxiagorekin gelditzeak min egin digu"

Tentsioz beteriko partidua jokatu zen zapatuan Agorrosinen. Halaxe baiez-



MAIALEN GONZALEZ

tatu du Erik Aranburuk, Bergarako erdilaria.

Defentsa sendoa izan duzue parean.

Ez dugu partidua ondo hasi eta gola sartu digute. Bigarren zati hasiera ona izan dugu baina lehen txartel gorriak min handia egin digu.

Etxeko garaipenak garestitzen hasi zaizkizue.

Denboraldi hasieran etxean irabazten genuen baina urtea hasi denetik ezinean gabiltza. Hala ere, partidu amaierara arte intentsitateari eutsi diogu, golaren bila. Hemendik aurrera lanean jarraitu behar dugu.

Hurrengo astean, Lesaka.

Ez da partidu erraza izango. Beti Gazte beheko postuetan dago eta garaipenaren bila gogotsu irtengo dira. Hala ere, guk gurea egingo dugu eta disfrutatzen saiatuko gara.

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Soto, Retes, Urrutia, Nafarrate, Iñurrieta, Crespo, Canabillas, Beitia, Macho, Aranburu eta Valerio. Ordezkoak: Apellaniz, Diaz, Elorriaga, Navas, Plazaola, Balzategi.

Oiartzun: Capilla, Iraola, Txabarri, Loperena, Arbelaitz, Pikabea, Fernandez, Garmendia, Bereziartua, Iribarren, Garmendia. Ordezkoak: Peral, Marcos, Almandoz, Yarza, Lapazaran, Oiarbide.

Beste: Elurra mara-mara zelaian, baina giroa bero-bero harmailetan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñaren eta Beti Gazteren arteko norgehiagoka, bertan behera

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Azkoagain zeharo zurituta esnatu zen domeka goizean eta Aloñaren eta Beti Gazteren arteko norgehiagoka bertan behera gelditu da. Federakundeak ez du oraindik atzeratutako partidua noiz jokaturiko den adierazi, baina litekeena da, Aste Santuko opo-

rraldiko egunen batean jokatzea. Momentuz, data zehatza jakiteko itxaron egin beharko da.

Mondraren aurkako derbia

23. jardunaldia igarota eta partidu bat gutxiagorekin, oñatiarrak sailkapeneko hamargarren postuan daude, 29 punturekin. Lesa-

karrak, osterara, postu bat beherago daude, hiru puntu gutxiagorekin.

Asteburu honetan derbia jokatuko da, Mondraren eta Aloñaren artekoa, Mojategin. Joaneko partiduan, urri amaieran, arrasatearrek 0 eta 3 garaitu zuten Aloña, Azkoagainen.



Azkoagain elurtuta zegoen partidua jokatzeko orduan, atzo. | JOSETXO ARANTZABAL

ERREGIONAL PREFERENTE A

Amaika Baten aurka heldu zaio lehen porrota etxean Antzuolari

Juanina Garaien mutilek lider izaten jarraitzen dute, 43 punturekin

EMAITZA

ANTZUOLA

1-2

AMAIAK BAT

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Antzuolak aukera polita galdu du bigarren sailkatuarekiko, Getariako Keta, zeukan aldea handitzeko. Izan ere, Amaiak Bat taldearen kontra etxean galdu dute antzuolarrek. Partidua hankaz gora jarri zitzaizen etxekoei 0 eta 1 galtzen hasita. Hala ere, atsedena baino lehen, Ibai Zabalo aurrelariak lortu zuen berdinketaren gola. Bigarren zatia banako berdinketarekin mantendu zen eta partidua amaitzear zegoela, Debako taldeak garaipenaren gola erdietsi zuen. Amaiera aldera, Antzuolako Markel Lete eta Aitor Godoi jokalariek bata bestearekin kolpea hartu zuten, susto ederra hartuz.

Etxeko lehen porrota

Emaitza txukunak lortzen ari da Antzuola denboraldi honetan. Denboraldia hasi denetik, etxeko norgehiagoka guztietan batu



Antzuolak lider izaten jarraitzen du. | IMANOL SORIANO

dituzte puntuak, zortzi garaipen eta bi berdinketa lortuta. Guztira, hamairu garaipen erdietsi dituzte Garaien mutilek. Lau berdinketa eta porrotak, lau besterik ez dira izan. Horietatik bakarra izan da etxean, asteburu honetan, hain zuzen.

Lidergoa mantenduz

Denboraldia amaitzeko bederatzita partiduren faltan, antzuolarrek lider izaten jarraitzen dute, 43 punturekin. Bigarren sailkatua, Getariako Keta, lau puntura dute,

39 punturekin. Mutriku eta Ordizia daude hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren. Azken jardunaldian, mutrikuarrek 2 eta 5 hartu dute mendean Ordizia, eta 36 punturekin berdinduta daude orain, sailkapenean.

Datorren asteburuan kanpoan jokatu du Antzuolak, Soraluzen. Eta, hemendik bi jardunalditara, bigarren sailkatua, Getaria, hartuko dute, etxean. Aukera paregabea izango da Garaien mutilentzat lidergoa sendotzeko, igoyeraren bidean.



EMAKUMEZKO II. MAILA

JOSETXO ARANTZABAL

Garaipen garrantzitsua Mondrak

Zarautz, arerio zuzena, hartu dute Mondrako neskek asteburu honetan. Mojategi erabat zuritu da asteburuan eta baloia mugitzea ikaragarri zaildu du elurrak. Melaniren areaz kanpoko jaurtiketa bat baliatuz lortu du Mondrak garaipena, partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela. Datorren astean, Castejonen kontra jokatu dute.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondrari egoera zaildu zaio Touringen kontra punturik ezin lortuta

Garaipena lortzeko lanak izaten jarraitzen du Mondrak. Zapatuan, 3 eta 1 galdu zuten Iturrinoren Erreterian. Arrasatearren gola, Julen Zaitetik sartu zuen. Sailkapeneko azken hirugarren postuan dago Mondra, 22 punturekin. Datorren astean Aloña hartuko dute, etxean.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hiru puntu baliotsu galtzen utzi ditu UDAK Tolosan

Golak barra-barra ikusi ziren zapatuan, Tolosan. Lehen hirurak UDAK sareratu zituen, Iker Sanchezek bi eta Jokin Badillok beste bat. Zelai erditik gol ikusgarria sartu zuen Badillok. Tolosak, baina, markagailua berdintzea lortu zuen, azken minutuak ere borrokatuz. Amaieran, hiru puntu berdinketa.



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90

etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com



Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.

EBA

Oñatiarrak bolada txarrean jarraitzen dute beste astebetez

Partidu osoan zehar borrokan ibili ziren, baina azken baloi jabetzak ez zituzten ondo jokatu

EMAITZA

NATRA OÑATI

78-86

ZORNOTZA

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Zeziaga (21), Gatzia (23), Cavada (8), De La Iglesia (8), Osa (9), Gamarra (9), Zabaleta, Kintana, Biain, Lizarralde, Odriozola.

Zornotza: Iglesias (16), Duque (5), Salazar, Tobar (19), Carreto (33), Zorroza (7), Gomez (5), Torres (1), Ocerin, Izkarra.

Beste: Esklerosi Anizkoitzaren aldeko partidua ospatu zuten.

ko lan guztia pikutara bidali zuten Blancoren mutilek.

Bi taldeen minutu onak

Lehenengo laurdena oso fuerte hasi zuten Zornotzakoak. Erasoan puntu asko egin zituzten eta 9 puntuko aldea lortu zuten, besteak beste, Carretoren jaurtiketa guztiak saski barruan amaitzen zutelako. Hala ere, defentsa gogortu ondoren laurdena 21-23 amaitu zuten. Hurrengo 10 minutuak, ordea, bestelakoak izan ziren: etxeok lan oso ona egin zuten, hiruko maratik fin ibili ziren eta laurdena amaitzeko minutu baten faltan 7 puntuko aldea lortu zuten. Baina azken momentuan Zornotzakoek min egin zuten.

Atsedenaldira 47-46

Aldageletatik gogotsu irten ziren Natrako jokalariek eta defentsan lana ondo eginda, 20-14ko partziala lortu zuten. Gauzak horrela, azkenengo 10 minutuak abantailarekin hasi zituzten, baina partiduen kontrola guztiz galdu zuten eta iskanbila horretan Zornotzakoak erosoago jokatu zuten. Azkenengo minutura 78-79 heldu zen partidua, baina Zornotzakoak norgehiagokaren jabe ziren eta azken segundoetan, faltak tarteko, puntu aldea handiagotu zuten 78-86 amaituta.

Aurrera begira

Dagoeneko hurrengo partiduan pentsatzen ari dira Natrako jokalariek. De La Iglesiak esan zuen bezala, hurrengo bidaia Burgosera izango da eta hauek ondo dabilta azkenaldian, beraz, borroka gogorra izango da.



Xabier Osa Zornotzako defentsa gainditu nahian. | JAGOBA DOMINGO

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Partidu garrantzitsua izan zen zapatuan Zubikoan jokaturakoa, irabaziz gero lehenengo postua ia erabakita uzteko aukera zutelako Eneko Blancoren mutilek. Baina azken aldia ohiko bihurtzen ari den bezala, partiduen minutu erabakigarrietan kale egin zuten oñatiarrek.

Taulan bigarren sailkatuak, Zornotzakoak, jaso zituzten etxean eta azken minutuetan galdu zuten partidua. Emaitza 78-86koa izan arren, azken minutura puntu bateko aldearekin heldu ziren. Hala ere, azken baloi jabetzak ez zituzten ondo jokatu eta horren ondorioz 40 minutuetan eginda-



JAGOBA DOMINGO

1.500 EURO BATU ZIREN ADEMGI ELKARTEARENTZAKO Esklerosi Anizkoitzaren aldeko eguna ospatu zuten zapatuan Natrakoek, orain dela hilabete batzuk Asier De La Iglesia jokariari gaixotasuna antzeman ondoren. Goizean Esklerosi Anizkoitzaren inguruko hitzaldi bat eskaini zuen ADEMGiko mediku-neurologo batek. Arratsaldean berriz, partiduko sarrerekin, zozketarako txartelekin eta txokolatearekin bildutakoarekin, 1.500 euroko txeke bat eman zioten elkarteko presidenteari.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatzako neskek 56-48 irabazi zuten zapatuko norgehiagoka

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Aurkari zuzena jaso zuten zapatuan etxean Fernando Raso entrenatzailearen neskek, eta norgehiagoka partidu osoan zehar kontrolpean izan ondoren, 56-48 emaitzarekin irabazi zuten. Denboraldiaren bigarren itzuleran bost partidutik lau irabazi dituzte Eskoriatzakoek, eta *final four*-a jokatzearren helburua zaila izan arren, borrokan jarraituko dutela esan zuen Raso entrenatzaileak. Momentu honetan sailkapenean seigarren postuan daude, baina bigarren postutik puntu bakarrera.

Hasieratik nagusi izan ziren Eskoriatzakoak, eta partidua

aurrera joan ahala, konfiantza lortu zuten. Lehenengo laurdenean zalantza asko izan zituzten, baina bigarrean finago ibili ostean, atsedenaldira 31-23ko emaitzarekin joan ziren.

Partidua erabaki

Hirugarren laurdenean partidua erabaki zuten. Rasoren esanetan, taldearen laurden onena izan zen eta atzean gogor ibili eta eraso eta defentsa arteko balantze azkarrak egitea lortu ondoren, 15 puntuko aldearekin heldu ziren azken 10 minutuetara.

Azken laurdena ere gogotsu hasi zuten etxeok, 20 puntuko aldea lortuz. Baina partiduen



Eskoriatzako jokalariek. | ARTXIBOA

amaiera heldu ahala, defentsan intentsitatea galdu zuten, eta horrek aurrean zalantzeekin jokatzeraz eraman zien. Hala ere, aldea mantendu eta partidua irabaztea lortu zuten.

LEHENENGO MAILA

Garaipen garrantzitsua lortu zuen MUK joko onena ez egin arren

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Zapatuan azken emaitzen bolada txarrari buelta emateko aukera izan zuten Josu Larreategiren mutilek Iturripen, eta oraingoan ez zuten kale egin. Barañaingo Lagunak taldea zuten aurrean, eta 77-70 irabazi zuten Arrasatekoek.

Ez zen arrasatearren partidurik onena izan, baina garaipen garrantzitsua lortu zuten partidu landua egin ostean. Talde gazte eta arriskutsua zuten aurrean, baina oso gogor kantaratu ziren Larreategiren mutilak eta lehenengo zortzi minutuak funtsezkoak izan ziren. Markagailuan 14 puntu-

ko aldea lortu ondoren, Lagunak taldekoak zonakako defentsan jarri ziren eta partidu osoa defentsa berdinarekin jarraitu zuten.

Zonakako defentsa

Defentsa honi Aranzabalen gidaritzapean eta hiruko maratik ondo egin zioten aurre etxeok, baina hirugarren laurdenean, markagailuan 8 puntu azpitik zeuden Arrasatekoak.

Hala ere, oraingoan minutu erabakigarriak MUKrenak izan ziren. Barneratzeekin falta asko eragin zituzten eta jaurtiketa libreetan fin ibili ondoren, garaipena lortu zuten zapatuan.

ESKUBALOIA

Zapatuan irabazita lider jarraitzen du Ford Mugarrik

Pablo Garciaren mutilek alde nabarmena atera zioten El Pilar taldekoei

EMAITZA

FORD MUGARRI

37-23

EL PILAR

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Joan den astean denboraldi hone-tako bigarren partidua galdu ostean, garrantzitsua zen Ford Mugarrikoentzat zapatuan Iturripen jokaturako norgehiagokan garaipena lortzea. Azkenean, markagailuak erakusten duen moduan, aise lortu zuten arrasatearrek helburua.

Pablo Garciaren mutilak izan ziren partiduko lehenengo gola egin zutenak, eta ordutik aurrera uneoro ibili ziren aurretik. Gauzak horrela, lehenengo zatia amaitzerako zazpi goleko aldea atera zieten aurkariei.

Atsedendialdiaren ostean El Pilarrekoek aldea apur bat murriztea lortu zuten arren, bigarren zatia aurrera egin ahala Ford Mugarrik gehiago zela erakutsi zuen. Hala, hamalau goleko aldea aterata, etxean geratu ziren garai-penaren puntuak.

Txabarri bueltan

Jokalariei dagokienez, arrasatearren artean izan zen berrikuntzarik. Izan ere urtebetez atzerrian egon ostean Aitor Txabarrik berriz ere jantzi zuen Ford Mugarriren

elastikoa, eta hainbat minutu ere jokatu zituen. "Nabaritu dut entrenamendu falta eta gripea pasatu berri dudala, baina ondo ikusi dut neure burua" zioen Txabarrik partidua biharamunean.

Taldea baloratzeke orduan, Txabarriren ustez alde teknikoan oraindik ere hobetzeko gauzak dauden arren, fisikoki nahiko ondo ikusi zituen zapatuan taldekideak, intentsitatearekin jokatzeko. "Igoera faserako hori lortu behar da, fisikoki ondo heltzea; izan ere

fase honetan partiduak partidu bakarrera jokatzeko da, eta nahiko segidan izaten dira norgehiagokak" gaineratu zuen atezainak.

Lider beste aste batez

Zapatuko garaipenarekin lider jarraitzen du Ford Mugarrik eta bigarren dagoen Askartza taldeari puntu bakarreko aldea ateratzen dio. Hurrengo jardunaldian sailkapena isten duen Trapagaran taldearen kontra jokaturako dute arrasatearrek.



Ford Mugarriko Kepa Gruceta erasoan zapatuko partiduan. | IMANOL SORIANO

Soraluze BKEk galdu atzo

"Partidua ez digute euren irabazi, guk galdu dugu" zioen atzo Soraluze BKEko entrenatzaile Josetxo Muniategik Ereintzaren kontra 27-20 galdu eta gero. Hasieran sei golera berdintzea lortu zuten bergarrek baina gero ez zuten jakin etxeok ateratako aldeari buelta ematen. "Erasoan egindako akatsak izan dira gure arazo txarrena: horiek aprobetxatu dituzte kontraeraso zuzenak egiteko" azaldu zuen entrenatzaileak. Era berean, Ruben atezainaren lana goraiatu zuen.

DUATLOIA

Oñatiko XXII. duatloirako izena emateko epea zabalik

J.D. | OÑATI

Datorren martxoaren 16an jokaturako dute Oñatiko XXII. duatloia. Aurten ere Oñatiko Triatloi taldekoek frogatzea hau antolatzeari ekin diote eta pasa den otsailaren 19an zabaldu zuten parte hartzeke izen emate epea. Berau zabalik egongo da 450 parte hartzaileen kopurua gainditu arte edo frogaren eguna heldu arte.

Izena Euskadiko Triatloi federazioaren webgunean eman behar da, eta horretarako, Triatloi federazioaren lizentzia eguneratua izatea beharrezkoa dela azpimarratu dute antolatzaileek. Internet bidez izena emanez gero, parte hartzaileek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan zenbakirik balego, 45 euro ordaindu beharko dituzte.

Korrika eta bizikletan

XXII. edizioko ibilbideak 55 kilometro izango ditu, eta hiru zati ezberdinetan banatuta egongo da lasterketa. Hasteko, parte hartzaileek 10 kilometro korrika egin beharko dituzte herri barruko zirkuituan; ondoren, bizikleta gainean, beste 40 kilometro egingo dituzte; eta, amaitzeko, beste 5 kilometro korritu beharko dituzte herriko zirkuituan.

Dagoeneko, 63 parte hartzailek eman dute izena, tartean Santander edo Oviedoko korrikalariak.

GIMNASIA ERRITMIKOIA

Emaitza onak lortu zituzten zapatuko txapelketan Arrasateko Dragoi Taldekoek

Leire Ugartek laugarren postua lortu zuen uztaiarekin banakako txapelketan

M.G.J.D. | ARRASATE

Gimnasia Erritmikoko eskolarteko lehen mailako bigarren fasea jokatu zen zapatuan Uarkapen. Goizeko 10:00etan hasita, egun osoan zehar gimnasta ugari aritu ziren lehian. Tartean, Arrasate Dragoi Taldeko edo Bergarako Ariznoa Taldekoak.

Eguraldi kaxkarra alde batera utzi eta kolore eta distiraz jantzi zen Uarkapeko pilotalekua zapatuan eta gimnastek azken asteetan egindako lana tapiz gainean erakutsi zuten.

Balorazio positiboa

Gimnasia erritmikoa jarraitzaileak badituela argi geratu zen zapatuan. Goizeko txapelketan, eta batez ere arratsaldeko benjamin mailako gimnasten erakustaldian ikusle asko batu ziren Uarkapeko pilotalekuan.



Arrasateko Dragoi taldekoak. | JAGOBA DOMINGO

Aipatzekoa da Leire Ugartek lortu zuen laugarren postua. Infantilen bakarkako mailan uztaiarekin lortu zuen postu hau, eta Arrasateko Dragoi taldekoek

bosgarren eta zazpigarren postua lortu zuten.


Hitzorduan, Bergarako, Tolosako, Eibarreko edota Ordiziako gimnastak hartu zuten parte.



Gimnasta bat tapizean, entrenatzailearen begidara. | JAGOBA DOMINGO



Gimnastak beroketa ariketak egiten. | JAGOBA DOMINGO



Aloña Mendiko txirrindularitza saileko kideak zapatuko aurkezpenan. | IMANOL SORIANO

Denboraldi berrirako Aloña Mendiko txirrindulariak prest

- ▶ Denboraldi honetan arituko diren 27 txirrindulariak aurkeztu dituzte
- ▶ Oñatiko 5 txirrindularik beste talde batzuetan egingo dute denboraldia

ANDER MONEDERO | OÑATI

Aloña Mendi kirol elkarteko txirrindularitza sailak denboraldi honetan arituko diren 27 txirrindulariak aurkeztu zituen zapatu goizean Oñatiko Etxe Aundi jate-txean. 27 ziklistak sei maila berdinetan arituko dira, horietatik 23 Oñatiko taldeak dituen lau mailetako taldeetan: alebinak, benjaminak, infantilak eta kadeteak. Beste lau txirrindulariak, junior eta 23 urtez apizko mailatan arituko direnak, beste talde batzuetan utzita arituko dira. Horrela, junior mailako Iker Alberdi eta Mikel Fernandez Bergarako Sumofic-Igartua taldean lehiatuko dira; Iñaki Mugarza, Kanpanzar Harrobian arituko da, eta, Aitor Umerez, berriz, EKI-Gipuzkoa taldean.

Aloña Mendiko ziklismo sailak ezin izan du azken bi maila hauetan taldea osatu eta gazteak txirrindularitzan jarraitzeko erraztasuna emateko, bere txirrindulariei beste talde batzuetan lehiatzeko aukera eman die.

Talde lehiakorra osatu dute

Aloña Mendiko ordezkariek ilusioz hartu dute denboraldi berria; izan ere, txirrindulariek lasterketa bat edo beste irabazteko aukera dituztela uste baitute. Hori bai, taldearen lehenengo helburua gazteak txirrindularitzaz gozatzea dela adierazi zuten.



Aloña Mendiko infantil taldea. | IMANOL SORIANO

KEPA UMEREZ | LEHENDAKARI ORDEA

"Maila ona emango dutela uste dut"

Denboraldia hasteko ilusioz agertu da Kepa Umerez.

Nola ikusten dituzu taldeak?

Ondo, batez ere kadete mailakoak. Zazpi ziklista ditugu eta maila ona emango dutela uste dut.

Aurten lau txirrindulari inguruko beste talde batzuetan arituko dira. Zergatik?



Taldea osatzeko ziklistarik ez genduz beste batzuetara bidali ditugu. Txirrindularitzan jarraitzeko erraztasun emateko helburuarekin.

Txirrindularientzat aldaketa handia da?

Bai, mailaz aldatzearekin batera zailtasunak gora egiten du, gus-tura jarraitzea da garrantzitsua.

Ruiz de Azuak junior mailako marka berdintzea lortu du

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Atzo, Donostiako belodromoan jokaturako Gipuzkoako txapelketan, Malen Ruiz de Azua arrasatearrak pertikarekin 4 metroko jauzia eginda, Espainiako junior mailako marka berdintzea lortu du. Horrela, atleta arrasatearrak 1998an Mar Sanchezek lortutako marka berdintzea lortu du. Marka horri esker, Ruiz de Azuak txapelketako bigarren postua eskuratu zuen.

Naroa Agirre atleta beteteranoa izan zen pertika frogaren irabazlea. Donostiarrak 4'1 metroko

jauzia egitea lortu zuen, arrasatearrak baino 10 zentrimetro gehiago.

Dapena eta Perez aurrean

Arrasateko taldeko gizonetako ere, irudi bikaina eman zuten Gipuzkoako txapelketan. Istar Dapenak eskuratu zuen 4.4 metroko jauzia egin eta urrezko domina lortu zuen eta Jonathan Perezek min hartu eta ezin izan zuen froga bukatu, ala ere bigarren postuan eskuratu zuen.



Malen Ruiz de Azua bere azken marka berriarekin. | JONATHAN PEREZ

BORROKA LIBREA

Maider Unda | Borroka libreko kirolaria

"NBOk borroka librea Joko Olinpiarretatik baztertu nahi izatea sinesgaitza dirudi"

- ▶ Nazioarteko Batzorde Olinpiarreko 15 kidek bazterketaren alde bozkatu dute
- ▶ Behin-behineko erabakia Buenos Airesen irailean izango den saioan hartuko dute

MAITE FRAILE | ARAMAIO

NBOko batzorde exekutiboak borroka librea 2020an programa olinpiarretik baztertu nahi duela ezagutarazi du. Erabaki honek borroka libreko kirol elkarte eta FILAko (Federazio Internazionala) kideen artean zenbait protesta eta errefus sorrarazi ditu. Borroka Joko Olinpiarretan egoten jarrai dezan, milaka pertsona mobilizatu dira; Indiako gobernuak beste herrialde batzuei laguntza eskatuko diela esanez, eta baita kirolari eta borroka libreko jarraitzaile asko ere. Maidar Unda olerarra 9 urte zituenetik kirol honetan diharduen kirolari sutsua da, eta harekin izan gara gaiari buruzko iritzia jakiteko.

Zer iruditzen zaizu Nazioarteko Batzorde Olinpiarrek kirol minoritario hau baztertu nahi izateak?

Egia esan, oraindik ez dut sinisten berri hau egia izan daitekeenik, sinesgaitza dirudi. Erabakia politikoa izan da, baina oraindik ez da behin-behinekoa, irailera arte gauzak asko alda daitezke, eta hori espero dut.

Kirol honek Joko Olinpiarretan egoten jarrai dezan, Espainiako Federazioak neurriren bat hartzea pentsatu al du?

Benetan indarra egin behar den lekua eta azken erabakia hartuko duena Nazioarteko Batzorde Olinpiarra da. Espainiako Federazioak komunikatuak soilik helaraziko dizkigu kirolariei, baina azken erabakia Nazioarteko Batzorde Olinpiarrek izango du. Momentuz, lehenengo neurria FILAko presidentea kanporatzea izan da.

2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpiarretan, beraz, helburu bikoitza izango duzu. Zure ibilbide profesionaleko erronka nagusia izango al da?

Gure kirolean erronka nagusia Olinpiada batzuetan egotea da, eta, lehenengo, hor egoteko sailkatu egin behar da. Bidea ez da erraza izan, eta aurrerantzean, ezta ere, baina nire asmoa hor egotea da, lehen mailan. Bestalde, ez dut uste borroka librea Joko Olinpiarretatik baztertuko dutenik, eta, hala izaten bada, nik neuk borroka praktikatzeko jarraituko dut.

Zer sentitu duzu 72 kiloko kategorian 13 aldiz Espainiako txapeldun izanda?

Oso pozik sentitzen naiz, 13 aldiz ez du nesketako sailkapenean inork lortu. Esan beharra dago lehenengo aldiz Espainiako txapeldun izan nintzenez justu-justu geratu nintzela. Urteak pasa

ahala, lehiaketetako txapeldun izatea nire bizitzako etapa bat soilik izan da. Nire buruari txapelketetako lehenengo lerroan egotea besterik ez diot eskatzen.

Eta saririk gorena, brontzezko domina Londresko Joko Olinpiarretan?

Londreskoa bizitza osoan amestu izan dudana gaia da. Badirudi ezinezkoa dela, bizitza osoan amesturiko gauza dela... baina amets bat egia bihurtzen denean izugarritzko poza da.

Txapelketei dagokionez, Suedian izan den Klippan Lady Openetik itzuli zara eta brontzezko beste domina bat irabazi duzu. Zer nolakoa izan zen garaipena? Espero zenuen?

Txapelketa batean, eta urtea hasten denean, beti daukazu beldurra nola egongo zaren, baina bai gustura sentitu naiz eta domina lortzea nire helburua zen. Pozik nago lorturiko brontzezko dominarekin.

Bestalde, datorren otsailaren 23-24an Murtzian Espainiako txapelketa jokatuko da. Zelan doaz aurre-prestatetako? Zelan zaude fisikoki? Beste domina bat lortzeko prest?

Domina soilik ez, nire helburua urrezko domina lortzea da; 14.a, hain zuzen. Domina beti da helburu, baina helburu nagusia Europako lehiaketa da. Txapelketei nire burua entrenatzeko eta fisikoki zein psikikoki zelan nagoen ikusteko balio dute. Okerrena pisua eman behar dudala da, 72 kilo urtean lehenengo aldiz da eta gehien kostatzen zaidana. Horregatik, nire lehenengo txapelketa pisuarekin hasten da. Fisikoki ongi nago, egunean hiru orduz aritzen naiz entrenatzen, Gasteizko gimnasioan borroka egiten dut eta nire etxean prestatzen naiz korrika eta pesak eginez.

Rio de Janeiroko Joko Olinpiarretarako ia lau urte falta dira oraindik, baina bazabiltza ordurako entrenatzen?

Oraindik denbora luzea falta da. Ordurako entrenatzen baino gehiago, zaindu egin behar da. Lehenengo bi urteetan pisuari dagokionez zaintzen saiatzen naiz eta ondorengo bi urteetan, fisikoki eta psikikoki prestatzen naiz Olinpiadei begira.

Europa mailan borroka libreko beste zenbait lehiaketa daude finkaturik. Denetan parte hartzeko asmorik badaukazu? Zeintzuetan?

Aste bukaera honetan Murtzian



Maidar Unda, Londresen lortutako brontzezko dominarekin. | MAITE FRAILE

izango den Espainiako txapelketaz aparte, nire lehendabiziko helburua martxoaren 21ean Georgiako hiriburuan, Tiflisen, jokatuko den Europako Txapelketa da. Ondoren, 2-3 asteko oporraldia hartuko dut, eta gero, ekainaren amaieran Mediterraneoan jokatuko diren jokoetarako prestatzen hasiko naiz. Dena den, maiatzean txapelketaren baten parte hartzen saiatuko naiz.

Hainbeste lehiaketa eta Joko Olinpiarretako aurre-prestatetako ondorioz, zure amatasunaren plana atzeratu egingo al duzu?

Bai, noski. Amatasunaren plana atzeratu egingo dut. Joko Olinpiarretan parte hartu baino lehenago ama izatea pentsatu nuen, baina oraintxe bertan, kirolean gustura nago eta ez da erabaki hori hartzeko momentua. Une honetan, kirolarekin asko ari naiz gozatzen.

Bateragarria al da ama izatea eta borroka librean lehenengo mailan aritzea?

Kirol hau praktikatzeko duten artean badaude ama ugari, baina ez da erraza bizimodu hori eramatea. Entrenatzeak ez du denbora luzerik kentzen, arazoa edo zailena kanpoko lehiaketetara joatean asteak eta hilabeteak igarotzen datza.

Bizitza entrenigarria daramazu. Zelan moldatzen zara zure baserri bizimoduarekin eta borroka librean entrenatzeko?

Baserrian jaio naiz. Ahal dudanean etxean lan egiten dut eta kanpora noanean nire ahizpa aritzen da baserriko lanetan. Gogoko dut baserri mundua; ardiekin ibiltzea, gazta egitea, gazta saltzea... Kirola ez dut bizi goiz, arratsalde eta gauez, nik beste bizitza bat ere behar dut.

Zu jaiotako inguruak eragina al dauka borrokan aritzeko aukeraketan?

Ez, baserri giroak ez nau bultzatu. Nire aukeraketan eragina izan zuen pertsona gizonezko bat izan zen. 9 urte nituela, gizonezko borrokalari bat etorri zen ikastolara bisitan, eta ordutik daukat zaletasuna.

Zer sentitu zenuen Londresko brontzezko domina eskuratu berri albiste hau jakin eta gero?

Bai kanpotik zein barnetik kirol hau bizi duenak ezin du ulertu. Aho zabalik, harrituta geratu nintzen, baina ez dut uste borroka librea 2020ko Olinpiadetatik kanpo geratuko denik, asko dago ikusteko.

"NBOk erabakitzen duenak ez nau baldintzatuko nire kirol ibilbidean"

"Oso pozik nago orain arte lorturiko lorpenekin, eta gehiago espero dut"

"Gogor entrenatzen naiz, baina orain nire ardura bakarra pisua zaintzea da"

"Ama izan nahi dut, baina ez orain, kirolaz gozatzen ari bainaiz"



Neskatila margotuta eta margotzen. | ADNI

Zaletasunak sustatzeko ezagutu egin behar ditugu

Seme-alaben zaletasunak identifikatzeko denbora eman behar da eurekin

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Haur bakoitzak bere zaletasunak ditu; bere gustuko afizioak. Guraso moduan badakigu zaletasun horiek identifikatzen? Nola susta daitezke? Sara Tarres psikologoaren artikulua —gazteleraz— dugu asteon irakurgai *Guraso.com* atarian.

Tarresek dio haur batzuk oso goiztiarrak direla euren afizioak edo zaletasunak erakusten. Txiki-txikitatik antzematen zaie

kirola duten gustuko, margotzea, musika... Tarresek ohartarazten du, ordea, ez dela beti hain agerikoa. "Guraso batzuk desmoralizatu egiten dira", dio. "Jakin behar dute helburua ez dela gure seme-alabak txikitatik jenio bihurtzea. Haurrak gidatu egin behar ditugu euren abileziak edo interes pertsonalak gara ditzaten. Hala, gurasoen egitekoa da aukerak eskaintzea eta haurrek gustukoak dituzten zaletasunak

sustatzea, ahal den neurrian baliabideak emanda. Akaso, zaletasun bat baino gehiago izango ditu gure seme-alabak, eta hori ere oso positiboa da", esan du.

Psikologoak uste du gurasoek denbora luzeagoa eman behar dutela seme-alabekin. "Laster konturatuko gara zeintzuk diren haren interesa pizten duten jokoak edo ekintzak, eta interes edo zaletasun horiek sustatzen edo deza-kegu ahalegina".

Jaioberrien negarra ulertzeko ikerketa berria egin dute

L.Z. | ARRASATE

Unedeko eta Valentziako unibertsitateko zientzialariek egin dute ikerketa 3-18 hilabeteko hogeai jaioberri lagin moduan hartuta, eta ondorioak *Spanish Journal of Psychology* aldizkarian argitaratu dituzte. Ikerketaren abiapuntua izan da jaioberriek, nagusiki, lau arrazoirengatik egiten dutela negar: gosea, mina, haserre eta beldurra. Ikerlariak konturatu dira, baita ere, guraso berrien zailtasun handiena haserrearen eta beldurraren artean desberdintzea dela. Minaren negarrak, aldiz, gurasoen berehalako arreta lortzen duela identifikatu dute. Ez dela kasualitatea diote; berezkoa dugula. Eta guraso berriei laguntzeko ikerketaren zenbait ondorio ere eman dituzte aditzera.

Minaren negarra

Ikerlariak konturatu dira haur gehienek itxita ditzutela begiak, indarrez ixten ditzutela, gainera, eta zabalitzen badituzte oso gutxi zabalitzen ditzutela. Negarra ere hasieratik da oso bizia, eta bat-batekoa.

Beldurraren negarra

Jaioberriak begiak zabalik ditzutela egiten du negar, eta burua alde batera eta bestera mugitzen du. Negarra, gainera, bapatean hasten da, eta intentsitate oso handikoa da.

Haserrearen negarra

Haserretuta negar egiterakoan jaioberri gehienek begiak zabalik edo erdi zabalik ditzuzte, eta berdina gertatzen da ahoarekin. Negarraren intentsitatea, berriz, handitzen doa.



Jaioberria negarrez. | AVODROCC

Hezkuntza eragileek LOMCE legearen aurkako idatzia egin, eta mobilizazioak iragarri dituzte

L.Z. | ARRASATE

Hainbat hezkuntza-eragilek LOMCE legearen kontrako manifestu bat gizarteratu dute, eta publiko egin dituzte erreformari buruz dituzten balorazioak eta kritikak ikuspuntu desberdinetatik; eskumen politikoak, hezkuntzari dagozkionak, hizkuntzaren arlokoak, arlo sozialekoak, ideologikoak... "LOMCEren helburuak (...) ez dira egokitzen gure errealitatera", adierazi dute. Lege berriak euskara bigarren mailako hizkuntza bihurtzen duela, ikastetxeen autonomia murrizten duela, eta hezkuntza eredu eta irizpide baztertzailak sustatzen dituela salatzen dute. "Eskola inklusiboa, konpentsatzailea eta integrazatzailea" defendatzen dute eta adierazi dute: "LOMCEk ez du ikasle guztien eskola emaitzen

aurrerapena bultzatzeko hobe-kuntza proposamenik eta planik ahalbideratzen".

Mobilizatzeko deia

Manifestuaren sinatzaileen artean daude, besteak beste, Ikastolen Elkarte, Ehige, Erkide irakas-kuntza, Sortzen-Ikasbatuaz, Kristau Eskola, Ikasle Abertzaleak, CC.OO., Kontseilua, edo Hik Hasi. Erreforma dela-eta eta nor bere ikastetxe eta guraso elkartearen ekimenetara batzeko dei egin dute, eta jakinarazi dute *Euskal Herrian Geure Hezkuntza! Murrizketarik ez! LOMCE ez!* lelopean LOMCEren aurka manifestazioak deitu ditzutela martxoaren 2rako, zapatua, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan: 17:30ean Iruñean, Bilbon eta Donostian; eta 19:00etan Gasteizen.

Eskolaren funtzioa gizarte parekide baten eraikuntzan

L.Z. | ARRASATE

Pilar Aristizabal da Hik Hasi aldizkariaren azken aleko protagonistetako bat. Gasteizko Irakasle Eskolako zuzendaritza taldeko kidea da, eta berriki aurkeztutako tesian ikasle eta irakasleek berdintasuna nola hautematen duten aztertu du. Asko dagoela egiteko ondorioztatu du: irakasleen formazioaren generoko edukiak sartzea, hezikidetzaren batzordeak sortzea, ikasgela eta patioetan behaketa lana egitea... "Behaketak berak erakutsiko digu bidea", dio Aristizabalek. "Eskolak garrantzia handia du generoaren eraikuntzan".

Ikasleak eta irakasleak

Ikasleek berdintasunaz duten pertzepzioa aztertu du tesian, eta dio: "Ikasle gehienek gain-

dituztat ikusten dute auzia. Gaur egun hezkuntzan gai hau planteatzea lekuz kanpo dagoela iruditzen zaie. Emakumeen eta gizonen artean ez dago desberdintasunik, haien iritziz".

Tesian jaso duenez, bestalde, irakasleek ez dute gaia gaindi-

tuztat ikusten, eta nabarmendu dituzte talde-lanetan neskek hartzen dituzten zereginak, patio orduan ematen den banaketa, aukeratzen dituzten titulazioak... www.ehu.es/argitalpenak atarian irakur liteke Aristizabalen tesia osorik.



Haurrak futbolekin. | M. MARTIN VICENTE



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

Bertsoera helduenaz, Manex Agirre, herrian irabazle nabarmen

Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu aramaiorrei nekezago egin zitzaien saioa

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU | ARAMAIO
Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalurrekoa bukatzerako argi zen irabazle nor izango zen, epaileek ezusteko handirik emango ez bazuten. Manex Agirre aramaiorria gainontzekoen gainetik jardun zen nabarmen egin beharreko lan denetan. Plazaz plaza heldutako bertsoera eta esperientzia erakutsi zituen, eta orain arte Arabako txapelketan entzun den bertsoerarik helduena izan zen egungo txapeldunarena. Herrian irabazita, martxoaren 16ko finalean izango da, Gasteizko Principal Antzokian.

Heldutasunak eta ibilbideak saioan zehar egindako akats tekniko gutxiak ezkatzen lagundu zioten Agirrerri. Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu beste bi aramaiorriak larriago ibili ziren akatsak disimulatzen, eta nabarmen erakutsi zituzten nahasketek saioa trakestu zien. Hala ere, Arriolabengoa bide zuzenetik abiatu zuen saioa zortziko handian, eta Amilburuk kartzelako bakarkakoan ordura arte egindakoa txukundu zuen. Larun-

batean jokatu den azken finalurrekoaren faltan, saioan zehar zuzenetik egindakoak finalerako behin behinean sailkatuta izateko balio dio Arriolabengoiari. Bera da finalera puntuengatik sailkatuko diren finalurrekoetako hiru onenen zerrendan azkena.

Agirrez, Arriolabengoa eta Amilburuz aparte, Ander Solozabal, Unai Mendibil eta Zigor Enbeita aritu ziren Aramaioko kultur etxean 125 lagun ingururen aurrean. Arriolabengoa eta Amilburu baino estuago aritu ziren Mendibil eta Enbeita, eta entzuleen barruak hainbatetan uzkuritu zituzten zurialdiekin eta doinu nahasketekin. Solozabalek poto bat eta akats teknikorik eginagatik, emanda ibili zen bertsoen defentsan, eta bai ofiziotan, bai kartzelako bakarkakoan emaitza ona eman zion ahaleginak.

Moja eta basozaina

Ofizioetako azken lanean, hamarreko txikikoan, egin zuten Agirre eta Solozabalek saioko ofiziorik onena. Konbentu bateko basozaina izango zen Solozabal,

eta konbentu hartako moja Agirre. Bien artean geroz eta *feeling* handiagoa sentitzen ariko ziren. Asmatu zuten gaiaren testuinguruak eskainitako erreferentziak baliatzen. Hala, bere lehen bertsoaren bukaeran, "baina tilin bat daukat / albotik zintuna / nire ondoan bada / entzu izu laguna / lorategi bat jada / sasiak jan duna", bota zuen Agirrek. Solozabalek ere artez baliatu zuen gaia: "Nahiz Jaungoikoarekin / eiten duzun hegaz / ortura ekartzen zaitut / ta, gainera, erraz / baina beste esanahi bat / dauka honek erderaz". Bertsoaldiaren azkenera arte eutsi zioten entzuleek eskertu zuten umoreari. "Nere ondora etorri / ta jardun jo ta su / ta ni horren bero / baldin banaukazu / Madre Superiora / imajina zazu", borobildu zuen demako azken ariketa Agirrek.

Kartzelako lanean, lehen puntua emanda bi bertso osatzekoan baino trebeago aritu ziren gaia emanda bi bertso osatzen aramaiorriak. "Goitik behera eta behetik gora irakurri duzu zerren-

da, baina ez zara bertan agertzen", izan zuten gaia. Doinu berria estreinatu zuen Agirre azken lan puntuagarri horretan ere gainetik aritu zen. EREan zen enpresa bateko langilea zen aukeratu zuen bidean. "Irakurrita konturatu naiz / ni bertan ez nagoena; / nahiz eta lana ez den neretzat / gauza inportanteena / halako lasaitu olde batek / hartu dit nere barrena", bukatu zuen lehen bertsoa. Kaleratutakoekiko elkartasunez bukatu zuen lana: "Lasaitasuna dut orain, baina / urduria da geroa. / Nola eskertu egingo duten / maitasuna ta beroa / botatzear dauden lankideekin / kontzentrazioa noa".

"Hispanicas" ikastera Argentinara joateko aukera barik geratu zuen Amilburu. "Listan ez dago nire izena / ta hara, zer sorpresa / zapuztu didate Argentinara / joateko nuen ametsa", atsekabea adieraziz bukatu zuen lehen bertsoa. Atsekabe horrek, ordea, ez zuen erreko. Umorearekin indartu zuen bertsoaldia saioko azken aukeran: "Beste leku batera joango naiz / hori ez da nire kezka / ezin naiz ni orain jarri / kontu honekin erreta / Salamancara joango naiz ni / han juerga dago -eta".

Egin beharrekoa zehazteko denbora lartxo baliatu zuen Arriolabengoa pentsatzen, baina emaitzan lagundu zion aurrez hartutako denborak. Oposaketak egin ostean ez zen egongo bere izena aukeratuen artean, hark besterik espero zuen arren: "Uste bainuen nik azkenean / 'Ai, ez zait lanik faltako'. / Buru-belarri aritua naiz / liburu artean, bapo; / hilabetetan eindako lanak / ez du balio ezertako". Arriolabengoa Amilburuk egin bezala mezu baikorrarekin bukatu zuen bere kontaketa. "Nire izena ez zen agertzen / akabo nire algara / kalean nago ezertxo gabe / eta ze nolako traba / penak hartuta



Manex Agirre hasierako agurra kantatzen. | I.S.

berriz banoa / ni Inemeko kolara", bukatu zuen ariketa.

Finala zehaztuko duen azken finalurrekoa larunbatean jokatu da Dulantzin. Agirre bezala, Asier Otamendi ere zuzenean sailkatuta dago finalerako aurreko astean Izarran jokatu zen lehen finalurrekoa irabazi zuelako. Dulantziko irabazlea ere zuzenean sailkatuko da finalerako. Hiru finalurrekoetako irabazleez gainera, behin-behinean, finalurrekoetako hiru puntuaketa onenen artean daudelako Serapio Lopez lehen finalurrekotik eta Ander Solozabal Aramaiokotik daude sailkatuta.

"Aho biko ezpata da txapeldun izatea"

Finalurrekoa irabazteko faboritua zen Manex Agirre; hala ere, bukatu arte bertsoa bat-bateko jarduna izanik, ezin ezer espero: "Ez dakizu zelan etorriko zaizun eguna, gaiak, ondokoak zer kantatuko duen...". Finalurrekoa irabazita "gustura" zen guztia "ondo" irten zelako. Andere Arriolabengoa Agirrek bezalatsu bukatu zuen finalurrekoa, "gustura"; nahiz eta hasierako urduritasunak irudipena lausotu. "Hasieran urduri hasi naiz, eta egia esan saio guztian ideiez eta oso eskas ibili naiz, buruak ez zidan ematen", zioen saioaren ostean. "Trabatuta" aritu zen Paula Amilburuk gurago zuen saioaz berbarik ez egitea, eta larunbatekoa ahaztea. "Krisi" batzuk izan zituen aurreko astean zehar bertsolaritzarekin, eta "behintzat aurrera joan da eta listo", egin zuen hausnarketa.

Arabako Bertsolari Txapelketako finalurrekoetan, etxean, euren herrian, saio berean kantatzea egokitu zitzaizkien hirurei. Arriolabengoa irudiz ez zuen horrek "kontrara" jokatu: "Alderantziz: egotea etxekoak, lagunak eta ezagutzen duzun jendea zu babesten beti eskertzekoa da, eta lagundu egiten du".

Martxoaren 16an Gasteizko Principal antzokian jokatu den finalari begira, betiko erantzuna datorkio lehendabizi egungo txapeldunari, "sei joango gara finalera, eta denok joango gara aukera berdinarekin". Orain arte ez du finalaz pentsatu: "Finalurrekoa izan dut bakarrik buruan. Txapelketan nik uste dut mailaz maila joan behar dela. Esperantza sortzen baduzu zuregan, kolpea jaso zenezake. Hemendik aurrera hasi beharko naiz pentsatzen". Ariketa horretan jarrita finalera egungo txapeldun izanda joateari "aho biko ezpata" dela irizten dio: "Txapelak segurtasuna



Paula Amilburu, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa saio ostean. | IMANOL SORIANO

ematen dizu, baina txapela ere galtzeko badaukazu. 16an Principalera sei lagun joango gara eta bostek orain dela bi urteko txapelik ez dute edukiko, eta joango dira seguruena gogo handiarekin". Bera ere "gogo handiarekin" joango da, baina baita "agian, presio puntu horrekin" ere. "Berde samar" ikusten du finala, momentuz.

Ez dator Agirrek finalaren gainean adierazitakoez bat Arriolabengoa. "Berak gura duena esango du, baina guk Manexengan konfiantza osoa dugu, eta badakigu txapela osterira irabazten ez badu ere, saio ona egingo duela", hartu zuen berba ondotik, eta gaineratu zuen, emaitza txapela izan ala ez izan eurak "harro" sentituko zirela Agirretaz. Herrikide eta bertsokidearengandik jasotako loreak umorez eskertu zituen Agirrek, eta, aurretik finalera begira oraindik urduritasunik ez zuela esan bazuen, "orain jada urduri nago", erantzun zion Arriolabengoaen loreei.

'PEDRO ETA OTSOA' | Amaia antzokia bete egin zen musikalean | 32



SAILKAPENAK

FINALAURREKOA

- | | |
|---------------------|-------|
| 1. M. Agirre | 354 |
| 2. A. Solozabal | 291,5 |
| 3. A. Arriolabengoa | 289 |
| 4. P. Amilburu | 286,5 |
| 5. U. Mendibil | 281,5 |
| 6. Z. Enbeita | 280,5 |

FINALISTAK*

- | | |
|---------------------|-------|
| 1. M. Agirre | 354 |
| 2. A. Otamendi | 328 |
| 3. S. Lopez | 301,5 |
| 4. A. Solozabal | 291,5 |
| 5. A. Arriolabengoa | 289 |


*BEHIN-BEHINEAN

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

**Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.
Zatoz eta informa zaitez!**



Dani Mateok amaiera bikaina eman dio Elgetako Monologo Mostrari

Elurak elur, Espaloia goraino bete du bi saioetan

TXOMIN MADINA | ELGETA

Elgetako I. Monologo Mostrak azken asteburua izan du hau. Eta lehenengo edizioa amaitzeko ez dute edonolako gonbidatua aukeratu: Dani Mateo ezaguna.

PK 2.0: Que dios nos pille confesados izenburupean Mateok eskaintako bi saioek gainera ikusmin handia piztu zuten: Elgeta apurka apurka zuritzen ari zela goraino bete zen Espaloia. Eta Mateok ez zuen hutsik egin. Zer egin mundua amaitzen denean? Zeintzuk dira erlijio ezberdinek hil osterako planteatzen dituzten aukerak? Galdera horiei erantzuna eman zien monologoaren lehenengo zatian, eta sinesmen nagu-

siei atera zien punta: budismoari, islamari eta kristautasunari.

Zazpi bekatu nagusiak ere hartu zituen hizpide, guztiengatik, era kolektiboan, barkamena eskatuaz (alferkerian eta lukurrerian ez zuen sakondu, ironikoki azaldu zuenez gurean ez direlako asko ematen). Etengabeak izan ziren gaurkotasun, bikote harreman eta eguneroko gaiei egindako erreferentziak; Mateo gainera, ez zen ahaztu non zegoen, eta euskaldunok ere jaso genuen gurea (sexu faltaren inguruan, nola ez!).


Bizia eta zuzena

Umore bizia, zuzena erakutsi zuen Mateok; baita neurri baten, bisua-

la ere: agertoki biluzian bakarrik egon arren keinuek, mugimenduek zein jarririk aurpegiak kontatzen ari zena primeran irudikatzen laguntzen zuten. Eta ikusleekin ere lehenengo momentutik ezarri zuen harreman zuzena, monologo baten zer egin behar den eta zer ez azaldu zuenean.

Balorazio positiboa

Espaloitik Monologo Mostraren lehen edizioaren balorazio positiboa egiten dute, eta azpimarratu izen ezagunak eta kalitatea, biak uztartu dituztela. Hilabetean 3.000 lagunetik gora pasa dira Espaloitik, tartean Peter Pan musikala ikustera joandakoak.



Dani Mateoren monologoko une bat. | IMANOL SORIANO

Bergaran ere monologoak

Egubakoitz gauean, Realaren eta Athletikeren arteko derbia jokoan zegoen bitartean, Zuhaitz Gurrutxaga futbolariak eta Realeko jokalariei ohiko *Confidencias de un futbolista* ikuskizuna eskaini zuen Bergarako Zabalotegi aretoan. Elgoibartarrak, ikuskizunaren izenburuak azaltzen duen moduan, bere futbol ibilbidean bizi izandako anekdotak kontatu zituzten bertaratu ziren ikusleei, umore askorekin eta tarteka bere gitarraren laguntzarekin.



Zuhaitz Gurrutxaga Zabalotegin. | IMANOL SORIANO

DANI MATEO | UMORISTA ETA KAZETARIA

"Ez dugu esaten jendeak dagoeneko pentsatzen ez duen ezer"

Nola ikusi duzu publikoa?

Oso ondo, kontutan hartuta, modu literal baten, botatzen ari dena. Izan ere, hau gaur ez da Elgeta, Narnia baizik. Bete egin da, eta jendeak gozatu du: horrek erakusten du jendeak benetan nahi duena barre egitea dela.

Askotariko gaiak ukitu dituzu.

Denagatik egin daiteke barre?

Akaso ez, baina nik hori egiten dut; barrea ondo datorkit terapia moduan. Bizitzan dagoen guztia ikusita, nola ez dugu, bada, horren kontura barre

egingo? Horixe falta zitzaigun: bizitzeko eskatzea, baina ez barre egitea.

Zer dute monologoek jendea erakartzeko?

Ez dugula esaten jendeak dagoeneko pentsatzen ez duen ezer. Hobeto edo beste era batera esan dezakegu, baina jendeak bere egunerokoa pentsatzen duenaz berba egiten dugu. Guztioi arduratzen gaituzten gauzen inguruan batera barre egiten dugu.

Amaia Antzokia ia topera 'Pedro eta Otsoa' ikusteko

Etxeko txikienek ederki gozatu zuten Arrasate Musikalek prestatutako ikuskizun bereziarekin

TXOMIN MADINA | ARRASATE


Musika, ipuin kontaketa eta marrazketa uztartu zituen atzo Arrasate Musikalek eskaini zuen *Pedro eta otsoa* ikuskizunak. Nahasketa berezia, eta interesa piztu zuena: berau ikustera joandako haur eta helduek ia goraino bete zuten Amaia Antzokia

Errusiar ipuin tradizional bat oinarri duen Sergei Prokofiev-ek idatzitako partitura abiapuntu hartuta prestatutako ikuskizuna izan zen. Julu Lopezek ipuina hitzez kontatzen zuen

bitartean, Arrasate Musikalekoek musikarekin irudikatzen zituzten ipuineko pertsonaiak. hala, pertsonaia bakoitzak bere doinua eta instrumentua izan zituen: Pedro, esaterako, klarinetean doinu alaiak interpretatu zituen; otsoa, aldiz, tronpa, tronboi eta tronpetek.

Marrazkilaria zuzenean

Arestian esan bezala, musika eta hitzei marrazketa ere batu zitzaion: Oier Balbas gazteak ipuinean kontatutakoak jasotzen zituen



Oier Balbasek marrazkiekin lagundu zuen musikala. | JOSETXO ARANTZABAL

marrazkitan, eta ikusleek antzokiko pantaila erraldoian jarraitu ahal izan zituzten marrazkiok. "Ez da lan erreza marrazkiak egin eta era berean partitura jarraitzea, eta urduri nengoen horregatik, baina azkenean gus-

tura geratu naiz" zioen behin lana amaitutakoan margolari gazteak.

Ikuskizunak izandako arrakasta ikusita, Arrasate Musikalekoak ere pozik egoteko moduan daude.

IMAREN ETA ERIKA ARRASATE



"Gustatu zaigu ikuskizuna, batez ere marrazkiak eta musika. Ondo jarraitu dugu istorioa, bagenekien-eta instrumentu bakoitza zein pertsonaia zen".

MIREN GARCIA ARRASATE



"Berezia, polita eta motza izan da, umeentzat aproposa. Musika klasikoa batzuetan zaila egin daiteke txikiarentzat, beraz gaurko planteamendua gustatu zait".

GURE MUSIKA TALDEAK

NEALLTA
FOLA

"Ilusio handiarekin gabiltza hurrengo diskoan lanean"

- Madrilgo Riot Kids fanzinearen 10. urteurrena ospatzeko bilduman parte hartu dute
- Kontzertu gutxi eman arren, lokalean buru-belarri lanean dabil Aretxabaletako taldea

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Neallta Fola gurean punk zaleen talde kutunetarikoa bat omen da. Estatus horretara heldu ahal izateko, baina, urte batzuk igaro dira zarata egiten hasi zirenetik, lokalean sartutako ordu asko, elkarrekin bizitako momentu asko eta beste hainbeste garagardo. Taldearen soinu propioa aurkitzea ez da izan egun bateko bidaia, baina gaur egun hain zaila den hori lortu dute; abesti baten lehen akordea entzun orduko, Neallta Fola entzuten ari zarela argi izatea, nortasun propioa izatea.

Kontaguzue taldearen historia.

Guk uste baino luzeagoa da, beti esan dugu taldea 2006an jaio zela, baina oroimenak ez badit huts egiten, 19 urte nituela hasi ginen lehenengoz batera jotzen. Horrek esan nahi du 2002an hautsak astintzen hasi ginela. Hala ere, Neallta Fola-ren lehenengo kontzertua 2006an egin genuen Gernikako Astra gaztetxean. Estreinaldia Doubling Boys eta Porrón y Kuantanueba taldeekin izan zen, azken honetan hain zuzen, Kanuk gure taldeko baxu jotzailak ere jotzen zuen.

Eta ondoren Iraultza etorri zen.

Bai, 2008ko azaroan astebetean grabatu genuen gure lehenengo diskoa Ondarroako Santos estudioan. Iraultzak 2009an ikusi zuen argia, 8 kantu daude bertan eta orduan disko berezia zela sentitzen genuen. Orduan egiten zena-rekin ez zuen zerikusi handirik, berria zela uste genuen eta hilabetez autoan bueltaka egon zen. Gerora, normala den bezala, beste pauso bat emateko joera izan dugu. Hala ere, diskoa kaleratu orduko, *Bardulia Sounds* bilduman *Putakumea* eta *Iraultza* kantuak grabatu genituen. Hauek, ordea, beste bertsio bat dira, *Iraultza* aurretik grabatu genituen Oretan, bilduman parte hartzeko espresuki grabatuak izan ziren. **Jakina da soinu berezia duzuela, nondik atera da?**

Zaila da hori azaltzea, ez da apropos bilaturikoa izan, gure ustez taldearen ezaugarri natural bat izan da. Pertsona askok noiz edo noiz Peter and the Test Tube Babies edo The Templars taldeen antza dugula esan digute, eta gure gustuko taldeak direla ezin dezakegu ukatu. Hala ere, gure helburua ez da izan talde hauek edo beste edozein talderen antzerako musika egitea.

Baina ezin ukatu inguruko taldeekin alderatuz soinu ezberdina lortu duzuela.

Baliteke, esan bezala *Iraultza* diskoa grabatu genuenean soinu freskoa lortu genuela pentsatzen genuen, baina eboluzioa ez da inondik inora gelditu. Soinuaren sekretua edo osagai garrantzitsu bat, kantuei buelta asko ematen diegula da. Hau da, ez gara konformatzen lortzen dugun lehen erritmo edo emaitzarekin. Askotan kantu bat amaitutzat eman eta hilabetera berau berriz hartu eta beste buelta bat ematen diogu.

Beraz kantua grabatu arte arriskuan dago.


Bai, grabatzeko momentua heldu arte abestiek ziklo ezberdinak pasatzen dituzte. Eta soinu ezberdinarekin jarraituz, kantuak akorde minorrekin konposatzeak ere zeresana duela uste dugu. Gure eszenako talde askok kantuak akorde maior-ekin egiten dituzte eta horrela kantuak alaiagoak edo itsaskorragoak dira. Gure abestiek, ordea, puntu triste edo ilunagoa dute. Hori dela-eta, askotan musika zaleei kantuak arraro xamarrak iruditzen zaizkie lehenengo entzunaldian; hala ere, abestia entzun ahala puntua hartu eta gustatu egiten zaizkie.

Zein da Neallta Fola-ren egoera gaur egun?

Momentu honetan kontzertu oso gutxi ematen gabiltza, gure asmoa kantu berriak egitea delako. Datorren hilabeteetan kontzertu pare bat besterik ez ditugu, bat Azpeitian Txarrantxa Rock jaialdian eta besteren bat. Hurrengo diskoa izango denarentzat 8 bat kantu eginda ditugu jada, eta *Iraultza* diskoarekiko aldaketa nabaria egongo dela uste dugu. Kantu berriak beste ildo batetik doaz; alde batetik, azkarragoak eta zuzenagoak dira, ez dira horrenbeste pasarte instrumental egongo; eta bestetik, ordu asko sartzen ditugu kantu bakoitzean. Erritmo ezberdinei, tokeak denok batera emateari edo soinu trinkoa lortzeari garrantzia handia ematen ari gabiltza. Beraz taldearen egoera *stand by* dela esan genezake, oraintxe bertan kontzertuetan baino gure gogo eta ilusioa kantu onak egitean dago.

Orduan disko berria grabatzeko asmoa duzue.

Bai gure asmoa aurten grabatzea da. Posible baldin bada, uda aurre-



Neallta Fola hirukotea. | JAGOBA DOMINGO

tik Nekrosounds estudioa joko dugu bigarren diskoa izango dena grabatzera. Hala ere, oraindik ez dugu datarik zehaztu, momentua heltzen denean sartuko gara estudioan. Oraingoan, 12 edo 14 kantu grabatzea nahiko genuke.

"Gure abestiek puntu triste edo iluna izaten dute askotan"

Orain dela gutxi ere beste bilduma batean parte hartu duzue.

Madrilgo Riot Kids skinzineko bilduman *Problems* kantua sartu dugu. Fanzinearen 10. urteurrena ospatzeko arduradunek bini-lo formatuan disko bat kaleratu nahi zuten eta fanzinean elkar-rrizketa bat egin zigutenez bertan parte hartzea interesatzen zitzagun galdetu eta animatu egin ginen.

Hortaz, taldea kontzertuetan buru-belarri ez egon arren martxan jarraitzen du.

Bai, jakina, orain beste lan batzuetan murgilduta gaude eta entse-

gu lokalean ordu dezente ematen ditugu. Egia esan, nahiko sasoi onean gaude momentuan eta hori jotzen ditugun kontzertu gutxietan igarri egiten da. Gainera, urte hauetan guztietan, instrumentuekin zein oholtza gainean askoz ere erosoago sentitzen gara eta gauzak argiago ditugula esan daiteke.

Orduan, itxaronaldiak bere fruituak emango ditu?

Hala izatea espero dugu, gu gutxienez ilusio handiarekin lanean gabiltza eta hurrengo diskorako barruan dugun onena ateratzen saiatuko gara.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Matiena auzoan pisua salgai. Bizitzensartzeko moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua, hegoaldera begira, denak kanpora ematen du, eta eguzkitsua. Zatoz ikustera, gustatuko zaizu. Prezioa: 199.000 euro. 688-861878.

Abadiño. Matienan pisua salgai. Gela bi, egongela, bainu-gela eta sukaldia. Altzariz hornitua. Berogailua gas naturalarekin. 682 43 93 23 (9:30-13:00 // 15:30-20:00).

Abadiño. Pisua salgai/alokairuan Muntzaritzen. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua, garajea. 94-681 68 91.

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean etxebizitza salgai, errentan emateko aurkerarekin. 70 metro koadro. Bi logelakoa. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajearekin. 679-455762 (Ruben), 664-7490 23 (Naiera).

Arrasate. Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldia, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. 619 18 14 86 edo 665 74 82 43

Arrasate. Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. 80 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. Oso eguzkitsua. Terraza eta balkoiarekin. 162.273 euro. 666-53 95 39 / 696-55 53 67.

Bastida. Bastidan oporetako pisua alokatzen dut piszararekin. Torre-otxandi urbanizazio pribatuaren. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga@hotmail.com.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647-77 73 92.

Durango. Durango San Ignazio auzunean pisua salgai. Gela bikoa, argitsua eta lasaia. Prezioa: 155.000 euro. Deitu 686-21 77 01 telefonora.

Durango. Pisua salgai Durangoko erdigunean (merkatu plazaren ondo-ondoan). Logela bi. Sukaldia eta egongela, bat eginda. Trastelekua. Kontsumo baxuko berogailua. 63 metro karratu inguru. Erreformekin. Etxe oso-osoan kanpora ematen du. Oso argitsua eta eguzkitsua. Lasaia eta polita. 130.000 euro (argazkiak iragarkilaburrak.com eta idealista.com-en), 695-70 24 61.

Eibar. Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Berriztatze. 94-655 05 53.

Eibar. Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldia, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar-hegoaldekoa da. Arroparako espektakia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Tfnoa: 656-78 60 97.

Elorrio. Elorrioren estreinatutako gabeko etxe berria salgai. 2 bainugela, 3 logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. Prezioa: 210.000 euro. 634-45 72 01.

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa. 6.850 m2-ko belardi soroa, nahikola. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazarismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jate-txeak (2) eta bus geltokitik 150 metroara. Durangotik 10 minututa. Ap-8 autopistatik 5 minututa. 639-83 34 89 jo. amantegi@gmail.com.

Iurreta. Pisua salgai Iurretan, Maspe kalean. 633-23 38 48 (Jon).

Iurreta. Pisu bat salgai Ariaurdin, Iurretan. 66.000 euro. 685-72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldia eta egongela. 112m2 azalera eraikitua. Aukera bikaina. 695-77 31 41.

Oñati. Erdigunean 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde guztiz hornitua, egongela, bi logela eta komuna. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 215.000 euro. Garaje itxia, 35 metro koadrokoa, aukeran. 659-72 06 64.

Puerto Rico (Kanariar iriak). Neguan kanariar irletan apartamentu bat alokagai, puerto rico herrian. Bista onak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600-46 44 11.

Santo Domingo de la Calzada (Erioxa). Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. 657-77 26 13.

Zaldibar. Zaldibarren pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldia biltegiarekin eta balkoia. Altzariz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697-28 59 48.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Zarugalden, 60 zenbakian, etxebizitza errentan ematen da. Igogailua, logela bat, bainugela bat, sukaldia eta egongela. 656 75 00 94

Atxondo. Apatan, lau logela, komun bi, egongela eta sukaldia duen pisu berria salgai edo alokairuan. Garajea aukeran. 679-29 08 96.

Durango. Pisu bat alokatzen dugu Durango. 2 logela, 2 komun eta 90 m2-ko terraza. Oso eguzkitsua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637-41 64 38.

Elorrio. Elorrioren estreinatutako gabeko etxe berria alokagai. Bi bainugela, hiru logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. Prezioa 650 euro. 634-45 72 01.

Elorrio. 50 m2-ko atiko berria alokagai Elorrioren. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. 606-04 38 35. loitzate@hotmail.com

Oñati. 60 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komun bat. Igogailuarekin. Deitu arratsaldez mesedez. 651 70 90 53

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. 660-45 87 56.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

104. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Bikotea pisu bila aramaion. Deitu zenbaki honetara: 620-15 13 11.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 400 euro inguru ordain ditzaket. Daniela. 727-74 42 36, 686-07 39 33.

Arrasate. Arrasatear ardurtasua alokairuko etxe bila Arrasaten. 677-48 39 17.

Arrasate. 500-600 euroko pisu biladebagoienan. Presazkoa da. Arduratsua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722-28 84 39.

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan erdigunean. Logela bat edo bikoa. 672-96 08 22.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 638 93 11 48

Bergara. Bergaran etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa. Urgentea da. 608-02 24 69.

Bergara. Bikote euskalduna etxe bila alokairuan, gerra erosteko eskubidearekin. 695-72 55 96.

Iurreta. Baserria alokatu edo erosiko genuke, lur sailekin. Iurretan. 647-44 40 57.

Durangaldea. Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. 665-70 34 08.

105. ETXEA OSATU

Abadiño. Logela bat alokagai Muntzaritzen. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. 653-71 24 67.

Abadiño. Logela bat alokatzen dut Muntzaritzen auzoan (Abadiño). Pisu berria, eguzkitsua eta merke. 679-61 71 54.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko erdialdean. Jone. 636-05 36 18.

Arrasate. Arrasaten logela ematen da errentan erdigunean. 629-80 77 73.

Arrasate. Bi ikasle gara eta etxebizitza osatzeko lagun bat behar dugu. 195 euro. Unibertsitateko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682-59 60 67.

Arrasate. Etxea osatzeko bi pertsona behar dira. Langile giroa. Errenta gastua: 185 euro gehi pisuko gastuak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699-11 45 14.

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. 610-82 02 17.

Arrasate. Bi logelako etxebizitza bat osatzeko lagun bat behar da, Nafarroa etorbidean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635-70 79 69.

Bergara. Bergaran pertsona bat behar da etxea osatzeko bolun. 230 euro dena barne. 670-85 86 68.

Berriz. Berrizen logela bat alokagai. Erdi-erdian, tren geltokitik eta autobus paradatik minutu batera. 615-75 21 36.

Durango. Logela bat alokagai Durango. Ibaizabal auzoan. Komun pribatuekin. 652-86 57 80.

Durango. Durango, Landako etorbidean, logelak alokagai. 607-68 64 02.

Durangaldea. Durango. Alluitz kalean, pisua partekatzeko lagun baten bila nabil. Prezio onean. Neska gurugor, mutila baino. 688-67 86 90.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Elorrio. Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia salgai. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658-75 92 64.

Elorrio. Elorrioren Berrio-Otxoa kalean, garaje itxia salgai. 17.000 euro. 634-45 72 01.

Elorrio. Garaje itxia salgai elorri erdialdean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-45 87 56.

Garajea salgai. Auto birako garaje-plaza itxia salgai Montevideo kalean. 670-80 92 25.

Oñati. Atzeko kalen 17 metroko garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-71 77 98.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia errentan edo salgai Kontzeziño kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. 943 77 08 02 edo 628 14 92 74

Tolosa. Garajea alokairuan Tolosako Nafarroa etorbidea / Samaniego kalean. Ondo kokatua eta errez aparkatzeko modukoa. 649-07 34 42 edo martinmari2003@yahoo.es

Garajea plaza, Elorrioren. Elorrioko kiroldelgian, lehenengo solairuan, garajea alokagai. 626-47 49 68.

3. LOKALAK

301. SALDU

Gasteiz. Azken erabilera: tailer mekanikoa. Garbitze, engrasatu eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeak atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldatua. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800euro/hil. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com.

303. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Lokal zoragarria 170mko lokalak herriaren erdian alokatzeko prest, 5 eskaparte handiak, autobus geltokiaren ondoan edozein negozio ipintzeko prest, primerako baldintzekin. 94-658 21 01. 400 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-39 00 99.

Gasteiz. Gasteizen 70m2ko lokal zoragarri bat alokatzen da. San Antonio 23 kalean dago. Biltzea, komuna eta bi erakuslehoi ditu. Duela bost urte guztiz erreformatu eta egokitu zen. Erakusmahai eta apalak ditu. 1200 euro/hil. Deitu zenbaki honetara: 693-24 37 12.

304. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Lokala errentan hartu nahi dugu aretxabaletan. Lagunekin egiteko lokal bat bilatzen ari gara. Prezioa negoziatzeko prest gaude, 400 euro inguru. 688-60 24 78 / 634-46 47 07.

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Haur hezkuntza ikasi duen 23 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-88 39 57.

Antzuola. Erizain laguntzaile tituludun gizona, antzuolara, san juan de diosen lan egindakoa, lanerako gertu. 639-66 57 88, 943-78 62 19.

Arrasate. Neska ardurtsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egotea pasioan laguntzeko. 695-73 87 95 / 943-71 53 74.

Arrasate. Debagoienan nagusi edo umeak zaintzen edo atari garbitzen lan eragingo nuke. 679-30 65 28.

Arrasate. Debagoienan, mutil ardurtsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa daukat. 648-75 24 96.

Arrasate. Mutila gertu edozein lan egiteko: peoi lanak eta abar. 651-55 36 29.

Arrasate. Neska gertu lanerako: umeak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketarako egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617-64 08 48.

Arrasate. Neska ardurtsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperekin eguneratuta daukat. 636-80 87 68.

Arrasate. Neska ardurtsua gertu garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 629-80 77 73.

Arrasate. Neska gertu garbiketarako egiteko. Orduka edo astean egun batzuetan. Maite. 696-88 93 73.

Arrasate. Erizain laguntzaile tituludun 20 urteko neska lanerako. Esperientzia du eta traumetologian. Huelduak zaintzeko edo beste edozein lanerako prest. 676-91 55 14 / 657-79 45 17.

Arrasate. 18 urteko neska euskalduna goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 943-79 52 50.

Arrasate. Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketetan. 617-64 08 48.

Arrasate. Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. 662-08 22 03.

Arrasate. Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. 649-52 86 54.

Arrasate. Neska gertu lanerako. Zortzi urteko esperientziaduna. Orduka edo egunez nagusiak zainduko nituzke. Garbiketarako ere bai. Autoa daukat. 688-29 99 85, 634-40 64 65.

Arrasate. Edo Bergara. Emakumea gertu lanerako, orduka, nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan zein tabernan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673-47 53 74.

Arrasate. Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. 943-79 60 89.

Arrasate. Neska ardurtsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziarik. 634-28 16 34.

Bergara. 19 urteko mutil euskalduna ostiral arratsalde, astebukara eta jaiegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627-36 83 70.

Bergara. Emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665-75 41 32.

Bergara. Edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu engoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674-93 20 47.

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 610-34 97 88.

Bergara. 48 urteko neska lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-24 79 09.

Bergara. Antzuola edo Zumarraga. Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketarako gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abar. Merke. Orduetarako barik. 634-91 81 73, 943-76 66 24.

Bergara. Nagusiak zaindu eta garbiketara lanetan lan eragingo nuke. Tituluduna eta euskalduna naiz. 680-77 06 46.

Bilbo. Haur hezkuntza hezitzaile euskalduna, goizetan zein arratsaldetan, durangaldea (Durango, Elorrio, Matiena), Bilbo aldean (Etxebarri, Basauri...) umeak zaintzeko prest. Horrez gain, etxeko lanak egiteko eta umeen eskolako lanetan laguntzeko prest egongo nintzateke. Informazio gehiago nahi izanez gero, nirekin harremanetan jarri, 666-19 75 68 telefonora deituz. Eskerrik asko!

Debagoiena. Astelehenetik egubakoitzera arratsaldez lan egiteko gertu nago, eta baita asteburuetan ere. Edozein lan egiteko gertu. 636-60 48 51.

Debagoiena. Mutila gertu mekanikari lanak egiteko. Baita igeltsari, margolari eta berbitzelan lan egiteko ere. 691-79 53 34.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630-20 12 03.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630-20 12 03.

Debagoiena. Dendatan, tabernan zein nagusiak zaintzeko gertu nago. 634-16 78 71.

Debagoiena. Eraikuntzan, garbiketaren zein mekanika lanerako gertu nago. 671-26 74 74.

Debagoiena. Emakumea prest arratsaldez, orduka, lan egiteko. 650-62 12 94 / 943-76 19 52.

Debagoiena. Neska ardurtsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperekin eguneratuta daukat. 636-80 87 68.

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu, arratsaldez, gau ez astebukareren. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketara lan egiteko. 630-99 11 85.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674-93 20 47.

Debagoiena. Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686-40 42 03.

Debagoiena. Emakume arduratsua, euskalduna, haur heziketa tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. 688-653062.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Ospitalean gauak egiteko gertu nago. Baita asteburu edo egunez ere. Atariak garbitzen ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699-609190.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695-738795/943-715374.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketala lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-306528.

Debagoiena. Mutil arduratsu eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu. Denetariok lanak egiteko gertu. Legezko paperak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-483675.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-223292.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650-177487, 943-764826.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: nagusiak zaindu, banaketak, mekanikari... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-066671.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 678-985464.

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu, nagusiak zaindu edo etxeko garbitasun lanak egiteko. 688-690728.

Debagoiena. Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. 688-802701/943-250296.

Debagoiena. Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-071206.

Debagoiena. Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-071206.

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketetan. 632-097293.

Durungaldea. Neska gaztea Durungaldeko denda eta tabernatan lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600-666417.

Durungaldea. Ume zein nagusiak zaintzeko, garbiketetan edo sukaldarilaguntzaille lez aritzeko lan bila Durungaldean. 631-034812.

Durungaldea. Nagusiak zein umeak edo etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. 608-271873.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketara aritzeko prest. 30 urteko neska, erreferentzia onak. 24 orduz, egunez edo orduka. 697-938565 (Rosmary Alvarez).

Durungaldea. Etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Esperientziarekin eta erreferentziakin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651-341238.

Durungaldea. Emakume arduratsua lan bila. 24 orduz, egunez zein orduka aritzeko prest. Nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-242607.

Durungaldea. Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko zein zaintzan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz, egunez zein orduka aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628-175531.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketetan lan bila. 24 orduz edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-200370.

Durungaldea. Neska arduratsua emakume zein nagusiak zaindu edo garbiketara aritzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-401640.

Durungaldea. Lanaldi erdiko edo osoko lan bila nabil, bai nagusiak zainduen bai garbiketetan. Erreferentziakin. Martxoaren 10etik aurrera lan egiteko prest. 650-610194.

Durungaldea. Garbiketetan zein zaintzan lan egiteko prest. Edozein lanalditan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632-724323.

Durungaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziekin etxeko lanak egiteko prest. 24 orduz edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-169377.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko edo garbiketara aritzeko prest. Erreferentziekin eta paperak egunean. 638-726434.

Durungaldea. Garbiketetan zein pertsona nagusien zainduen lan bila. Orduka. 616-327332.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko lan bila. 620-161496.

Durungaldea. Emakumea umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz edo egunez. Paperak araututa. 629-180271.

Durungaldea. Asteburuetan, gauz zein orduka nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-008222.

Durungaldea. Tabernetan garbiketara lanak egiteko prest. Eta bestelako lanak egiteko ere bai. 647-242301 (Markel).

Durungaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zein etxeko lanak egiteko lan prest. Lansaio osoan edo erdian, baita asteburu edo gauetan ere. 644-200370.

Durungaldea. Ileapaintzaille laguntzaille Durungaldeko ileapaindegietan lan egiteko prest. Esperientziaduna. 672-699152.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zainduen, garbiketetan edo baserrien mantentzean lan bila nabil. 638-373679.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zainduen edo garbiketara lanak (taberna, portalak, etxek...) egiteko prest. 24 orduz edo egunez. 648-200370.

Durungaldea. Biltegietan ganadua zainduen, igeltsero, lorezain zein mendian lan egiteko prest. 638-320345.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zainduen, etxe zainduen, lorezain... Edozertan lan egiteko prest. 24 orduz zein egunez, baita asteburuetan ere. Erreferentziakin pertsonak zainduen. 632-372887 (Julian).

Durungaldea. Gazte arduratsua lan bila. Abeltzaintzan, baserrietan, mendian edo igeltsero lanetan. 631-204237.

Durungaldea. Gazte lan bila. Nagusien zainduen, paletalaguntzaille aurreratu legez, edo antzeko lanen baterako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697-664818.

Durungaldea. Edozein motatako lana egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zainduen, baserrian, mendian (sasiak garbitzeko lanetan...) edo garraio lanetan. 632-635540.

Durungaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak zein umeak zainduen, garbiketetan edo sukaldarilaguntzaille. Erreferentzia onekin. 638-437901.

Durungaldea. Astean behin, garbiketara (portaleak, tabernak...) egiteko edo lanaldi erdian umeak zainduen edo etxeko lanak egiteko prest. 619-676044.

Durungaldea. Esperientziadun eta tituludun emakume pertsona nagusiak zainduen edo garbiketara aritzeko lan bila. 695-488995.

Durungaldea. Gizon arduratsua edozertan lan egiteko prest. 653-298617.

Durungaldea. Gaueko txandan edo goizez pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. 673-689769.

Durungaldea. Durungaldean pertsona nagusiak zein umeak zainduen lan bila. 24 orduz. 603-436323.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zainduen zein etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka aritzeko prest. 631-132291.

Durungaldea. Neska euskalduna, esperientziaduna titulazioarekin, umeak zainduen prest. 662-364167.

Durungaldea. Esperientziadun neska pertsona nagusiak zainduen edo garbiketara aritzeko lan bila dabil. Erreferentziekin. 697-126438.

Durungaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zainduen lan bila nabil. 24 orduz, egunez edo orduka. 602-147935.

Durungaldea. Pertsona nagusien zainduen lan bila nabil. Arratsaldetan, gauetan eta asteburuetan. Erreferentziaduna. 618-460007.

Durungaldea. Gazte arduratsua pertsona nagusiak zainduen lan bila. 24 orduz edo egunez, baita orduka ere. Lehenbailehen hasteko prest. 638-320345.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginkan dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldean haurrak zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688-640604.

Lemoa. Pertsona bereziak, gaixoak, pertsona helduak etab, ospitaleetan zainduen prest. Sociosanitariar titulua, esperientzia, euskaraz, deitu konpromisgabe. 656-719281 (Pili).

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Durango. Kontsulta psikologikoa-ikaseta teknikoak, ulermen-irakurketa-idazketa arazoak, hiperaktibitatea, antsietatea. Deitu telefono zenbaki honetara: 679-382369.

Durungaldea. Haur eta Lehen Hezkuntzako magisteritzan diplomatuak eskola partikularrek emateko prest. Durungaldean. 679-739785.

Frantsesa. Neskatila baten-tzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634438066.

Matematika eta fisika. Matematika eta fisikako eskola partikularrek hartuko nituzke, Batxilergoko 2. mailakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679740061.

Teknologia. Batxilergoko bigarren mailako teknologia eskola partikularrek hartuko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679740061.

Zumaia. Gitarra klaseak ematen ditut hasierako pausuetatik (ezer jakin gabe) maila osoan bat hartu dezakezu... Errez eta merke 12 euro orduko... Estiloko folk (euskal kantak edo kanpokoak) rock , blues-country jazz , Zumaian eskoletatik gertu nahi izan ez gero inguruko herrietako etxeetara joan naiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666-274055.

502. EMAN

Bergara. Euskal filologian lizentziatua, euskara irakasle hainbat urtetan euskaltegietan, gaur egun eskola publikoan irakasle eta ivapen euskaraz aztertzaille. Euskaraz, latina eta gaztelania eskolak ematen ditut lehen hezkuntzan, dbn eta batxilergoan. Baita hizkuntza eskakizunak prestatzeko eskolak ere. 629-979886.

Durungaldea. Neska euskalduna batxilergoduna eta administrazioan titulatuak eskola partikularrek emateko prest. Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoan. 662-364167.

Durungaldea. Psikologo euskaldunak eskaintzen du: ikaseta teknikoak, idazketa-irakurketa-ulermen arazoak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-382369.

Durungaldea. Esperientziadun irakaslea eskola partikularrek emateko eskaintzen da, bakarka edo taldeka. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615-735385 telefono zenbakira edota idatzi bixi@txi@gmail.com helbidera.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrek emateko prest. 675-007919 egorrono@gmail.com

Durango. Neska euskalduna klase partikularrek emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-712460.

Durango. Esperientziadun eta hizkuntza eskolako tituludun ingeles irakaslea naiz. Klase partikularrek ematen ditut, bakarka edo taldeka (talde txikiak). Maila guztiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, 637-292465 telefonora deitu.

Kimikari euskalduna eskola partikularrek emateko prest. Kimikan lizentziatutako neska gazte arduratsua eta ikasle bikaina izandakoa Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, batxilergoan nahiz unibertsitate mailako eskola partikularrek ematen ditu. Arreta pertsonalizatua eta ordutegi zabala. Informazio gehiagorako jarri harremanetan edutxo@hotmail.com helbide elektronikoa edo 635-208533 telefonora.

Villabona. Klase partikularrek ematen dira: ingelese, frantsesa, matematika, fisika, kimika, eta abar. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituluduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664-160268 edo idatzi mezu bat continental56@yahoo.es helbidera.

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana salgai. Ohe handi bi eta sailaio. 8 urte. Garaje handia. 27.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-712321.

BMW E30 salgai. Bmw e30 318i bat saltzen dut. Kotxeak 18.000 km ditu eta beltza da. Zenbait aldatketa egin dizkiot: kirol ihes-hodia, errodamentu berriak, pneumatiko berriak. Gainerako guztiak seriez etorri bezala dago. Prezioa 1500 euro da eta «piña momo» bat ematen dut opari. Saltzeko arrazoia erabiltzen ez dudalako da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-614588.

Daf 55.250 kamioia salgai. Daf 55.250 garabi kamioia salgai. 2002. Urtekoa. 600.000 km eta egoera onean. Oraindik erabilgarri. P. M. A.: 15.000kg. Kargatu daitekeen gehieneko pisua: 7400kg. 699-998510 / 659-425890. aotxotorena@yahoo.es.

Furgoneta salgai. Mercedes Viano fun furgoneta luzea salgai. Kristal tindatuak. Bizikletak eramateko. Mahai eta ohearekin. 6 lagunentzako lekua. Oso egoera onean. Zatorzikuster! Interesatuok deitu telefono honetara: 615-007216.

Furgoneta salgai. VW California furgoneta salgai. 2500 cc. Tdi 102 cv. 656-764673.

Karabana salgai. 4-5 plaza-dun Roller karabana salgai. Egoera eta prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-310083.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Border collie txakurkumeak salgai. Border collie arrazako txakurkumeak salgai. Arrak. 100 euro. 677-441264.

703. EMAN

Katuak opari. 2012ko uztaileko katu txikiak opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-927071.

Txakurkumeak opari. Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 685-758649.

Txakurkumeak opari. Txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete bat dute. Arra edo emea. Interesatuok deitu telefono honetara: 648-635806.

Txakurkumeak. Bi arratoi txakurkume ematen dira aramaien. Bat emea eta bestea arra. Bi hilabete dituzte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 945-445146.

Txakurrak opari. "Bodegero Andaluz" arrazako txakurrak emango nituzke opari. Bi hilabete dituzte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600055074

704. BESTELAKOAK

Setter txakurra galdu da Oñatin. Setter arrazako txakurra galdu zen Oñatin ostiralean, otsailaren 8an. Zuri kolorekoa da eta lepoko laranja dauka. Interesatuok telefono zenbaki honetara: 678624007

Fox terrier txakurra galdu da. Fox terrier arrazako txakurra galdu da Aramaion, Urkiola parke inguruan. 5 urte inguru ditu. Lepoko granatea, ile grisa bizkarralean, hanka marroiak eta oinak txuriak. Mendi izenekoa. Ikusibaduzko deitumesez. (Amaia). 635-738475.

8. DENETARIK

801. SALDU

Ahuntz eta aumak salgai. Ahuntz eta aumak salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-710068.

Aulkiki eta mahaiki salgai. Tabernetako terrazetako mahaikiak eta aulkikiak saltzen ditut. Prezio ekonomikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-788631.

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-757807 (Ana) ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

Bolibar. 4000m2-ko lur salgai Bolibar-en (Bizkaia). Herri ondoan. 660-358067.

Dekorazio aldizkariak salgai. Dekorazio aldizkariak salgai. Ia debalde. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-706227.

Etxetresnak eta ohea. Garbigailua, oso egoera onean dagoena, hozkailua, koltxoia eta somiarrak salgai. Arratsen. 943795299, 626195682

Furgonetako ohea salgai. Furgonetako ohea salgai. Volkswagen t5-eko ohea salgai, koltxoi eta izarekin. Egoera onean. Prezioa: 300 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669-104322 Igor edo idatzi mezu bat igor.anitxu@gmail.com helbidera.

Izotza egiteko gailua salgai. Izotza egiteko gailua salgai. Oso prezio ekonomikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-788631.

Kanpendasalgai. Marechal markako kanpendasalgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezinhobe! 100 euro 615-007216.

Ostalaritzako materiala salgai. Negozioa ixten delako, ostalaritzako materiala salgai. Edalontziak, mota guztiak platerak, mahai-tresnak, makina erregistratzailea, lanparak, aulkikiak... Dena egoera onean, oso gutxitan erabilia. 674-960364.

Quinny freestyle XL (silla+kapazoa). Quinny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat ezutzen da. Silla bi noranztutan jarri daiteke, haurra zuri begira dagoela edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoa. 350 euro. 660-252513 (Ana)

Sofa salgai. 3 plazako sofa salgai. Chaise longuearekin. Oso ondo zaindua. Interesatuok deitu: 615-007216.

Taxi lizentzia salgai Bergaran. Interesatuok deitu telefono honetara: 617429745

Trikitixa salgai. Dino Baffetti urdina salgai. 4 ahosduna eta oso ondo zaindua. Interesatu

baldin bazaude, jarri kontaktuan nirekin 94-6583377 zenbakian (gauz deitu).

802. EROSI

Bergaran edo Debagoienean lursaila erosiko nuke. Hektarea bat edo biko. 625-702198.

Ordenagailu eramangarria erosiko nuke. 656-757698.

Trikitixa erosiko nuke. Trikitixa bat erosiko nuke, 4 ahotskoa eta Slb-en afinatua. Ahal izanez gero Zero Sette markakoa. Salgai, jarri kontaktuan 678822995 telefono zenbakian.

803. HARTU

Bergara. Baratz jartzeko lursail bat hartuko nuke. 650-621294/943-761952.

Bizikleta bat nahi dut. Errepidean ibiltzeko bizikleta gura dut. Zaharra eta merkea bada berria eta karua baino hobea. 94-6481415.

Bizikletak hartu. Bizikleta zaharrak botatzeko badauzkazu, nik jasoko dizut. Iñaki. Deitu telefono zenbaki honetara: 699-062395.

Liburuak batzen ditut. Zuen etxeetako apal zein ganbaratik kendu nahi dituzuen liburuak batzen ditut. 645-720052.

Sofak. Etxetik sofa zaharrak hartu eta bere erantzukizunaz arduratzen gara. Zaborretara bota beharrean utzi geure esku gu arduratu gara etxetik bertatik sofa zaharrak hartzeaz eta bere berrerabiltzeaz edo birziklatzeaz. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671-920649.

806. GALDU

Belarritako balzak Aretxabaletan. Iganeko karnabaletan galdu nituen. Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara. Eskerrikasko. 675006603

Bideo kamera arratsen. Otsailaren 9an, bideo kamera bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, BAZen utzi edo deitu: 616812125

Erloju galdu Oñatin. Astear-tean, hilaren 29an, emakume erloju galdu nuen ugarkaldetik kalera bidean. Lotus etxekoa, zilar kolorekoa, esfera beltz eta zenbaki laranja duna. 686-694422.

Eskularruak galdu Bergaran. Zapatuan, urtarrilak 12, Simon Arrieta eta Bidekurutzeta artean eskularruak galdu nituen, gauean. Beltzak eta azpiko aldetik grisak. 606-247909.

Iritsi da Hotmail postari betiko agur esateko garaia

'Outlook.com'-ek ordezkatu du aurrerantzean

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hotmail-etik Outlook-erako migrazio prozesu beteak dihardute Microsoftek. Joandako eguean hasi zuten prozesua eta Microsoftek abiatu duen zerbitzu bateratzearen ildoan, Hotmail-ek eskaintzen zituen zerbitzuak Outlook-en sartuta egongo dira. Aldaketak udan amaituko dituzte eta Outlook.com izango da posta eta gainontzekoendako erreferentzia bakarra, izako udan ekindakoari amaiera emanez. Hain zuzen, izako ekainean egin zuten Microsoft-ek Hotmail-erako erabiltzailei Outlook.com berrian sartu eta probatzeko gonbita. Erabiltzaile zaharrak ihes ez egin


eta berriak erakartzeko bi eremutan egin dute lan Outlook-en: spamaren aurkako iragazki eraginkorra, batetik – spam arazo handiak baitituzte Hotmail-erako erabiltzaileek –, eta Facebook-ekin integrazioa. Urteetan galdutakoa berreskuratu nahiko luke, horrela, Microsoftek, Google-en Gmail posta zerbitzuaren hazkunde handiari aurre egiteko, batez ere. Orain arteko erabiltzaileek posta zerbitzu berrian sartzeko Outlook.com-era sartu besterik ez dute, helbide eta pasahitz berarekin eta zerbitzu barruan aurkituko dituzte helbide, mezu, egutegi eta gainontzekoak. Metro deritzon interfazea

erabiltzen du Outlook-ek, Windows 8, Windows Phone eta Xbox 360-an aurki daitezkeen berdina.

Dena berdin, itxura izan ezik

Postaren helbideei dagokionez, @hotmail.com helbidearekin jarrai dezake erabiltzaileak edo @outlook.com berri bat eskatu. Kasu horretan bi helbideetako mezua jasoko lituzke erabiltzaileak, sarrera bakarrean. Microsoft-etik diote itxura aldaketa soil bat besterik ez dutela nabariturako erabiltzaileek.

Zerbitzu berriak harrera ona izan duela diote Microsoft-etik, 60 milioi kontu baino gehiagorekin, zenbaketa orokorrean.



'Outlook.com' berriaren itxura. | OUTLOOK.COM

Albiste ataria berdiseinatu dute Yahoo!-koek, foku berriarekin

J.B. | ARRASATE

Hamaikagarren saiakera baten, erreferentzia atari moduan bisitak erakartzeko diseinua ukitu dute Yahoo!-n. Erabiltzailean ipini gura dute fokua eta horretarako pertsonalizazio aukerak areagotu dituzte. Bertso berria, momentuz, Estatu Batuetan ipini dute martxan, emaitzak ikuste aldera.

Erabiltzaileak fokuan

Facebookekin integrazioaren alde egin dute haiek ere, eta atarian bertan ikusi ahal izango dira sare sozialeko edukiak. Goitik beherako albiste zerrenda etengabea dakar diseinu berriak eta tabletentzako eta mugikorrentzako bertsoak atera dituzte, kontsumoa errazteko helburuarekin.



Yahoo!-ren bertso berriaren itxura. | YAHOO.COM

'Mega' doan eskainiko diete unibertsitate ikasle eta zentroei

Mega-ren zerbitzua marka zuri moduan eskaini nahi diete unibertsitateei. Unibertsitateko ikasleek doan erabili ahal izango lukete, asmoak betetzen badira, Mega-ren lainoko biltegiatze sistema. Marka zuri moduan eskaintzean milioika unibertsitate eta ikasleren arreta eskuratuko luke Kim DotCom-en proiektuak.

Publizitate API-a abiatu du Twitter-ek azkenean

2009a ezkerro gertu izan arren, aurreko astera arte ez dute abiatu publizitate APIa (programazio aplikazioa). Hala, publizitate kanpainak sortu eta kudeatzeko aukera eskainiko die aurrerantzean Twitterrek nahi dutenei. Kanpainak sortzen hasteko aukera zabaldu du Twitterrek publizitate agentzientzat.

Jokoak 'streaming'-ean eskainiko ditu PlayStation 4 kotsolak

J.B. | ARRASATE

Jokoak lainoan izatearen kontuan ez da gauza berria, baina bai PlayStation moduko sistema batek horren alde egitea, edukien kontsumoaren eta erosketaren bide berrian jartzen baita. Wall Street Journal-ek zabaldu du berria. Bideojokoaren banaketa fisikoa amaitzea ez dago, ziurrenik, Sonyren gertuko asmoen artean, baina bai bide berriak zabaltzea. Plan zehatzak ez dira ezagutzen, baina aipatutako hedabideak azaltzen duenez, PS3ren eta kotsola zaharragoen katalogora legoke orientatuta lainoko banaketa bide berria. Hala eta guztiz ere, PlayStation 4 aldaketa nabarmenekin eto-

rriko da barneko egiturari dagokionez, jakina denez. Kanpoko itxurari dagokionez, ezer ez da jakin oraindik baina gutxi izaxaron beharko dute zaleek, azaroan kaleratuko baitute kotsolaren modelo berria.



PlayStation 3. | MERCADOSHOPS.COM

Nazioarteko deien %33, Skype bidez

J.B. | ARRASATE

2012an %44 hazi zen zerbitzuaren erabilera, hazten jarraitzen du. Hazkunde horretan gorakada oso esanguratsua izan dute nazioarteko deiek, bikoitza izan baita hazkundea gainerako deiekin alderatuta; zehazki, %33.

Bideo-deiek ere gora

Telefonia konpainiei ez die askorik eragiten kopuru honek, momentuz, batez ere bideo-deiak egiteko zerbitzurik ez dutelako eta Skype, gehienbat, helburu horrekin erabiltzen omen delako, konpainiatik bertatik argitzen dutenez. Hala ere, telefono konpainiek asko jaitsi dituzte nazioarteko dei tradizionalen tarifikak, eta horretan ziurrenik izan du eragina Skype-ren zabal-kundeak, hain zuzen.

Erlojuaren patentea, jada Apple-ren esku

J.B. | ARRASATE

iWatch gaitzenez ezagutzen hasi denaren patentea eskatu du Apple. Patenteak pantaila malgudun dispositibo deskribatzen du eta erloju baten ezaugarri fisikoak dauzka. Gailua eguzki energiarekin eta mugimenduarekin kargatuko litzateke. Patentean, gainera, esaten da uhala bera pantaila izango litzatekeela, eta informazioa erakutsi. Kablerik gabeko konexioa izango du gailu berriak, eta datuak gordetzeko memoria.

Patentea alde batera utzita, esamesek diote iOS sistema bera izango duela erloju inteligentek eta dagoeneko jakina da 100 laguneko lantaldea dabilela proiektuan.



MASHABLE.COM

Yotaphone, pantaila bikoitzarekin

Udaren ostean ipiniko dute alde banatan pantaila duen mugikorra. Aurreko aldean ohiko pantaila dauka eta atzeko aldean tinta elektronikoduna. Tinta elektronikodun pantailaren kontsumoa askoz txikiagoa da eta oso egokia da testuak irakurtzeko. Mugikorra erabat diseinatuta daukate eta fabrikatzaileekin daude orain harremanetan. Kontsumoa ahalik eta gehien txikitu ahal izatea da mugikorrak planteamendu berri horren helburua.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Sakeleko telefono majikoa

Ragarkie buruzko beste bat: Duela urte batzuk zientzia fikzioa zen '2001 odisea espazioan' filmean agertzen ziren bideo-konferentziak.

Gaur egun, sakeleko telefonorik merkeena ere hori egiteko gai da, eta askoz gehiago! Ideia hau iradokitzeke, telefono marka batek egindako kanpaina mundu inkoherente honen islada surrealista agerian uzten du.

Negozio-gizon bat agertzen da bulegoan freskagarri makina batean, eta bere edaria hartzea doanean eskua bertan geratzen zaio harrapatuta. Momentu horretan, Japoniako enpresa batekin bideo-konferentzia bat egiten hasten da bere negozioa saltzeko, bapatean, inolako azalpen narratibo edo argumentatiborik gabe, txakur bat azaltzen da gizonaren prakei hozka egiten dion bitartean.

Zertarako balio du telefonorik aurreratuena edukitzea zure enpresan animaliak solte edukitzen uzten badute eta langileak erasotzen dituzten feskarriak makina harriskutsuak jartzen badituzte? Ze irudi izango dute Asiako inbertsoreek gure enpresei buruz?

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 25



Albistegia

Asteburuko eta eguneko albistek landuko ditugu *Berriak*-en, Monika Belastegik aurkeztuta. | 14:45

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:15 Zorion agurrak
13:20 Onein: Torradak
13:41 Laino arteko plana
14:11 Ekogune
14:41 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion agurrak
15:18 AsteON
15:58 Bizitegia
16:28 Zorion agurrak
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Onein: Menestra
17:27 Berbetan: Igor Elortza
18:09 Ekogune
18:39 Hitzlandia
19:00 Beranduegi.tv
19:20 Onein: Bakailo kurruskaria
19:51 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:01 Gurean Gaur
21:30 AsteON
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik
00:38 Berriak
00:58 Eguraldia

MARTITZENA, 26



'Wert legea'

Imanol Zubizarreta Baikarako koordinatzaileak *Wert legea*-z hitz egingo du *Magazinea*-n. | 20:14

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:15 Zorion agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein: Torradak
16:16 Berbetan: Igor Elortza
16:58 Berriak
17:18 Eguraldia
17:21 Esatea libre
18:39 Beranduegi.tv
18:59 Harmailatik
19:44 Zorion agurrak
19:49 Berriak
20:09 Eguraldia
20:14 Magazinea
20:59 Gurean Gaur
21:29 Hitzlandia
21:52 Berriak
22:12 Eguraldia
22:17 Magazinea
23:02 Bizitegia
23:30 Berriak
23:50 Eguraldia

EGUAZTENA, 27



Osasun tartea

Esklerosi anizkoitzari buruz hitz egingo dugu Juan Antonio Untzuruntzaga oñatiarrarekin. | 20:22

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:10 Harmailatik
13:55 Sagarrondotik
14:40 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Jaiak: Aratusteak 2013
15:58 Onein: Bakailo kurruskaria
16:29 Harmailatik
17:14 Sagarrondotik
17:47 Zorion agurrak
17:52 Berriak
18:12 Eguraldia
18:14 Iruñeakohotsak: Paris 365
18:59 Hitzlandia
19:22 Bizitegia
19:52 Zorion agurrak
19:55 Berriak
20:20 Eguraldia
20:22 Magazinea
21:07 Gurean Gaur
21:38 Sagarrondotik
22:20 Ekogune
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:12 Magazinea
23:57 Harmailatik
00:42 Berriak
00:47 Eguraldia
00:50 Magazinea

EGUENA, 28



'Planik bai?'

Astebururako kultura hitzorduen berrieman-go digu Maider Arregik eguneko *Planik bai?* saioan. | 18:12

12:00 Magazinea
12:50 Gurean Gaur
13:20 Sagarrondotik
14:03 Ikusmira: Turdaibai
14:15 Onein: Menestra
14:41 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Iruñeakohotsak: Paris 365
15:53 AsteON
16:33 Berriak
16:53 Eguraldia
16:56 Onein: Bakailo kurruskaria
17:27 Iruñeakohotsak: Paris 365
18:12 Planik bai?
18:32 AsteON
19:12 Zorion agurrak
19:17 Beranduegi.tv
19:37 Berriak
19:57 Eguraldia
19:59 Planik bai?
20:21 Magazinea
21:06 Gurean Gaur
21:36 Laino arteko plana
22:05 Planik bai?
22:25 Berriak
22:45 Eguraldia
22:48 Magazinea
22:33 Jaiak: Aratusteak 2013
00:23 Berriak
00:43 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 1



'AsteOn'

Ainhua Villar terapeutak Oñatiko eguneko zentroan txakurrekin egiten duen terapia hizpide. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion agurrak
13:10 Gurean Gaur
13:40 Onein: Olgarroat plantxan
14:03 Bizitegia
14:33 Ikusmira: Turdaibai
14:43 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Berbetan: Igor Elortza
16:05 Laino arteko plana
16:35 Beranduegi.tv
16:55 Zorion agurrak
17:00 Berriak
17:20 Eguraldia
17:23 Planik bai?
17:43 Esatea libre
19:01 Zorion agurrak
19:04 28 Klip
19:36 Beranduegi.tv
20:00 Zorion agurrak
20:03 Berriak
20:23 Eguraldia
20:25 Planik bai?
20:45 Hitzlandia
21:08 Beranduegi.tv
21:30 Gurean Gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Klaketa
23:28 AsteON
23:58 Planik bai?
00:18 Berriak
00:38 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Los Separatistas taldearen kontzerturako sarrerak

Koaltur egitasmoak ekimenaren barruan, egun honetan Los Separatistas taldeak emango du kontzertua Arrasateko gaztetxean. Emanaldirako sarrerak lortu nahi badituzue, hartu parte zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzita.

Jon Zubiaga 'Osoron' aktorea elkarrizketatuko dugu

Aretxabaletako Arkupen antzezlana eskainiko du bihar, martitzena, 19:00etan, Jon Zubiaga *Osoron* aktoreak, Korrika Kulturalaren barruan. *Pisukideak* antzezlana eskainiko du eta horri buruz hitz egingo dugu harekin *Igo autobusera!* irratsaioko elkarrizketen geltokian, 11:00etan.

Gazte Bulegora gerturatuko gara martitzenean

Arrasate Irratiko 107.7ko uhinek Gazte Bulegoraino eramango gaituzte martitzenean, gazte informazioari buruzko informazioa jasotzeko asmoz. Informazio hori Dorleta Kortazarrek, Gazte Bulegoko arduradunak, kontaktuko digu. Elkarrizketen geltokian entzuna ahal izango duzue hori, martitzenean, 11:00etan.

TELE-ALBISTEAK

'Magazinea'-n gai ugari jorratuko ditugu aste honetan

Elgetan ospatuko den Ahotsak Eguna izango dugu gaur berabagai, besteak beste, 20:18an

Xomin Madina, *Magazinea*-ko aurkezlea. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Astero moduan, oraingoan ere gai ugari jorratuko ditugu astelehenera bitartean emititzen dugun *Magazinea* saioa.

Gaur, astelehena, Elgetan martxoaren 15ean ospatuko den Ahotsak Eguna izango dugu hizpide lehenengo tartean. Asier Sarasua izango dugu, gurean, ospakizun horren nondik norakoak kontatzen.

Martitzenean, berriz, LOMCE edo *Wert legea*-ri buruz hitz egingo dugu Imanol Zubizarretarekin eta hark azalduko dizkigu lege horren xehetasunak. Martitzenero moduan, ondoren, ekonomia kontuak ere izango ditugu berabagai Leire Kortabarriarekin.

Eguaztenean, berriz, osasun kontuak izango ditugu hizpide, besteak beste, eta, saioaren amaieran, lehiaketa sariak irabazteko aukera izango duzue.

Eguenean, berriz, gazteei emango diegu hitza tertulierekin. Gaurkotasunezko gai buruz hitz egingo dugu eurekin. Hori eta gehiago, aste honetan, *Magazinea* saioan.

Bergarak Oiartzunen kontra jokatuako partidua ikusi ahal izango duzue gaur

Bestelako kirol hitzorduak ere izango ditugu hizpide 'Harmailatik' saioan gaur, 22:00ean

A.T. | ARRASATE

Asteburuan bailaran izandako kirol hitzorduen erreposoa egingo du Mireia Bikuñak *Harmailatik* kirol saioan.

Batetik, futbola izango dugu hizpide; Bergarak Oiartzunen aurka neurtu ditu indarrak asteburuan, eta bertan jasotako irudi eta adierazpenak ikusi ahal izango dituzue.

Natra Oñati saskibaloitaldeak, bestalde, Zornotzaren aurkako partidua izan du, eta, ligako partidua arrunta izateaz gain, bertan jasotako dirua esklerosi anizkoitzaren elkar-tertera bideratuko dute.

Txirrindularitzak ere izango du lekua *Harmailatik*-en. Izan ere, Oñatiko Aloña Mendiko txirrindularitza taldeak dagoeneko aurkeztu du taldea, eta bertan jasotakoak erakutsiko dizkizuegu, taldearen denboraldiko asmoen berri emanda.

Arrasateko Uarkapen egin zen gimnasia erritmikoko saioa irudi batzuk ere eskainiko dizkizuegu. Eskolarteko txapelketa jokatu zen, eta bertan jasotakoak ere baditugu.

Hori guztia ikusi ahal izango duzue gaur, astelehena, 22:00etan hasita.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Urko Gomez Barrena
Otsailaren 28an, 7 urte. Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Aitor Anton Serrano
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitea!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta txokolate asko jan. Muxu handi bat etxekoan partetik, bereiziki Ariadnak. Zorionak!



BERGARA
Unai Bolibar Amor
Otsailaren 28an, urtebete. Zorionak, txikitxu!
Ondo pasatu eguna eta patxo handia etxeko danen partetik!



BERGARA
Laiatz Fernandez Alvarez
Otsailaren 26an, 2 urte. Zorionak, txapeldun!
Patxo handi-handi bat eta zorionak beti... Aiora, Kemen eta Hurren partetik.



GASTEIZ
Eider Balantategi Eiro
Otsailaren 26an, urtebete. Zorionak, potti!
Zeure lehenengo urtebetetzian, patxo handi bat familia guztiaren partetik. Ondo pasatu!



BERGARA
Sara Sotil Barrio
Otsailaren 26an, urtebete. Zorionak, potxola!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat etxeko danen partetik, bereiziki, Aratz eta Unai!



OÑATI
Axi Zubia Arriaran
Otsailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo!
Egun on-ona izan zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat Sara, Unax, Mikel, amatxo eta familia danaren partetik!



ARETXABALETA
Laida Zubizarreta Uribarren
Otsailaren 26an, urtebete. Zorionak, gure marrubito!
Zure barretxo horrekin eta horren pizpirin jarraitxu. Patxo handi bat batez be zure anaitxo Beñatek, aitatxok eta amatxok. Pa.



BERGARA
Igor Larrañaga Agirre
Otsailaren 25ean, 3 urte. Zorionak, Igor!
Jada mutiko handi egin zara. Patxo bat Elene, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Danel Zabala Muruamendiaraz
Otsailaren 24an, 4 urte. Zorionak, pirata!
4 patxo handi Haizea, aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
Lander Agirre Osinaga
Otsailaren 23an, 8 urte. Zorionak, Lander!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Garazi Agirre Osinaga
Otsailaren 23an, 8 urte. Zorionak, pottola!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Elene Berasaluze Idigoras
Otsailaren 23an, 2 urte. Zorionak amatxo, aitatxo eta batez ere "amama Pipina"-ren partetik.



ARRASATE
Eder Luengo eta Luken Ugarteburu
Ederrek otsailaren 23an, 6 urte eta Lukenek martxoaren 2an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztiaren partetik, bereiziki Aisharena.



ARRASATE
Maria Agreda Vieco
Otsailaren 23an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat ama, aita, Naiara, zure osaba-izeba eta lehengusuen partetik!



BERGARA
Ane Alberdi Sanz
Otsailaren 23an, 4 urte. Zorionak, Ane, eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunengan. Etxeko guztiaren partetik muxu handi bat.



ARRASATE
Markel Aranburuzabala Kortabarria
Otsailaren 22an, 5 urte. Zorionak, Marke!
Muxu handi bat etxekoan eta Julenen partetik, belarritik tirakadaxo bat eta txokomarrubizko patxo handi bat.



ARAMAIO
Izaro Ezpeleta Etxeberria
Otsailaren 22an, 3 urte. Zorionak, printzesa!
Musu pototo-potolo bat etxeko guztiaren partetik.



BERGARA
Katixa Gallastegui Lete
Otsailaren 21ean, 4 urte. Zorionak, printzesa, eta txokolatezko muxuak familiaren partetik.



OÑATI
Enaitz Arregi Markuleta
Otsailaren 20an, 8 urte. Zorionak, Enaitz!
Dagoeneko zortzi urte potolo bete dituzu! Muxu handi-handi bat etxekoan partetik.



OÑATI
Haizea Frutos Martinez
Otsailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, potxola!
Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik. Askok maite zaitugu.



BERGARA
Ander Iarduia Arteaga
Otsailaren 20an, urtebete. Zorionak, Ander. Muxu handi bat etxekoan partetik eta besarkada erraldoi bat Harkaitzen partetik.



ARRASATE
Olatz eta Maite Azkarraga Mendizabal
Otsailaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, bikote, eta ondo pasatu zuen urtebetetzean. Familia guztiaren partetik muxu handi bat. Mua!



ARRASATE
Atarratz Etxebarria
Otsailaren 19an, 37 urte. Zorionak, aitatxo!
Alaitzen eta amatxoren partetik.



BERGARA
Haizea Sanchez
Otsailaren 19an, 2 urte. Zorionak, printzesa!
Dagoeneko bi urte egingo ditu gure etxeko txikiak. Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxekoan partetik, bereiziki izeba Noemik.



ARRASATE
Danel Gonzalo Maria
Otsailaren 18an, 6 urte. Zorionak, mutil handi!
Oso ondo pasatu zure egunean. Belarri tirakada eta patxo handi bat aita, ama eta Anderren partetik.



OÑATI
Maidier Murillo Astigarraga
Otsailaren 16an, 15 urte. Zorionak, guapixima!
Ondo-ondo pasatu zure 15. urtebetetze eguna! Muxu eta besarkada handi bat etxeko danen partetik!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituz Goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Martin Aldekoa Unzueta

Arrasate. 3,240 Kilo. Otsailaren 15a. Gurasoak: Eider eta Mikel. Argazkian, Martin jaioberria amama Liderekin.



Nile Etxaburu Astiazaran

Bermeo. 3,650 Kilo. Otsailaren 18a. Gurasoak: Ainhua eta Iñigo. Argazkian, Nile gurasoekin eta ahizpa Junerekin.



Nora Perez Zabaleta

Bergara. 2,850 Kilo. Otsailaren 19a. Gurasoak: Amaia eta Gorka. Argazkian, Nora jaioberria amarekin.



Nora Garcia Hernandez

Eibar. 2,700 Kilo. Otsailaren 21a. Gurasoak: Susana eta Raul. Argazkian, Nora jaioberria amarekin.



Aimar Zubia Anduaga

Oñati. 3,340 Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Sonia eta Argider. Argazkian, Aimar jaioberria sehasan lo.



Ibai Axpe Intza

Oñati. 3,560 Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Alazne eta Jose Ramon. Argazkian, Ibai jaioberria aitarekin.



Lorea Garcia Martinez

Aretxabaleta. 3,380 Kilo. Otsailaren 20a. Gurasoak: Vanesa eta Juanjo. Argazkian, Lorea gurasoekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.





DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Kirol olimpiarra	Orezta	Lau
	Iragana	Alderantziz, maindire	Ogi-saskiak
Bai eta bai eta bai	Pl., fruitu mota	Gaxotu	Hizki grekoa
Bizkaiko udalerria			
Irakeko	Antzokiak	Garen hauek	Hunki
Sail			
Barazki hostotsua	Berehala		

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

I	K	U	R	A	V	Z	A
A	T	R	O	A	T	E	A
U	E	G	E	R	I	E	S
K	I	A	R	I	A	R	K
R	O	Z	I	Z	L	A	L
K	A	N	A	K	B	A	R
U	E	R	I	T	A	I	G
A	R	O	A	I	G	A	R
L	O	L	O	L	I	O	L

E	A	T	O	E	A	R	U	A
A	Y	E	R	A	B	N	P	R
R	O	A	O	E	I	R	A	N
F	I	L	I	P	I	N	A	K
A	M	V	A	R	P	F	S	T
P	R	A	K	U	W	A	I	T
E	A	O	A	O	G	E	U	H
I	N	D	I	A	A	O	A	E
N	B	A	H	R	A	I	N	A

4	7	9	1	5	3	8	2	6
3	5	8	6	9	2	7	1	4
2	6	1	7	4	8	5	3	9
6	3	7	2	8	4	1	9	5
8	4	2	5	1	9	3	6	7
1	9	5	3	7	6	2	4	8
9	2	4	8	3	7	6	5	1
7	1	3	4	6	5	9	8	2
5	8	6	9	2	1	4	7	3



Ezetz igarri: Iraren erdigunean sua piztu; alboko sua iristeak ez luke zer erreak izango.

SUDOKUA

			9	2				
7	1	3		6				2
	2	4		3	7			5
	9	5						4 8
								6
6	3		2	8	4			
2			7			5		
3		8		9		7		
			5	3				

HIZKI SALDA

Topa itzazu Asiako bost estatu

E	A	T	O	E	A	R	U	A
A	Y	E	R	A	B	N	P	R
R	O	A	O	E	I	R	A	N
F	I	L	I	P	I	N	A	K
A	M	V	A	R	P	F	S	T
P	R	A	K	U	W	A	I	T
E	A	O	A	O	G	E	U	H
I	N	D	I	A	A	O	A	E
N	B	A	H	R	A	I	N	A

EZETZ IGARRI!

Landaretza handiko eta marrazoz inguratutako irla batean zaude.

Iraren alde batean sua sortu da, eta haizea alde du.

Zer egin beharko zenuke suak harrapa ez zaitzan?

AI, ENE!

Komunera joateko erdi lo jaikiz gero, akabo!

Komuneko tapa altxatzea ahazten zaien gizonezkoei ikasgai baliagarria emateko aproposa da benetan ere argazkikoa.
www.sarda.es



AHOBERO

"Nire osabak serioa dirudien arren, katxondo bat da"

ARAN AZNAR | JOSE MARIA AZNARREN ILOBA

Ez dakigu zer den deigarriagoa, Aznarrek umorea duela jakitea edo bere iloba *Interviú* aldizkariaren azalean ikustea. Espainiako presidente ohia haserre omen dago ilobarekin, baina zergatia ez dugu oso ondo ulertzen. Nahiago al du bada tipo grisaren irudia?
'Interviú'

EGURALDIA



Zaparrada giroa gailenduko da. Elur maila 200 m-ra goizean eta 400 m-ra arratsaldean.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-02-25

HAMARREKOA

Josu Zabala Ingeniaria eta Elektronikan, Elektroteknian eta Automatikan doktorea, 2006az geroztik Mondragon Unibertsitateko errektorea da; bere hitzetan, oso bizkor pasa zaion denbora | TXOMIN MADINA

"Unibertsitateko nire lehen eguna eguzkitsua irudikatzen dut"

1. Zazpi urteotan dezente aldatu da mundua...

Hemen aldatu da, gure mundua. Aurretik ere aldatzen zebilen Asia aldean. Han ez da krisirik: aldatu eta aldatu dabilta aurreikuspenak gaindituz. Ez bagara horretaz ohar-tzen aldaketa gehiago izango ditugu; ez da mehatxua, aukera baizik.

2. Unibertsitateko lehen kurtsoa hasiko duenak ez du panorama ederra.

Horrekin nolabaiteko psikosia sortzen dabil. Unibertsitatea amaitzean, arazo gehiago edo gutxiago egongo dira baina askoz panorama okerragoa dauka hasten ez duenak.

3. Hezkuntzan murrizketak ei datoz. Bide egokia?

Ez. Gazteak ondo hezi behar dira ikertu eta ikerketak enpresei transmititzeko, hauek lehiakorak izan eta kanpotik datorren olatuari buelta emateko. Murrizketek ez dute laguntzen gizarte moduan ditugun erronkei aurre egiten.

4. Nola oroitzen duzu unibertsitateko lehen eguna ikasle gisa?

Unibertsitatera Donostiara joatean, beldurra eta ziurgabetasuna sentitu nituen, baita ilusioa eta optimismoa ere. Egun eguzkitsua bezala irudikatzen dut.

5. Bikoak, zazpikoak edo hamarrekokoak ziren gehiago zure notetan?

Zazpiaren bueltan ibili nintzen, nahiko txukun. Gutxiagiren bat ere atera nuen eta ez zitzaidan batere gustatzen.



AGM

MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

"Ezberdintasunak kenduko nituzke"

"Mundu guztian bakea jarriko nuke; eta ezberdintasunak kenduko nituzke, baita dakartzaten ondorioak ere. Ezberdintasunak ez dira bidezkoak: gero eta mundu globalizatuagoa gara eta pentsatzen hasi beharko genuke nola kendu. Eta hilabete honetan izan dugun eguraldia ikusita, hondartza bero batera ere joango nintzateke".

6. Unibertsitate garaian ikasi zenuen gitarra jotzen?

Hamalau bat urterekin hasi nintzen ikasten neure kabuz. Gitarra prozesu bat da: ez da sekula ikasten, beti hobetzen joaten da; abilezia baino burugogortasuna da gehiago. Erlaxatzeko modu oso egokia da.

7. Atzerrian ikasten MUKo lehenengotakoa izan zinen. Zer eman zizun esperientzia hark?

Dena. Joan izan ez banintz, ez nengoke hemen; bizitza markatu zidan ikasketa eta nortasun aldetik. 1973an izan zen eta Frantzia gu baino askoz aurrerago zegoen metodo eta teknologian; horiek landu eta hona ekartzeko balio izan zigun.

8. Roboten mundua ondo eza-gutzen duzu. Zientzia fikzioa laster egingo da errealitate?

Gizakiari begiratuta, gure ahalmenei, mugikortasunari, zentzuei, mugitzeko zentzuak konbinatzeko erari... Hori zoragarria da eta horra heltzeko urte asko beharko dira.

9. Jarraitzen duzu margolari sena izaten?

Gaztetan nahikoa landu arren hogeiturtetik ez dut margotu. Badut, erretiratzean, berreskuratzeko grina. Estetikak, formek, kolore nahasketek, asko erakartzen naute.

10. Ingeniaria, doktorea, errektorea... Eta martxoan kargu berria: aitona.

Oso titulu polita da. Nere umeekin azkar pasa zitzaidala sentitzen dut, eta orain beste perspektiba batekin ikusten dut. Ilusionatuta gaude.

BIHARAMUNA



MARKOS VALENTZIAGA

Arrazoiak

Rattingerren dimisioaren arrazoiak argitzeko Eliza Katolikoak hamaika doktore dauka eta den-denek dakite ustearen zein erdi den ustel ere. Nik apal-apal aitortzen dut ez dudala linearik Rouco Monsinorearekin eta ez dudala vaticanologo bat bera ere ezagutzen. Nire iritzitxo lauaren arabera bi arrazoiak eraman dute Ratzinger dimisioa ematera:

1. Raxoy aliatua lagundu nahiak. Hara: bai Raxoy beraren eta bai PPren diru-kontaduriak, une honetan, ez dabilta oso katoliko eta PPburu eta Gubernuburu den Raxoyk Jesusenak eta bi pasatzen dihardu. Egoera horretan Ratzingerren dimisioak Raxoyri europrentsako lehen orrietatik eta telediarrietatik lehen minutuetatik urruntzeko modua oparitzen dio. Eta batez ere:

2. Gubernua, oposizioa eta sindikatuak jubilazio-adina adostu ezinik dabilzanean Benedikto XVI.ak, berea 85 urte eta 10 hilabeterekin hartuz, langile guzti-guztiei produktibitate-lezio bikaina ematen die, eta Gobernuari laguntza aparta, erretiroaren langa zein edadetan jarri erabakitzeko.

Ustezko arazo bihurrienen konponbide xaloena izaten dute sarri.



5,75 €/kg

Skrei bakailaoa

Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es

Eskaintza baliagarria 2013ko otsailaren 25etik 28ra